

6€ **EUSKAL HERRIKO**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**


KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

**51**  
ZENBAKIA

2010eko **EKAINA**

# *Natura*

**INGURUMENARI**  
**BURUZKO BEREZIA**



**EUSKAL HERRIKO**

# **HARRAPARIAK**

# EUSKAL HERRIKO HARRAPARIAK

ZOOLOGIA



Arrano beltza. *Aquila chrysaetos*.



Arrano txikia. *Aquila pennatus*.



Bonelli arranoa. *Hieraetus fasciatus*.



Arrano sugezalea. *Circus cyaneus*.



Zingira mirotza. *Circus aeruginosus*.



Mirotz zuria. *Circus cyaneus*.



Mirotz urdina. *Circus pygargus*.



Miru beltza. *Milvus migrans*.



Miru gorria. *Milvus milvus*.



Zapelatz arrunta. *Buteo buteo*.



Gabiraia. *Accipiter nisus*.



Aztoea. *Accipiter gentilis*.



Sai arrea. *Gyps fulvus*.



Sai zuria. *Neophron percnopterus*.



Belatz handia. *Falco peregrinus*.



EUSKAL HERRIKO  
NATURA

IRAUNGITZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK DEFENDATZEKO ELKARTEA

ZURE NATUR ETA ZOOLOGIA ALDIZKARIA



EUSKO  
IKASKUNTZA

EHAA-1996ko otsailak 7, asteazkena.  
3/1996 DEKRETUA, urtarilaren 9koa, Elkarte  
herri-onurakoa dela aintzatesten duena.

## AURKIBIDEA

Zortzigarren urtea -51.zk- 2010eko EKAINA INGURUMENARI BURUZKO BEREZIA

GAUEKO HARRAPARIAK.....	4-12
Hortza handia.....	4
Hortza ertaina.....	6
Hortza zuria.....	8



Apo hortza.....	8
Mozolo arrunta.....	12


EGUNEKO HARRAPARIAK.....	12-50
Arrano beltza.....	14
Arrano txikia.....	16



**EUSKAL HERRIKO NATURA**

Zuzendaria: Fernando Pedro Pérez.  
Erredakzio-burua: Kepa Zenarruzabeitia  
Kolaboratzaileak: Jon Zubiri, Aitor Aba, Xabi Azkue, Oskar Azkona, Fidel Korta.  
Argazkiari-taldea: Eudeme Urkizu, Aitor Zubizarreta, Xabier Urreta, Izaskun Loidi.  
Maketatzailea: Elena Garrido  
Legezko gordailua: BI-2452-02.  
ISSN: 1695-4645  
Aleak: 4.000

Erredakzioa: Argitaratzailea:  
Av. Madariaga, nº 47-49 C - Esc.1 - 48014 BILBAO. Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak  
Tel: (94) 4 75 28 83. e-maila: adeve.2@euskalnet.net Defendatzeko Elkarteak.



Naturaren Ahotsa Interneten zabaltzen da Euskomedia  
Fundazioaren bitartez, ADEVE eta EUSKO IKASKUNTZA-ren  
arteko hitzarmena dela eta [www.euskomedia.org/adeve](http://www.euskomedia.org/adeve)

eusko  
media

HARPIDETZA BOLETINA Urteko kuota: Hamabi ale urtean: 36 euro. TLF.: 94 75 28 83



**HONTZA HANDIA**  
Bubo bubo

**NOLA EZAGUTU?** harrapari honek hiru kilogramo eta erdiko pisua har dezake, eta hirurogeita hamar zentimetro altuerara eta ia bi metroko hego-luzerara iritsi, ezugarri anatomiko horiek Europako iparaldean bizi diren hegaztien berezkoak direla. Gure mendietan, ordea, arraroak dira bi kilogramoko pisua gainditzen duten hegaztiak. Izatez, kilogramo eta erdiko pisua izan ohi dute. Nahastezina gertatzen dela bere lamaina handiagatik, bere gorputza estaltzen duen lumaje okre-agatik, aurpegiari bere begi laranja handitzarren gainean dituen luma-moto luze tentekorregatik eta bere atzapar indartsuengatik, gauari loturiko bere edertasun arraroa berehala nabarmentzen zaio hegaztia adarren batean pausatutik ikusteko parada duen behatzaileari.

Egunez nekez ikus daiteke, bere lumajea, kamuflajea eta botereak, nahasi egiten delako ezkutu eta lokuluxkan dagoeneko haitze-kin edo zuhaitzen azalarekin. Oraindik nahasgarriago gertatzeko eta zuhaitz edo haitzaren parte dela emateko, lumak batzen dizkio gorputzari eta belarrietako motokak jaitsten ditu. Astelehandian dagoenean, hontza handiak bolotzen ditu begiak eta lozorro arin batean erortzen da, hotsik biki-narekin esnatzen dela. Une horretan, luma-motoak alkatzen ditu eta burua biratzen du bere begirada hots-aldera zuzentzeko.

**BIOLOGIA:** hontza handiak iluntasunari izugarri moldatutako ikusmena du. Bere begi handizarrak argiaz oartzeko gauza dira, eta ilargirik gabeko gauetan ere, beren erretina bereziari esker. Begiaren egitura bereziak, kolorez oartzeko zelula konikoak barik, argia hartzeko zelula zilindrikoak horniturik baitago, gau-ikuspen paregabekoa ematen dio. Zelula zilindriko horiei esker, informazio osoa lortzen du ikusitako lurraldearen erlieberia buruz, usteko harrapakin baten mugimenduari buruz eta beragandik dagoen aldeari buruz. Esan liteke hontza handiek, gauen, zuñ-beltezz ikusten dutela, xehetasunik bikienera ere galdit gabe baina.

Ikusmen bikaina edukirik ere, entzumenari esker atzematen ditu bere harrapakin gehientzuek. Organo horrek aurpegi-diskoa du kanpoaldekoko apaingari, lumabiko finez osatua. Disko horren eginkizuna da soinua jaso eta kanpo-belarria zuzentzea, belari hiru luma-azalaren zenbait tolesduraz osaturik dagoela. Belari bakoitzak kanpoko soinua analizatzen ditu bere aldeak. Era horretan, hontza handiak biktimaren jarreraren informazio zehatza lortzen du.



Esperimentu ornitologikoez frogatu dute, entzumenari ikusmena baino garrantzitsuago zaien hontza handiei, ehizarako orduan, izatez, hegazi batek, begiak estalirik dituela, ez du inola arazorik harrapakin bat atzemateko. Aitzitik, entzumenik gabek, hontza handiaren erasoek huts egiten dute ia beti.

**Ugalketa**

Hontza handia dugu araldian aurrenik sartzen diren gaueko harraparietakoak. Abenduaren amaiera aldera edo urtarrilaren hasieran, negua hasi berria dagoela, jaulkitzen dute arrek beren utu indartsua, gau luze hotzetan. Maitasunaren

deiek burrunbatzen dute oihartzun ahaltsuaren antzean hainbat kilometrotara dauden labarretan. Bere kantu monotonoa gelditu egiten da erantzunaren zain, mezuak oihartzunik duen egiaztatzeko. Erantzuna jasotzekotan, gau-ibilasuna urratu egingo da dei-erantzun etengabeen trukaketa batez. Baina bikotea egitea ez da soinu-trukaketa horretan soilik oinarritzen, baizik eta, eguneko harraparien kasuan bezala, bikoteak hainbat goranzko hegada eta plano antz egiten dituela neguko gau batean.

Zeremonia hori araren dantzarekin amaitzen da: arra, luze-luze eginda eta lumak gorputzari batuta, emeari hurre-ratzen zaio, jarraian, estaldura egiteko. Bikoteak, dagoeneko sendotuta, leku hurbilgaitza eta behar bezala babestua bilatzen du errutua egiteko. Leku hobetsien artean ditu hainbat hamarretako metrotara dauden harkaitz-labarretako haitzulo eta erlatzak, eta beti gain-bisera batez estaliak edo, batzuetan, landarezko estaldura usu batez ezkutatuta.

Emeak lurrean zuzenean erruten ditu 3 edo 4 arrautza -batzuetan bost-, bi egunetik lautarako bitarteak gordetzen dituela baitetik bestera, eta inkubazioari ekiten dio lehenengo erruten duenean. 35 egun inguru igarota jaiotzen dira bitoak, eta emeak, oso arduratsua,



**GAUEKO HARRPARIAK**

arrak dakarren janaria hartzeko baino ez du habia uzten. Elikagaia jaten du etzalekutik urrutiratu samar dauden pausalekuetan, biktimen hondakinetan dagoen ile, luma edo hezur kantitate handiak agerian jar diezakeelako habiaren kokalekua beste harrapari batzuei. Hala eta guztiz ere, gurasoak hain dira fidagaitzak, ezen, beren "etxearen" segurtasuna guztiz bermaturik ez badago, beste leku batera eramaten dituela.

Talotoek, batzuen eta bestearen artean denbora-larke garrantzitsuak direla, jaiotzen direnek, taimainako diferentzia handiak agertzen dituzte beren bizitzaren hasieran. Zer hori dela bide, txito txikiak hilk gerta daitezke, gainerako kumeak edo gurasoek eurek mokokadez hilk, aldean ezikazi urri egon edo eskasiako urtea izanez gero, oso egoera latzetan indartsuenek biziraun dezaten. Ikusia da, aitzitik, hontza handi helduek atxikimendu handia dutela beren kumeekiko, eta jaten ematera joaten dira haiek kenduak eta kaiolatuak izan badira ere.

Talotoek, beren gurasoen aldetik hain ongi zainduta daudela, oso haziakude azkarrak lortzen dute. Gainera, oso kume zoi eta ongi irakatsiak dira, eta edozein arrisku egonez gero, uxatzeko taktika bat erabiltzen dute uesteko harrapariaren aurrean: hant-patu eta harrotu egiten dituzte beren gorputzeko luma guztiak, hegazko ere erdirektitzen dituztela.

Era horretan, hiru-kokatu egiten dute beren taimaina eta, aldi berean, kaskadak eta kriskitin-hotsak egiten dituzte mokoarekin, beldurtu egiten dutela, sari askotan, sudurluze ausarta, hain etsai eskerjaren aurrean alde egiten duena. Eta erasotzera ausartzen denetan, hain denbora luzea hartzen du pentsatzeko, ezen, bitartean, bitoek ihes egitea dute.


Txilo argitsuak saltoko bilkatzeko gai dira labarren artean, jaino eta otza-otza hiru aste igarota. Hilabete bat geroago hasten dituzte beren lehenengo hegada-ikasketak, eta, hilabete gutxitan, badira ugaltzeko gauza.

**ELIKADURA:** eguna igarotzen bada gorabeherarik gabe, ilunabarrean esnatzen da hontza handia, eta janari bila joaten da. Bere janaria oso anitza da, itzeleko harraparia baita, mota guztietako omodunak jaten dituela: ugaztunak, hala nola, karraskariak, urtibtxak, untxiak edo erbiak, mustelidoak, hegaztiak -horien artean, korbidok, ahatekideak, usok-, narrastak, urlehortarrak, arrainak edo intsektuak. Dena dela, saguzarrak edo beraren familiako espezie bikiagoak, esaterako, mozoak, apo-hontzak, edo zapal-tzen taimainako eguneko harrapariak ere izaten dira hontza handiaren joera harrapatzaile erasoakoren gai. Ia ez dago atzera egitera behartzen duenik, ezta kirikinoen orratz babesgarriek ere. Harrapakinak ezustean hartzeko helburuz, hontza handiak eguneko harra-



harrapakinak nekez izurten zaizkie haren atzaparrei, oso animala bizkorak izanda ere.

**HABITATA:** izaera geldikorra du bere banaketa-alde Palearktiko osoan. Fidelotasuna gortetzen die haitzarte malkartsuak dituzten baso eta mendialdeak, bertan bizi daitzekeela ere mila metro altitudetik gora. Leku horietan erraz aurkitzen ditu bere jardueran aritu ahal izateko behar dituen gordelekuak. Dena dela ez ohi da altuera handietara bizi. Araban, esaterako, behe-altitudetako alde malkar eta menditsuetan, hau da, mendizera inguruetako haitzarte eta sakanetan. Landaretza artean ezkutatutik eta, oro har, harkaitz-horma hurbilgaitzetako haitzulo basatietan kokaturik duen gordeleku, ehizan aritzea, uzten duenean, hegaketa gutxi batzuek baino ez ditu egiten, eta badoa plano-hegadan bere ehiza-lurralde zabalerantz. Ehiza-lurralde horiek 15 eta 25 kilometro karratuko azalera izan dezake, baina bere jarduerarik handiena gordelekuaren inguruetan burutzen du, hiru kilometro karratu hartzen dituen eragin-ralde batean. Ehiza-esparruaren azalera aldakorra izaten da beti, lurraldean harrapakinak zein ugari diren.



## HONTZA ERTAINA

Asio Otus

**NOLA EZAGUTU?** Udaberriaren hasieran, gautu baino lehentxeago entzun daitezke, Euskal Herriko ongi iraundako azken basoen erditik, hontza bertainek jaikitzen dituzten soinu arraro eta kezagarriak. Maltasunaren dela, 'u' ahul errepikarior hori da, uda-berrian, hegazi partzialki migratzaile hauen presentzia adierazten duen bakarra; urtearen gainerakoan izugarri zuhurrak dira eta nekez ikus daitezke, bai beren kamuflaia bikainagatik, bai beren gordelekuak gauean soilik uzten dituztelako.

Hontza handia beren ahale nagusiaren miniaturazko kopia delarik, hontza ertaina (Asio otus), 200-380 gramorekin, pisu hamar bidez bikoitza da, eta hark bezala, luma je kriptikozko hominuko dago, eta bi aurre-pegimotots ditu, bere silueta urratu eta egunez ohar-kabe gertatzeko balagarriak. Begi bistan, gainerako baino gohegiak baino zailago eta lirainago dela dirudi.

**BIOLOGIA:** udaberriaren hasieran den ugalketa-garaian, gautu baino lehentxeago entzun daitezke basoaren erdian, bikote-kide bala duen araldiko arek jaikitzen dituzten soinu arraro eta kezagarriak.

Erme bat hurbil egonez gero, erantzun egingo du seguraski, eta orduan deial ugari entzen dira, bikotearen lokarriak estutzen direla. Ara, ekimena hartuta, bere kidearekin elkartzera hegan abiatu ondoren, batak eta besteak ekiten diote umatze-lurraldea zehatz-mehatz arakatzen. Lurralde hori oso aldakorra da, 15 eta 70 hektarea bitartean egon daitezke. Lurraldea mugatuta, bikotea sakonean ezagutzeko arazirik diru buru-belaia, eta bertan beheara utzitako mika edo beleanen habiaren dat aukeratzeko dute habia egiteko, bereziki gogokoak balizakie, edo zuhaitz-entz baten kofagunea.

Lekurik egokiena aukeratu ondoren, ez dira egitura konpikatuak egiteaz arduratzen, eta beren luma; eta, batzuetan, hostoaz ere estaltzen mugaizten dira. Emunaldiko arrautza kopurua aldakorra da elkagaiak zen ugari diren, baina batez beste 3 eta 5 bitartean egon ohi dira, batzuetan 10-tarik ere iritsi daitezkeela, zuria, ia biribilak eta batez beste 41 x 33 milimetrotako tamaina dute.

Lehen arrautza erutean hasten da inkubazioaldia, 26 eta 28 egun bitartean dira. Arrautzak batetik bestera ia bi eguneko tartea dagoela eruten dira, eta, beraz, lehen bitoaren tamaina azkenaren bi halako izan ohi da, bitoan tamaina-mailaketa ikusgarria gertatzen dela. Egoera hori ezin asmaltuzkoa izango litzateke bete espezie batzuetan, biko bikiek azkenaren hiko baliabeteke, baina, kasu honetan, sendetsun ereduagiaz eramanen da bitatik bitoan artean, nagusiek ez baituzte bikak behin ere gogaitzen edo kanporatzen saiatzen. Bakarrak janaria urria denean hil ohi da gazte eta bokieta, ez baitu kide handiekin lehiatzeko, eta horiek azkarrago hartzten dute gurasoek eramanaditako janaria.

Jaioterakoan begiak ixita eta gorputza lumabata fin zuriz estala agertzen dituzte. Sudurluze bat



hurreratzen bada habiara, defentsako sistema berezi bat hartzen dute guztiek batera, hau da, harrotu egiten dute lumajea askoz ere handiagoa direla emateko, eta kristin-itsa egiten dute mokoaz, sudurluzea tunditu eta belduritzeko.

Gurasoek, habiaren defentsaz arduratzeaz gainera, janari bilakelan aritzen dira. Ezustean harpapatzen dituzte mota guzietako karraskariak, lursaguak eta saltisuak, beren elikaduraren %90 osatzen dutenak. Horretarako ikusmena edo soilik entzumena erabiltzen dute, gai baltira, izan ere, belar geruza marul baten azpian ezkutu eta ibilge karkasa dagoen sagu bat harpapatzeko, saguak jaikitzen duen hots hutsagatik. Harpatsu bezain laster, hil egiten du ziza-par zorroztak sasitzen ditzakola.

Hurtuko harpakinak habiara eramane ondoren, zati-zati egiten dira 10 bit-egun baino gutxiagoko bitoiu jaten emateko badira. Gerago, bitoek gorputza bigarren lumabata grisaz estali eta gero, gaiza dira oso-osorik irinesteko, eta halakoa da beren jaletasuna, habia utzi ere egiten dutela gurasoei harpakinak kentzeko.

Txioek 25 egun dituztela uzten dute habia, eta oraindik hegan egiteko gaiza ez diren arren, habia inguruko adar artean ibiltzaten dira, beren atzaparez eta moko indartsuz balaituta.

Lumajea orduan gurasoenaren oso antzerkioa da, nekez bereizten direla batzuk besteengandik. Sarritan ibilaldiak egiten dituzte taldean, eta gazteek nagusien urratsi jarraitzen diete. Batzuetan, ikusnahiaz, lurretik ere ibiltzen dira, ereskadan ibiltzen direla enboren inguruan, beti ere marba-hurrenkera gordez. Garai honetan sarri ikusi ohi da irudi samur bat: hontza ertainean bitalki bat, hitzez hitz bata bestearen baluta, handienetik bikienara, adar batean. Denbora honetan guztian, amak, arriaren laguntzaz, ematen dien elkagaien beharrenez dira; eta, apurka-apurka, hontza gazte eta trebatu gauek ehizan egiten kasleari ekiten diote, karraskari berrien kumaldi halaber dorpe eta trebatu gauek egoteagatik lagunduta.

Hartigarriro, familiaren lokarriak ez dira hausten gazteek hegan egiteko gaiza direnean. Uste denez, hazkuntza bitartean sendotzen diren lotura handiegia eta karraskari banaketa irregularrangatik, hontza ertainek jokoera-ezaugarri eskusibo bat agertzen dute: beren neguko taldekoitasuna. Urtaro bar horretan, ugari diren aldeetan, harpari hauen hainbat hamarreko bilzen dira zuhaitz gubi batzuetan, edo bakar batean, eta bertan ematen dute elkarrekin eguneko atsedenaldia. Garai honetan, Europako iparraldeko populazioek mediterraniar aldeetara migratzen dute, baina gure basoetan bizi direnak, gehienara, goi-altudeko lekueetatik jaisten dira temperatura epelagoen bila. Karraskariak urri diren urtaro honetan, zabalzten dute beren dieta eta hegazi bikiek ere jaten dituzte.

**ELIKADURA:** saguak, lursaguak eta saltisuak.



**NOLA EZAGUTU?** espezie honek badiu zehetasun bibi bat: luma bakoitzaren oinaren dauden muskuluek bide ematen diote aupegiara sari aldatzeko, eta ezagunak bereziki hartzen dituen aupegiaren araldian batez ere, garaik horrelan hartzen aupegiarak oso atseginak direla gizakiaren begietara. Haserretua edo zapuztak hartua egonez gero, aupegi golumak albatzen ditu eta behokoak jaisten ditu begiak estaltzeara, hasere-aurpegiaren benetan barregaria hartzen duela. Alderantziz, gogobetirik egonez gero, norabide bereziaz ematen die aupegi-alboko lumen, aupegiara sartuzten duela. Bikoteko kideek garondo eta belarri-aldea leundu eta harraskatzen diote, askotan, bata bestearen.

**BIOLOGIA:** ilunbarru baso gainera etori eta azken egun-argiek ilargiaren argi zurilari lekua uzten ditenean, ekiten dio urubak bere ehiza-jarduerari, zerupean, ikusezin bihurtuta. Espezie gubi fidatzen dira beren kamuflaiaz urubia bezala, ez baitu gauari ibaroren behar ohar-kabe gertatzeko. Egunean, bizi den zuhaitzen enborei ibilge abokita jarraitzen, izugarri zaila da hautematea. Ez da, beraz, harrizko gaue basoetan gabuen ikarariz den hegaztiakoa bada eta behazaleei distantzia lumenetara hurbiltzen uzten badie, batzuetan bi metrora, hegan abiatu gabe. Baina portaera ustetsu hori fidagaitz eta erasokor bihurtzen da habigintzako garaian, eta orduan ez du habiara ezertoxe ere sudurluzerik hurreratzen uzten.

Oso izaera lurraldearra duela, urte osoan entzun daiteke bere ulu zorroztu. Ber kantus setatsuz lurraldearen mugak markatu nahi ditu, generokideenetik bereizteko. Kantu hori nabarmenki areagotzen da eztei-garaia iristen.

Gauko harpari hau, neguko egun hoztu baina argitsuarean, mozolota bezala, bere gordelekuearen sarreran egokituta jantzi ohi dena, sendo eta indartsuagoa da hontzak bere senideek baino; halaber, begi beltzak ditu laranjak barik, eta ez du buru gainean motots handirik. Horregatik, aupegi biribilduagoa agertzen du. Gorputza estaltzen dion lumajea are zehin grisaz izan daiteke, azkeneko hori arrosoaga delarik. Argirik ihes egiten badu ere, egun ilun lainotsuetan ekinor ager daiteke arratsaldeko azken orduetan. Mugimendu geldo eta astunak izaten ditu beti, baina bere hegada arina da, nolabait, hego-ei indarrez eragiten baitie. Hala ere, modu kulunkarian eta geldotasunaz lekualdatzen da. Bere ahotsa, bame isekariaren antza duena, garrasitsua, ez da gizakiaren beldurrerako atsegina.

Basko zuhaitzak, gorrdioz estalik, azala erdi usteluturik eta zuloz beltarik daudenak dira bikotea egin nahi duten urubietzat gogokienak. Otsalaren gau hoztatan gertatzen da hegazi hauen araldia, eta gaueko isila urratzen dute beren barre-algara baldresekin. Otsaturik daude barre-algara honetako bistukerari eta oihu ertats bandakutez, eta auria edo halatza dagoenearan soilik silizten dira, sekulan ere ez, ordea, hoztaren argitik, temperatura guztiz baxua izanda ere. Kantu ahaltsuak, hainbat kilometrotara entzun daitezkeenak, urriaren jabetza iragarritzen die etsaiei eta



## URUBIA

Strix aluco

haien presentzia jakinarazten dio emeari. Erakargarri horiek asaldatu egiten dituen arrak eta emeak, eta zuhaitz hutsik aurkitzen ez dutenak abiatu egiten dira binihihielatan, elizelako dorretetan, basoan bakanadutako herri bixtelako talaituetako haba artean edo belean habietan habia egitera. Dena da balagarri urubiarren bakartasuna hauekote, bere ezteie ekiteko.

Eztei-jarduketara guztiz da sinplea: ama mugatu egiten da bere kideari opari bikiak eramatera, eta gero lumajea leuntzen diote elkarri. Azkenik, ar arduratzen da bikoteko okupatuko duen lurraldea mugatzeaz, aurka egiten diote edozein sudurluzerari, eta, bitartean, emeak emunaldi egiteko lekua aukeratzeko du. Hegazi hauek habia egokia aurkitzen badute etseien diote hainbat urletan, eta bertara jotzen dira udaberri bakoitzean. Emaldutakoan, emeak arrakarek entzen ditu, bat edo bi

egunetz behin, eta jarraian berak bakarrik inkubatzen ekiten ditu. Arrautzen kopurua harpakinaren ugartasun edo urtasunaren araberakoa da; horrela, habia inguruetan karraskari ugari egonez gero, bitatik bitatik zortzi harpari berrin sortu ohi dira, eta emeak berak bakan bakan bitatik bitatik dituzten diru hilabetez. Alaitasuna, hiru eta bost arrautza inguru izaten da ohikoa. Arrautzek 47 milimetro inguruko diametroa izaten dute, eta bertatik jaiotzen dira bitokak, lumaba zuri batez estalik, haien hotza kentzeko balio ez duen arren. Emea haien ondoan gertatzen da bi astean, beroa ematen diela, hark eta temperatura hotzetatik, kokonkatirik egonez gero, babestuko dituen gazte-lumajea garatzen dutenera arte.

Une horrez geroztik, emeak lagun egiten dio bere kideari, gauean, bito oihuarie jaten emateko harpakinak ehizatzen, hauek beren urdaiak hutsik daudela adierazten balitue oihu gogor amenkariek. Egunean, bertiz, zainzaila gertatzen da habiaren sarreran. Lortutako harpakinak aski ez badira haiek asetzeko, emeak jana kentzen die bito berankorenei eta indartzen du aurren jaino ziren elkarua. Hala, jaiotako guztiak berak bakarrik iritsi ohi da heklutasunerara. Espezie oso ugalkorra ez izan arren, gainera urtean emunaldi bakarra ligitzen da, populazioak kota egonkorretan edo dirau bere bizitza luzeari esker.

Jaiotzean, emeak lau aste igarota, bitoek, oraindik hegan egiten ez dakitela, habiatik kanpora irten hasten dira, habia beretako zabortegi bilakaturik dagoela. Bere atzapar ahaltsu eta moko indartsu esker, zuhaitzaren bame hutsunetik gora igitzen ausartzen dira, metro askotako altuera bateraino. Beren pisuko beste edozein hegazi baino bi hilabete gehiago arabilko dute hegan egiten ikastea, eta bitartean gurasoek araldian baino are erasokorrago bihurtzen dira, eta habiara hurreratzen den edozein sudurluzerari erasotzen diote, baita gizakiari ere, ileak eta begiak bitartzen dizkiotela suminduz mokotzeko. Hori dela eta, ibi egiti ohi dira haien habia-lekueetatik igarotzen diren parke naturaleko zidorrak, jendea ibil ez dadin. Uda datorreneko, bitoek ba dituzte bi hilabete, eta hegan egiteko gai dira; orduan, heiduek lehen gauko ehiza-kasketatik ematen ekiten diote, beste hiru hilabeteetan hobetuko direnak. Janaria beren kabuz bilatzeko gaiza direnean, zabaldu egiten dira basoan lurralde propioa bilatzeko; besteala, gurasoek eurak izango dira beren fedotik kanporatzen dituztenak. Hazkuntza amaituta, bikoteko kideek beren izaera lagunokora berreskuratzeko dute eta bizimodu bakarria izutzen dira.





**HONTZA ZURIA**  
Tyto alba

**NOLA EZAGUTU?** Legenda entzungarrien protagonista, lamia eta sorginen lagun separaezina, eta sineskeria ezagun kontaezinen objektua, sarri askotan izaki ilun eta madarikatu irizti zailo, heriotza heriotza lotua. Hegazti gutxi daude hontzaren laino misteriozuz inguratuta. Gaueko hegaldak leun eta isila, hosto baten eroria bezalakoa; bere ulu nahastezina, gaueko mundu beldurgarriarekin erlazionaturko konnotazio ilunetz bete; bere aurpegi zurbil bihotz-antzekoa, ilargiaren islapen magikoaren pean zilar-distirez estaltzen dena, eta ganbaretan eta baselizetako kanpandorretan egokituta biltzeko duen joera, lagungarri izan dira gizakiak bere beldurraren objektu ilunarekiko gaitziritza areagotzen.

Baina egun-argian ezustean harrapatuta, hegazti izugarri eder bat ikus daiteke, beldurrezko iluntasunari lotuegi dagoen sineskeriazko ikara sortzen duen lumadun animalia ilumbetsuarekin balere antz ez duena. Hegazti honen lumaje dotore eta delikatu kolore zuri edo krema orbaingabe zoragarria du, eurrez pikardatua sabel eta papar aldean. Hegoak eta bizkarraleda urregorritzak dira, grisa ere badutela, gubi asko, tonu gris edo gorritzko izpizle bete.

Gauaren lagun min eta iluntasunaren iragarfeel ezitako lanparetako oloa edatea edo kodaina-anderearen berrarajipena izateko egotzi zailo, baina, egia esan, karraskarien ehitziari bikainak dira, eta gizakia gordetzen dute nahigabeko baina betiko lagun horietatik.

**BIOLOGIA:** bost kontinenteetan bizi den animalia kosmopolita hau ez da ageri, bakar-bakarrik, Europako eta Iparramerikako lurralde hotzetan, Zeelanda Berrian eta Asiako ekialdean, espezie hau klima epeletan sortu zelako, nonbait. Horrela, bere eboluzioaren historian zehar latitude

hotzagoak kolonizatu baditu ere, ez du temperatura baxuetara ohitzarik izan. Europako erdialdeko leku hotzetan bizi diren hontza zuriek hilkortasun handia jasaten dute neguak bereziki zakarrak izan eta elurrak zorua estaltzen duenean, ez baitute janaria biltzerik. Egoera horren kontrako babesik garatu ez dutenez gero, beren organismoa ez da gantzzeiko elikagai-erreserbak metatzeko gauza janari ugaria dagoen garailetan. Gainera, hontza zuri gehienek ez ohi dute migratorik eta urrenako desplazamendurik egin, eta, beraz, ez dute klima epelegoko lurraldeetan iristerik. Hori horrela, eta, bizitzeko, gainerako gaueko harrapari



europarrek baino askoz ere gehiago jan beharra duela, hontza zuria zarril hiltzen da goseak jota.

Hegazti hauen izaera geldikorra dela eta, eskualde-aldaketak baino ez dituzte egiten. Dena dela, hegazti helduak dira geldikorrenak, gazteek bizileku eta lurraldea biltatu beharra baitute.

Eguna emateko gordeleku batean ezartzerako orduan, hontza zuria leku lasai, isil eta iluna biltzen du. Gehienera, argi-itzal txiki bat onartzen du, bere atsederatzena gogaikarria ez dena, ez baitu argia jasaterik. Behin bere bizilekua aukeratu ondoren, hainbat urtetan bizi daiteke bertan.

Egunez, pausatutik dagoen bitartean, gorputzari tente eusten dio, lumajea hari ondo batuta, begiak erdi itxita eta aurpegioko lumak luzatuta dituela, aurpegiak bihotz-forma hartzen duela. Gorputzaren kulunkada txiki eta ia oharitezinek, erritmiko eta konpasatuek, erakusten dituzte haren amasketak mugimenduen. Ilunabarrean, bat-batean aldatzen zaizkio jarrera eta itxura. EHzarako ordua da. Fantasma zuri baten antzean, isil osoan uzten du bere atsederatzena eta abiatzen da hegan zelaietara. Sarritan, eraka egon ohi da lurretik altuera txikian, hegoak astinduta, aldea arakatu eta harrapakinen baten edozein mugimenduz ohartzeko.

Gaueko gainerako harrapariak bezala, gauza da bere biltzeko iluntasun osoarekin aurkitu eta atzemateko, haiek jaulkitzen duten hotsaz gidatuta. Esperimenduak egin dira hegazti hauen argi-izpi txikien ere gabeko gelaetan; eta horien bitartez, hostoz beteriko zolan sagu bat jareginda, harien eHzarako gaitasun harrigarria erakutsi zen.

Harrapari honek soinu antiz jaulkitzen ditu, hala nola, garrasiak, bistadak, korronkak eta urrumak. Ezagunen eta ohikoenak dira zenbait segundotan jaulkitzen dituen "sstxtxt" bistadak edo ardiaren bereizgarri zaizkion korronkak.

**Ugalketa**

Martxoaren hasieran sartzen dira hontza zuria araldian, eta arrek korronkak gogorarazten dizkiguten hots etengabeak jaulkitzen dituzte, eta, aldi berean, emeak ilimurtzen dituzte

harrapakin ugari eramaten dizkietela, askotan, gehiegi direlako, metatu egiten direnak. Hegazti hauek ez dute habiarik egiten. Garbata batean edo zuhaitz baten kofagunean egagropilo multzo baten gainean erruten dituzte arrautzak, besterik gabe. Arrautza kopurua 4 eta 8 bitartean egon ohi da, baina 11raio irits daitezke, janari ugariako egoeretan. Emeak hartzen du inkubazio prozesu osoa egitearen ardura, 30 eta 40 egun bitartean irauten duena, arrak elikatzen duela bitartean. Inoiz gutxitan uzten du habia. Arrautzen eklosioa gertatzen denean ageri dira hontza zuri gazteak, lumatxa zuri eta urri batez estaliak. Lumatxa hori bi asteren buruan ordezkatzen dute beste lumatxa usua, luzeago eta lurkara batez. Lumaje hori eusten diote bitoek 40 egun eduki arte; orduan, helduen berezko eta betiko lumajeaz ordezkatzen dute. Hontza zuria ditugu egundoko gurasoak, kumeak elikagai ugari ematen dietenak. Sarritan, harrapakinak metatu egiten dira etzalekuan, usteltzeraino iristen direla; etzalekuak, beraz, kiratsa bota ohi du, oro har. Urte urrietan, txito ahulenak hiltzen direnean, gurasoek zati-zati egiten dituzte eta gainerako ondorengoei ematen dizkiete jateko.


Gaueko hegazti harrapari guztiak bezala, hazkuntza geldokak diren arren, hegan egiteko gauza dira bitoak 70 edo 80 egunetan, ondo elikatuta egonez gero; baina etxe inguruetan gertatzen dira beste aslebetek edo bitan. Gero, independentziatu egiten dira eta hedapen erratu samar bati ekiten diote, ezarri ahal izateko adina elikagai duen leku baten bila.

**Berezko heriotza-tasa altua**

Egiazlatu denez, altua da hontza zurien berezko heriotza-tasa, eta beren batez besteko bizialdia gainerako gaueko harrapariena baino bikiagoa da (zer hori modu nabarmenagoan egiazlatu da Europako erdialde eta iparraldean, mediterranean aldetean baino). Hilkortasun altu hori konpensatzen du espezieak ugalketa-tasa handi batez, askoz ere gehiago direla emeak egiten dituen erretsek nahiz bizirik dirauten bitoen kopurua, antzeko espezieenak baino. Horrela, urte faboragarrietan, bi txitaldi egiten dituzte. Bigarrena ekanetik abuztura bitartean gertatzen da, eta txitoko azaro aldera independentziatu dira. Beraz, bederatzitaraino iristen dira bikote batek aurrera ateratu ditzakeen txitoko, hurrengo udaberriaren ugaltzeko gauza izango direnak.

**ELIKADURA:** elikadura aldarra erabara eta leku batzuetatik bestetara, baina, oro har, gizakiaren betiko laguna dituen oinarri %70eraino-, hots, karraskariak, arratoiak, saguak, lursuzkoak eta satiusuak. Hauxe dugu hontza zuria gurekin bizitzera moldatu izanaren arrazoielako bat. Bere dieta osatzen du sugandila, urlehortar eta hegazti txikiak. Batzuetan, saguzarrak ere harrapatzen ditu, elikadura urri denean, eta ere erbindeak ere. Bere harrapakinak zatikatu eta jateko, hontza zurik

**GAUEKO HARRPARIAK**




atzerantz eramaten ditu aurpegioko lumak, bere aurpegi-diskoak beti garbi egoteko moduan; orduan ikus daiteke bere moko sendoa. Hegazti honen ezaguerari behinenetakoa dugu bere digestio-ahalmen harrigarria. Pare bat ordu baino gehiezoan animalia. Horrek aukera ematen du harrapakin ugari jan ahal izateko, bere metabolismo altu eta ondoriozko energia-galtzearekin erlazionaturik dagoena.

Gainerako gaueko harrapariak bezala, digestioaren hondakinak -harrus, hezurak, lumak, intsektuen oskol kilintsuak, etab.- iraitzen ditu pilota obalatu eta gris ilun baten eran. Pilota hori, egagropilo izenekoa, substantzia ligrindutsu batez estaltuta dago, eta lehortzerakoan itxura distiratu eta satinatua hartzen du, oso berezita eta gainerako gaueko harraparienez bestelakoa.

Egagropilo ugari estaltzen dute izaki hauen bizilekuetako lurra. Eta horiei esker, hegazti hauen elikadurari buruzko azterlan baliotsuak egin daitezke. Bere gaueko gordelekuak utzi eta harrapakinen bat ehizatu bezain laster, hontza zuria gordelekura itzultzen da digestioa egitera. Minutu batzuk geroago hondakin-bola bat goltzitzen du eta berriro ere ekiten dio ehizari, harrapari ugari atzemateko, hauek izango baitira hurrengo egun osoan, eguzkia sartu arte, elikatuta eutsiko dietenak.

**HABITATA:** animalia hau, jatorriz, gehienbat haietzakoa zen, eta harkaitzegi, labar eta kobazulo bikietan bizi zen; gaur egun, ordea, gizakiaren bizigoak kolonizatu ditu, oro har. Izatez, gure Lurraldean, hegazti eder hauetarik gehienek herrietako gizakiaren erakuntzetan egiten du habia, eraikuntza horiek direla biltzeko, bertan behera utzitako etxe zaharrek, hilerriak edo baselizetako kanpandorrek, eta bizikide dituela batzuetan saguzarrak. Alabaina, ez da arrarora harkaitzietan eta harrobitan bizi diren hegaztiak aurkitzea.





**APO HONTZA**  
Otus scops

**NOLA EZAGUTU?** apo-hontza dugu kamufaiaren benetako maisua, bere lumaje arre-grisak edo marmolkarak maisutuan paregabeaz imitatzen baitu bizi deneko zuhaitzen enbor eta azalen itxura, gutzitx oharikabe gertatzen delarik. Udaberriko gauetan, arraren kantu etengabe eta konpasatua soilik ematen du haren presentziaren berri.

Kantuarien nota batetik bestera 2 eta 4 segundo bitarteko pausaldia egiten du. Buruaren albo bietan bi luma-moto luze gailentzen zaizkio, hontza handiari bezala, eta zata arruntan edo lepizularen kolore antzekoa du.

Ornitologoek iritziz, antz hori gertatzen da eboluzio konbergentea izeneko gertakari arraro bategatik. Horrela, genetik aldetik elkarrengandik oso urrunak diren animaliek, beren eboluzioan zehar, kanpo-eguzgarri berdintsuak hartzen dituzte, beren biziraupena beharizan eta giro-faktore berberengatik baldintzatuztik baitago, esaterako, harrapariengandik ihes egin beharra, etab.

**BIOLOGIA:** gainerako gaueko harrapariak bezala, pertsekuziora moldaturiko anatomia du, eta harrapakinak atzetan ditu iluntasunean, bai bere hegada isil eta oharikabea esker, bai bere pertzepzio organoen ezagugarri esker. Entzumen zoi-zoi du, izugarri garatia, eta bere begi handizarrak ikusgaitasun bikaina eskaintze diote, betzuloetan sartu-sarturik dauden arrak. Begien ibilgaitasun horren ondorioz, ikusmen-eremu meharra du, ez baita 180 gradutara iristen, gaueko harrapariena baino txikiagoa dela. Hori horrela ere, hegazti hauen anatomia bereziak gainezka emendatzen du ikusmen akats hori, 270 gradutaraino biratu baltezake burua, mugimendu horretan gorputzak parterik izan gabe.

Apo-hontza asko bikotean bizi izaten dira bizitza osoan, eta gozatu egiten dute elkarrekin pausatutik eta batak besteari lumajea mokokatzen diola, bistu ahulak jaulkitzen dituzten bitartean, gozamenekoak agian. Jarduera horrek, harrapakin ehizatu berrien eskaintzarekin edo erakarpen-dei indartsuekin, sendotu egiten du bikotearen lotura.

Udaberriaren hasiera aldera, itzultzen da apo-hontza bere neguko afrikar aldeetatik, Ekuatorearen iparraldetik, alegia, gure basoetan bikotea egiteko prest. Oraindik alegia ez duten arrek kantu ausartekin erakartzen dituzte eme bakartiak, inguruetatik lehizatzaileak uxatzen dituztela, aldi berean. Emeek ere ekiten diote kantuari beren generoerikoen antzean, baina haren intentsitatea errotik aldatzen da bikotea egiten duten unean.

Bikotea eraluta, apo-hontza txikiak hutsune batzuk erakusten dituzko bere kideari, habia egiteko egokiak, hark bat aukera dezan, hasieran egunean atse-



den-leku gisa erabiliko duena. Oro har, emeek zuhaitzelako hutsuneak nahigo dituzte, bereziki hontza dutenak, baina batzuetan beste hegazti batzuen habia hutsak edo murru zaharretako hutsuneak ere aukeratu dituzte. Bikotearen lotura sendotu egiten da umaldiak dirauen bitartean, erakarpen-deiak eta lumajea elkarri konpontzea direla bide, bikote gutzitx aritzen direla jarduera horretan.

Harrapari hauek bigamoak izan ez ohi diren arrak, arren batzuek, inoizka egiazatu denez, bi emerekin parekatzen dira eta bi txitaldirik eusten diele aldi berean. Baina, normalean, bikote bakoitza emundial balez arduratzen da, gure basoetan apirilaren amaieratik egiten

dufena. Emeak, orduan, hiru eta sei arrautza bitartean erruten ditu, batetik bestera bi eguneko tartea dagoela, baina normalean lau erruten ditu, aldi-hurrenkeran eklosionatzen direnak. Txitaldiak dirauen 25 egunetan, geroko ama arrautza txiki ondoan egoten da. Bitartean, arrak habiatik uxatzen ditu harrapariak, hala nola, muxarrak, erbinudeak, urxintzak edo lephahoriak, eta janaria eramaten du eme eta txitoentzat, hauek bi aste eta erdi eduku arte. Normalean, nahikoa du gaeuen hiru edo lau sagu harrapaztea, familia txikiari jaten emateko.

Emeak amaren eredu bilakatzen da hazkuntza aldiak, txitok zaintzeaz eta, arra ez dagoenean, defendatzeaz soilik arduratzen dena. Jaio berriak hirugarren egunean soilik irkitzen dituzte begiak; erabiltzen dituzte, ordea, entzumena eta usaimena, azkenean hau harrigarri garaturik dagoela hasiera-hasieratik. Lehenengo 18 bizi-egunetan amak

bakarrak elikatzen ditu. Kumeak, jaiotzerakoan, lumatxa zurri leun eta zetatsua batez estaltza daude; lumatxa hori beste gaueko harrapari batzuenaren antzerakoa da, eta gurasoenaren antzerako jantzi bilakutako da habia utzi baino lehenago. Lumajearen tonuera, hasieran, gris zilarkara bada ere, animalia hazten den neurrian arre bilakatu da, eta hilabete eta erdi duela helduaren jantzia agertzen du. Gazteen jokaera ehiztaria erakusten



**GAUEKO HARRPARIAK**



da 50 egunen buruan. Normalean, alde arakaten dute harrapakin bila talala garai batetik, gero haiengana oldartzeko atzaparrak aurrerantz irekita daramatzatela. Harrapakinak atzetan ondoren, pausalekura itzultzen dira eta irensteari ekiten diote.

Udazkena hasita, hazkuntza amaitu eta bitxoak independizatu, gure apo-hontzek -Espainiako hegoaldeko, Balear uharterako eta Mediterraneoko beste uharte batzuetako (Kreta, Grezia edo Malta) hegazti geldikorre ez bezala- migrazioari ekiten diote eta ez dira gure basoetara itzultzen hurrengo urteko martxo edo apirilera arte, berriro ere habia prestatu eta bitxoak aurrera ateratzeko. Hegaztiaren heldutasun sexuala zortzi hilabete dituela iristen da.

**ELIKADURA:** eguzkiaren argia gogaikarri ez bazaiola ere, nekez iristen da egunean ehizan. Insektuak ditu bere elikaduraren %90en osagai, hala nola, gaueko tximelak, matxinsaltoa, erlastarrak, kakalardoak edo ipurtsardeak. Inoizka, txoritxoak, sugandilak edo sagutxoak ere jaten ditu. Harrapakinak jandakoan, egagropilo tipikoak goitikatzen ditu, bi zentimetro luze eta bat zabaleko bolen eran, digeritu ez dituen oskol kitinatsuen hondakinak, hezurtxoak edo lumak bil-



hontza arraza edo subspezie bakoitza gehiago sailkatu izan dituzte, izan ez ezik, lumajearen koloreaz eta



geldikortasun graduaz bereizten direnak. Alabaina, zoologoak ez dira irizpide bakarrekoko sailkapen horiei buruz; horrela, ornitologo batzuen ustez, gure basoetan eta Iberiar penintsula osoan -mediterraniar alde- bizi den harraparia Europako gainerakoan bizi denaz beste-lakoa den bitartean, beste batzuen ustez, animalia horiek ez dute bien arteko diferentzia nabarmenik agertzen, ez, behintzat, subspezie ezberdintzat jotzeko adinak.

Hiru Lurralde Historikoetan ageri bada, Araban da ugarien, zehazki, Ebroko arantetik Conchas de Harora doan aldean; baina nahiko arrunta da, berebat, Donostia eta Hondarribia bitarteko kostaldeko baso eta landazabaletan. Ez da eza-gutzen Euskadin duen populazioa.







### ARRANO BELTZA *Aquila chrysaetos*

**NOLA EZAGUTU?** gaitz da arrano beltza gainerako arrano espeziearen batekin nahastean, zeren oso handia izateaz gainera (emeak arrak baino handiagoak) gorputzeko lumak hain dira ezberdinak heldu eta gazteen artean ezen behinola bi espezie ezberdin zirela pentsatu baitzen.

Helduen lumajea eraberekoa da, marroi argia, zenbait zuriunerekin hegalean azpian, arraun-lumen oinarrian zehazki. Garondoa eta hegalean aurrealdeko ertza urre kolorekoak dira, eta horregatik herrialde batzuetan urre-arranoa esaten diote. Mokoak beltza da eta atzapar zorrotzak sei zentimetro luze izan daitezke. Tartsoak, gorrakak, lumaz guztiz jantzia ageri dira atzetaraino. Inbididuo gazteak, aldiz, ilunagoak dira, zuriune handiak dituzte hegalean eta isatsa zuria da, muturrean zerranda beltz zabaldua duela.

Hegan egiten hasi berri diren arrano beltzen lumen kolorea aldatzen-aldatzen egoten da urteko musan zehar; apiriletik azarora bitartean, alegia. Bizitzako bigarren urtean gazteen lumak argitu egiten dira tartsoetan eta isatsko zerranda beltza ez da izaten heldutan edukiko dutena bezain zabala. Hurrengo urtean, hegalean aurrealdeko ertzak eta garondoa urre koloreko jartzen hasten dira eta isatsko zurian zerranda urdinak gehitzen zaizkio. Laugarren urterako ia-ia helduak bezalakoak dira, oraindik ere hegaleko lumak zerbait zuriagoak badira ere. Azkenik, bosgarren urterako helduen lumaje bera izaten dute.

**BIOLOGIA:** arrano beltza sedentarioa eta monogamia da; ez du inoluztzen ez bere lurralde ez bere laguna, bikoteak bizi osorako eratzen dira eta osoan zehar ehitzen du. Bikote-laguna hiltzen zaioenez soilik parekatzen da berri, eta orduan ere lehenengo fidelitasunarekin eusten dio loturari.

Arrano beltzen zeloa neguan hasten da. Urtaril bukaerarako bikoteak eztei-hegalidietan izaten dira jada, airean planeatzen eta habia-eremuan berriz baretzeko prestatzen diren bitartean, emeak arrautzak zein habiatan emungo dituen erabakitzen.

Izan ere, bikotea eratzen den urtean bi edo hiru habia egiten dituzte -batzuetan baita gehiago ere-, eta harrezkero urtean batean ezartzen dira, bitoen hazkuntzak uzten dituen hondakin ugariak ezaba daitezten. Behin habia hautatu gero, otsail inguruan, gaitu eta alondu egiten dute zenbait astetan, eta martxo hasieran kopulatzen hasten dira. Aldiz aurretik, arrak erakutsia dio emeari bere ahalia amiltze-hegalidirik arisutsu, zigizaga ikusgarri eta noranahiko jautzen bitartez.

Emeak bi arrautza eliptiko erruldu ditu marbo amaiera eta apiril hasiera bitartean -batzuetan are hiru ere-, kolore zuri-kremakoak, marroi irregularki pikartatuak, 77 x 59 mm ingurukoak; arrautza bategi bestera lauzpabost



egun igarotzen dira. Hala ere, gurasoek biak bilatzen dituzte emun eta berehala. Umekidiak kale egiten bada, bikoteak habia uzten du eta urte horretan ez dio beriz ere ugalketari ekiten.

Bi gurasoek bandaka bilatzen dituzte arrautzak 43 edo 44 egunez, baina emeak igarotzen du denborarik gehiena zeregin horretan. Hala, bata arrautzak berotzen ari den bitartean bestea janaritan aritzen da, zeren, gainerako eguneko harrapariak ez bezala, arrak ez baito jaten ematen emeari habian arrautzak bilatzen dagoenean.

Lehenengo bitoak arrautzaren eskola hausten duenean, ezar baino lehen janari eske hasten da, alhoia ahalik gehiena zabal-tzen duela. Bigarren bitoa lauzpabost egun gero jaitzen da, eta ordurako zaharrena nahikoa zailduki, sendotuki eta gose egoten da jada senide gaztea habiatik botatzeko edo mokokadaka hiltzeko, edo behintzat ezer jaten ez uzteko. Bigarren bitoen herak baizik ez du gainditzen jalo berriko zorigaitzoko etapa.

Normalean kume bakarrak irauten du bitzirik, eta gurasoek arreta handiarekin zaintzen eta elikatzen dute; harrapakin bat ekartzen ditenean, haragi zati txiki-txikiak erauzi eta moko burrun sartzen dizkie-

te emetasunarekin. Hazi ahal, bitoa harrapakinak bere kabuz xahetzeko gauza egiten da, eta ondorioz gurasoen jai-erortsiak geroago eta bakanagoak dira. Orduan bitoak denbora gehiago izaten du beste gauza batzuetan aritzeko, batez ere hegatzeko entseguak egiten eta gorputza hegaz egiteko gogortzen eta trebatzen, hegalei eraginez eta jauzi handiak emanez, ordurako igarotzen hasita egoten baita gurasoen habiatik bitziza alai eta goztoa amaitu hurren dagoela.


Batzuetan, jauzi eta jauzi bitartean kementsuegi aritzen da eta habiaz kanpo amaitzen du; lehenengo hegaldia ustekabeen hasteko modua



izaten da. Bestela, aipatua bezalako ezustetik gertatu ezean, kumeak 80 egun dituela egiten gu lehenbiziko hegan. Dena den, hegaldiaren abiatzea ez da inoluztzen borondatezkoa izaten; aitzitik, arrano gazteak ez du izaten beste aukerarik, gurasoek ez baitoie jaten ematen, berak etsipen-garriak behin eta beriz egiten arren.

Lehenengo hegaldian gurasoak lagun izaten ditu kumeak. Hasek habiaren lurraldea erakusten diote eta ehizari buruzko lehenengo irakaspenak ematen dizkio. Hegaldi horren ondoren, arrano-kumeak ezin egon izaten du luzaroin habian bitzitzen jokorako trebatzen. Izan ere, gurasoek eztei-jokoetan hasten dira berriro eta lurraldetik egotzen dute. Orduan aurrera harat-hunat ibiliko da, sortu den habiaren minex beti. Heldu arte, gurasoen habiara itzultzen da noizean behin. Helduoraino, jaso den lurraldetik hurbil kokatzen da; izan ere, arrano beltza bitziza osorako dago abakita bere sortean, bikotea osatutakoan lagunari abakita egoten den bezala.

**ELIKADURA:** arrano beltzaren janaria bizi den habitataren arabera da. Hots, Mediterraneo aldean narrastiak dira beraren dietaren osagai nagusiak, untz eta erbiz osaturik. Eskozian, aldiz, gallinazooak ditu ohiko harrapakin, eta Alpeetan marmotak harrapatu ohi ditu zenbait hietan. Beraz, esan daiteke hegatzetik, ugaztunak eta narrastiak jan ohi dituela betik bat, denetarik. Inoiz animalia handiagok ere ehitzen ditu, esaterako ardi, basahuntz eta sarrio gazteak. Batzuek uste dute animalia helduak ere hiltzen dituzela, halakoez elikatzen ikusi izan baitira, baina oker daude, ez baitira izaten beraien hila. Saiak bezala inoiz haratustelez ere elikatzen dira; Nolanahiko animalia hila jaten dituzte, oso ustetik egon arren. Ehiza-jardunakia egunsentiariekin batera hasten da; arranoa airean gora abiatzen da zirkuluka, bere lurraldea oso goitik behatu ahal izateko. Behin gori-goiari dagoela, gubika-gubika beherantz hegaldatzen da; horrela hegan eginez distantzia oso handiak zeharkatzen ditu ia batera ahaletik egiten gabe. Harrapakin bat ikusi gero, lehenbizi lurrera gerturatzen da ihizia ezustean harrapatzeko, eta gero aluera bikiari jazartzen zaila, lurraren gorabehera atxikiz. Azkartasuna areagotzeko hegala



uzkurtu eta biktimaren gainean amiltzen da, hankak aurrean jarrita dituela, eta atzapar zorrotzekin hiltzen dio, atzaparrek erraz sarritzen zaizkio haragian harrapakinari. Mokoak ez du egirikizun handirik ehi-zan; harrapatutako animalia akabatzeko edo erazuteko soilik erabiltzen du. Ihiza hegaz eramango bada, bost kilo baino gutxiago izan behar du.

**HABITATA:** harrapari honen atabismoak erabat baldintzatzen du beraren bizitza, habia egiteko harkaitza malakarrak (gubitan egiten gu habia zuhaitzetan) eta ehiza-eremu zabalak (100 kilometro karraturik gorakoa) eta larre eta sastraka ugariak behar ditu eta. Nafarroan badaude bikote batzuk habia zuhaitz zaharretan egiten dutenak, baina Euskal Herriko bikote guztiak hauetatzen dituzte haitz-labarrak. Euskal Herriko Espezie Mehatxatuen katalogoan espezie hau zaurkor gisa ageri da (167/1996 Dekretua).

Arranoak bi eremu bereizten ditu bere lurraldearen barruan: eragin-eremua; erabat kontrolatutako edukit

zen du, baina batzuetan beste arrano batzuei ere uzten die ehitatzen, harrapakin ugari egonez gero; habia-eremua, bixkia eta ukiezina, zorrotz definitu eta defendatzen duena. Eragin-eremuan harrapakin gubti dabilenean, liskar



trak izaten ditu sarkinekin; sarkinak habia-eremuan barneratzen direnean, liskarrek askoz ere gogorragoak eta bortitzaagoak izaten dira. Dena den, borroka hauek jazarpen eta eraso-simulazio hutsetan geratu ohi dira normalean. Lurraldea markatzeko, harrapari handi hauek (3-6.5 kilo eta 75-88 cm luze, hegada mota oso bixia egiten dute, luzera bereko arkuak eginez. Lehenbizi oso gori-goiatzen dira eta ondoren, hegala bihotz tankeran jarrita, ziztu bizian amiltzen dira, harik eta halakoren batean hegala bertz zabaldu eta inertzia erakusten atzera ere gora egiten arte; jauzi-izotze honetan kilometroak ematen dituzte hegaz. Lurraldea markatzeko erabiltzen duen hegada ikusgarri hau beratu da gazte bakarrekin emeak erakartzeko erabiltzen dutena negu amaiera aldean, parekatzeko tenorea hiltzen denean.



### EGUNEKO HARRPARIAK

EUSKAL HERRIKO HARRAPARIAK

EUSKAL HERRIKO HARRAPARIAK



## ARRANO TXIKIA

*Hieraeetus pennatus*

**NOLA EZAGUTU?** gure inguruko arranonik txikiena, kilo bat eskas eta 53 zentimetro luze, basoko espeziea da, zuhaitzetan egiten du habia eta inoiz ere ez da oso gora hegaldatzen airean.

Gaztelaniaz gaitzadun esaten zaio, tartsoetan atzamarrak hasien diren guneraino dituen lumek gaitzak irudikatzen dute eta.

Anatomian bagagozko, argi dago ehiztari ahaltsu eta askotariko dela, buru handia, hegala luzea eta hanka laburrak baititu, eta hanketan atzamar lodiak eta atzapar oso zorrotz eta makurxeak; hain da trebea, ezen ugaztunak, hegaziak zein narrastiak ehizatzen baititu. Lumaje oso dotorea du, baina adinaren arabera hain ageri da ezberdin, ezen ez dakienari indibiduo gaztea eta zaharra bi espezie ezberdinekoak direla begitandu ahal baitzaio. hau ez da batere txikia harraparien artean; izan ere, espezie berean zail izaten da aurkitzen erabat berdink diren bi indibiduo, bakoitzak taur bereziko lumak ditu eta.

Arrano txiki gehienak, %80tik gora, kolore argiakoak dira, eta goitik begiratuta gorputza eta buztana zuri ikusten zaizkio eta arrau-hegalen muturrak beltz.

Ostera, fase iuinean dauden indibiduen lumajea are-txokolatea da, horregatik, bizkarrari arretarekin begiratu ezean, bi faseetan ere oso bereizgarri baita, miru beltzarekin nahas daiteke.

**BIOLOGIA:** apirilaren erdi aldean edo, arrano txikia Afrikatik itzultzen da gunera, negua epeletan igaro ondoren; beraren lehen asmaoa habia-eremu batez jabetzea izaten da.

Arrano txikiak izugarri abakitate egoten dira beren ugalketa-lurraldeei eta urtero-urtero toki berean egiten dute habia. Halaber, oso lurraldekoiki ere badira, eta lurralde jakin batea behar adina janari ez dagoenean, borroka gogorak izaten dituzte beren artean, hain gogorak ezen batzuetan aherioetako bat hilik suertatzen baita.

Apirilaren zehar, arrek hegala-itzulipundi karagarriak egiten dituzte, eta ber denboran limoetako garrasien antzeko txistu modulua jotzen dute. Habia egileko, landa zabaletatik gertu dauden pinu handiak hobesten dituzte, janaririk ahalik hurbilen egon nahi izaten du eta; baina bestenez ez da oso zorrotza izaten, ez baitzaio ardur handirik basoa hostozabalena edo koniferosena den, ez eta habia zuhaitz bakarren batean edo ibarbasoan jar-



Izea ere, eta inoiz herrikkaren baten ondoan ere jartzen dute.

Arrak eta emeak biek eraikitzen dute habia; oso ongi disimulatzen dute eta nahikoa handia izaten da, diamentroa 65 eta 80 cm bitartekoa izaten da eta. Aurreko urteko habia aprobetxatu ohi duenez gero, asko izaten du zertxobait atontzea, abar batzuk gehitu eta azpigarria berrituz (orbelak eta pinu-azkulak).

Emeak bi arrautza erruten ditu, baina batzuetan bakar bat erruten du eta inoiz baita hiru ere. 35 egunez bitatu ondoren, lehenbiziko txittoa jaiozen da; beste bi egunen buruan jaiozen da, emeak ere bi egun geroago erruten baitu bigarren arrautza. Adin-alde horren ondorioz, errunaldirik erdiatan bigarren txittoa hil egiten da, baina ez zaharrenak eraso egiten diotako, baizik eta amak zaharra areta handiagoarekin elikatzen duelako; hau da, bigarren txittoa gosez hiltzen da. Hil ondoren beste txittoa jaten du.

Bigarren txittoa hil ez dadin, naturalista askok habiatik hartu eta astebezez elikatu egiten dute. Gero, berriro ere bertan jartzen dute, lehenbiziko astea, hil ala bizkoa, igarota; nahiko sendorik egoten denez, sendeak onartu egiten du eta ordutik aurrera parean lehiatzen dira janaria eskuratzeko. Txitxoek zazpi bat aste ematen dituzte habian; beraien lumajea helduena bezalakoa da. Amak ez du une bakar batez ere uzten habia eta kontu handiarekin zaintzen ditu bere kumeak hilabete bete arte. Hain egoten da bere egin-kizunean buru-belarri sartua, ezen ez baitu zirkunik egiten are gizakiren bat habiara gurbilduta ere.

Arra, emea baino txikiagoa dena, bakarrik aritzen da familia osoarentzako janaria ehizatzen,



## EGUNEKO HARRPARIAK

harrak eta txitxoek hilabete betetakoan emea ere lanari lotzen zaion arte. Geroztik, txitxoak, erabat lumaztaturik ordurako, bakarrik izaten dira luzaroen, batzuetan are gau osoan ere. Txitxo bizitza 42. eguna arte, gurasoek erdi janda eramaten dituzte harrapakinak habiara: txitxoek nekez irensiko lituzketen atalak beraien jaten dituzte (burua eta hegala) eta haragi samurra kumeei uzten diete.

Ordutik aurrera, mokoa eta atzaparrak guztiz garatuta dituztenez gero, gurasoek harrapakinak oso-osorik uzten dituzte habian, kumeak erazuz dituzten. 50 edo 52. egunerako arrano-kumeak habiatik irtenen dira eta inguruetan geratzen dira beren lehenbiziko hegaldietan trebatzen diren artean.

**ELIKADURA:** goizean goiz, talaiako gorenko tokian pausatutik, arrano txikiak beren burua atontzen dute eta lumak kontu handiarekin zaintzen dituzte, eguzkiak lurra berotu eta goranzko aire-korronteak noiz sortu zain. Moko azkar eta egunero bezala mugituz, eta bezalako erdi irekita dituela, gurin uropialak sortutako gai oliotsua zabaltzen du luma handietan.

Mokoarekin arrau-lumak muturretik muturrera igurtzi ondoren, lumak arku-soka balira bezala tentetzen dira. Denbora aurrera joan ahala arranoari gosea iltzatzen zaio urdallean eta horrek ehizara bultzatzen du. Hegaz hasi baino lehen, korronte beroa aurkitu behar du, nekatu gabe igo ahal izateko; buruari batera eta bestera eraginid korrontea aurkitu eta berlarantz abiatzen da hegalei indartsu eta edertasunarekin eraginez, goranzko korrontearen zutabea ikusi ahal batu bezala. Korrontera iritsi eta biribilean hegaka zugaritzo erraztasunarekin igotzen da; behetik begiratu zuri ikusten da, hegala-ertzak beltzez



hormiturik dituela. Harrapakinak ber ikusten duenean, gainera amiltzen zaio eta hurbil-hurbil dagoela atzaparrak zabaltzen ditu, lurreratzera balihoa



bezala, eta heldu egiten dio. Tartsuak lurgainean jartzen ditu, harrapakinak ihes egin ez dezan, eta noiz hilko zain geratzen da, lepota luzatutik eta begiak biktiman finkatuta. Hil arte minutu batzuk itxaron ondoren, airea hegaldatzen da berriro. Arrano txikiak erraz atzematen ditu saguak, unbiak, muskerrak eta hegaziak, sarritan zeharretara amiltzen baita goietatik lurgainera hurbildu eta, hegalkak bikturik, adaburuen gainetik edo muinoen atzetik irten eta ezustean harrapatzeko. Horrez gainera, belatza handiak bezala basoa ez goi ez behe hegatzan diren eskinoso edo usoei ere oldartzen zaie, eta aztoreek bezala talaiak erabiltzen dituzte harrapakinak aurkitzeko.

Begiratikoz zuhaitz handietan izaten dira, haietatik landa zabaltzen lur asko kontrolatu ahal dutelako. Harrapakina ikusiz gero, hegalei indartsu eragin eta zitzu bizian amiltzen zaio gainera, horixe baita beraren ehiza-teknikarik hobereana.

Maizen harrapatzen duen animalia gardaxoa da, gero hegaztiertain eta txikiak (birgarroak, usoa, mikak, argi-ollarrak, txinboak, txolareak, berdantzak), eta azkenik karraskariak.

**HABITATA:** arrano beltzak bezala (oso antzekoak dira), arrano txikia hosto galkorreko basoetan bizi da, eta haietxetan ditu bere ehiza-eremuak.

**HEDAPENA:** arrano txikia Europako hegoaldean bizi da: Iberiar penintsula ia osoa, Balkan penintsula eta Grezia, baina Italian ez. Mendebaldean, oso bikote gubi helden dira Pirinioez beste aldera; Frantziatik bikote bakan batzuk besterik ez dute egiten habia. Ekialdean, ostera, Erusiako erdialderaino helden dira. Europan, Iberiar penintsula da arrano txiki gehien jasotzen duen lurraldea; denetara 2.950 bat bikote zenbatetsi dira. Europa osoan dagokionez, Gibraltarko itsasartean zehar 15.000 indibiduo igarotzen omen dira migrazioetan. Harrapari hau arraro gisa ageri da Euskal Herriko Espezie Mehatxatuen Katalogoan.



**BONELLI ARRANOA**  
Hiareus fasciatus

**NOLA EZAGUITU?** Bonelli arranoa 66-75 cm luze da, 1,6-2,1 bat kilo pisatzen du, eta emeak hegala mutur batek bestera 180 zenimetro zabal izan daitezke. Bizkaraldeko lumen kolorea eraberekoa da, marroi iluna, baina indibiduo batzuek zuriune irregularra izaten dute lepo-oinarrian. Gorputzaren behealdea zuri distratsua da nagusiki, baina orbain ilun estilatuak ditu paparrean eta alboetan, bai eta sabalaldean ere; sama inguruan ez dute orbainik. Isatsaren zerrenda ilun zabal da; tartsoak lumaz-tatuak dira eta hauen muturretan atzapartzar zorrotz-zorrotzak dituzte, arrano beltzarenean oso antzekoak, nahiz eta hura tamainaz ia-ia arrano eperzalea halako bi izan.

Buruan, behi handi eta sakon horixkak eta moko zorrotz eta makurra dira aipagarrienak.

**BIOLOGIA:** Udazken erdi aldean, azaro inguruan, arrano eperzaleei ugaltzeko irrika azaltzen zaie. Bikoteak eztei-hegaldiak egiten hasten dira; aieratu eta hegak dabilzala denetarikoa jautziak eta itzulipurdik egiten dituzte eta atzaparrak lotzen ditzate elkarri. Gero habia eraikitzen dute edo aurreko urteetako bat atontzen dute, bikote bakoitzak bi ohanzate eduki ohi baititu, nahikoa gertu bata bestetik. Habia egiten hasita, bikoteko kide biek basoan aurkitzen dituzten abar gartuak eta egur zatiak ekartzen dituzte; amaitu hurrean dauzkan, arrak ematen dizkio azken ukituak.

Oro har, harkaitzetako zuloetan egiten dituzte habia, baina Afrikakoek zuhaitzetan ere egiten dituzte.

Otsailaren, arrak emea estaltzen du bikotearen pusaletuetan, baina inolako protokolorik gabe, beste hegaztiak ez bezala. Arrak aski izaten du emeari hurbiltzea ezarri-hotsa egiten duelarik. Emeak ia ez du zirkinik ere egiten arra ondoan jartu arte. Orduan makuru eta isatsa tentletzen du, esialtzeko prest eta gertu dagoela adierazteko.

Emeak bi arrautza eruten ditu, egun bateko tartearrekin, inoiz hiru ere bai, 6,8 x 5,3 mm-koak, zuriak orbain arrexka batzuekin. Batzuetan arrautzak guztiz zuriak izaten dira eta beste batzuetan orbain arrez guztiz beteak ere bai.

Emeak bitatu ohi ditu arrautzak 38 eta 40 egun bitarteko epealdian. Bizkitartean arrak habia zaintzen eta babesten du eta jalean ematen dio emeari. Inoiz edo behin emea habiatik iritelen da abar bila, habian akatsen bat antzeman duela eta hura konpontzeko, edo azpigarria berri-zeko.

Txioak apiril hasiera edo marxo amaiera aldean jaotzen dira, egun bat edo biko tartearrekin, hots, arrak arrautzak errun dituen tartearan araberako tartearrekin, lehenbiziko errun



eta berehala hasten baita berotzen. Jaito eta berehala, ama kumeak elikatzen hasten da, arrak ekartzen dituen harrapakinak kontu handia xehetuz. Lehenengo egunetan arreta handiarekin hautatzen du bitoei ematen dien haragia, baina hazi ahala hezurrik eta ileak dituen haragia ere ematen die. Gainera, lehenengo egunetan amak berak jasotzen ditu habiaren zorura erortzen diren haragi zatiak, baina zertxobait koskortutakoan, bi aste igarotakoan edo, kumeak euren jasotzen dituzte.

Lehenengo hilabetean zehar bitoen bizitza oso loturik dago amarenarekin, izan ere berak babesten ditu euritik eta hotzetik eta berak elikatzen ditu. Bizitzako hiru garren asterako, gutxi gora-behera, bitoek hegaketa-aniketak egiteko behar bezain sendo dituzte muskulua, eta amak ematen dizkien harrapakinak erazten hasten dira. Ama, gainera, geroago eta sarrago joaten da habiatik, kumeak lotan daudenean edo lumak zaintzen eta garbitzen ari direnean. Nolanahi ere, kumeak bi hilabete igaro arte ez dira gai izaten harrapakinak xehetu eta beren kabuz jateko. Luze gabe, dena den, arrano gazteak habiatik irleten dira, artean lumajez gurasoen aldean oso ezberdinak direla. Bizkaraldea nahikoa antzekoa da, baina ez dute helduek lepo inguruan duten zurrua, eta gorputzaren behealdean, marroia lido beltzarekin, luma-lumean ez dute hiru urtetik gorako indibiduoek ertz inguruan duten zerrenda zabal; izan ere, hiru urtera ezkerre erabat aldatzen zaien lumajea arrano gazteak.

Bonelli arranoa gazteak habia inguruan geratzen dira aldi batez; orduak eta orduak ematen dituzte harkaitzen baten gainean pausatuta, geldirik, edota airean planeatzen, asko umundu gabe, hegari trebatzen. Bi sendeak ez dira askorik urruntzen elkarrengandik, eta batera hegatzeko eta pausatzen dira. Hala ere, egunak joan egunak etorri eta uztaile inguruan ahaide-



loturak ahultzen hasten dira, hark eta abuztuan, habiatik irten direnetik bi hilabete igarota, jaito diren harkaitzak atzean utzi eta zela beren bideari lotzen zaion arte, bakarrik eta errari ibiltzeko sexu-heldutasunera noiz iritsiko zain.

Harrapari hau hain da suminkorra, ezen batzuetan arrano beltzei, ugaltzei-elkarrekin bizi diren lurraldeetan- eta beste harrapari espezie txikiago batzuei (miru beltza) ere erasotzen baitie bere lurraldean sartzen direnean. Bonelli arranoa oso berekoa da bere lurraldearen jabetza eta sutsuki defendatzen denen aurka; horregatik ezin bizi daiteke beste ezin harrapariekin, eta batez ere inolaz ere ez arrano beltzarekin. Hain zuzen ere, arrano eperzaleak bizi diren mendilerroetan ez da arrano beltzik, eta alderantziz.



Elkizadura: hegalean belatzaren azkartasuna eta aztoarearen trebezia eta arintasuna eta atzaparretan arrano beltzaren indarra dituela, arrano eperzalea kale egiten ez duen ehiztaria da; ehizan ari denean, bere lurraldean zehar hegaldatzen da ez goi ez behe bere ikusmen zoliaz bazter guztiak miazten. Egizarako duen gaitasun apartagatik ingelesak "apto-arranoa" esaten diote. Harrapakina ikusten duenean, jarrera gotik behera aldatzen zaito eta buru-belarri ekiten dio ehizari. Egin beharreko ahailegin guztiak zehatz-mehatz kalkulatu eta ondoren zitzu bizian amiltzen zaito.

Batzuetan zelatan ere aritzen da, zozo edo untxiren bat harrapatu nahi duenean; horretarako haitz irtenetan pausatzen da eta zeru-lurrak behatzen ditu. Eta inoiz bikoteak ere ehizatzen du: arrak edo emeak hegazti-saldio bati ezustean oldartu eta sakabandatu egiten ditu, eta besteak nahaspilaz baliatuz bat harrapatzen du.

Harrapari honen dietaren %75 inguru hegaztiak dira, eta hegazti guzietatik eperak dira nagusi, arranoaren izenak adierazten duen bezala; gainerakoak usook, zozoak, bingarroak, ipar-beleak, belatlingak, anati-dak, limoelako hegaztiak... Ugaztunetan untxia da beraren ihizi nagusia, eta



gona, eta zehatzago zuhaitz ugari edo baso hostosunak ez dagoen aldeak, baso trinkoek ehiza eragozten baitiote. Hegaztiok nahitaz behar dituzte harkaitzak, labarrak eta haitz-horma malkarrak habia ezeren beldurrik gabe egin ahal izateko. Orotan, habia inguruaren sastraka mediterraneara nagusi den eremu zabalak eduki behar ditu.

Harrapari hauek oso sedentarioak dira eta beren lurraldeari gogor atxikita egoten dira; neguan bazik ez dira lekualdatzen, eguraldiaren gogorak bultzaturik. Beraren ehiza-eremuaren azalera 150-200 kilometro karratu artekoa izan ohi da; ehizagune berak lurren %30 inguru hartzen du, eta gainerako lurretan arranoak harat-hunat ibili besterik ez du egiten. Gaur egun geroz eta gutxiago dira sastraka mediterranearra duten eremu zabalak, eta ondorioz arrano eperzalea ere geroago eta urriago da. **HEDAPENA:** Bonelli arranoa Euroasian, Afrikako iparraldean eta Europako Mediterraneo aldean bizi da; artadien oso loturik dago. Dena den, Europan galtzeko zorian dago, azken hamarkadetan populazioen kopuruak izugarri jaitsi dira eta. Iberiar penintsulan, mediterranean ekosistemari loturiko hegazti honen aterbe nagusian, 1990.eko zentsuaren arabera bikote habiagileen populazioa 679 eta 755 bitartean zegoena, eta Europa osoan 950 bikote zeuden gehienez. Arrano eperzalearen subespezie bat, Afrikako arrano eperzalea (*Hiareus fasciatus spilogaster*), batzuen ustez espezie-tzat jo behar litzatekeena, kontinente horretako erdialdean eta hegoaldean bizi da, bai eta Indonesiako uharte batzuetan ere, eta ez du inolako arriskurik.



**EGUNEKO HARRPARIAK**

ondoren arratoiak eta saguak dotoz; narastiak ere harrapatzen ditu, gar-daxoak esaterako.

Arrano honen elkizadura-ohiturarik berezgarriena urtarorean arabera harrapakinez aldatzeko duen gaitasun handia da, erraz baino errazago moldatzen baita naturaren inguru-berretara.

**HABITATA:** bonelli arranoa habitat nagusia altuera txiki eta ertaineko mendilerroak dira -gutxitan ibiltzen ditu 1.600 m-lik

gona, eta zehatzago zuhaitz ugari edo baso hostosunak ez dagoen aldeak, baso trinkoek ehiza eragozten baitiote.

Hegaztiok nahitaz behar dituzte harkaitzak, labarrak eta haitz-horma malkarrak habia ezeren beldurrik gabe egin ahal izateko.

Orotan, habia inguruaren sastraka mediterraneara nagusi den eremu zabalak eduki behar ditu.

Harrapari hauek oso sedentarioak dira eta beren lurraldeari gogor atxikita egoten dira; neguan bazik ez dira lekualdatzen, eguraldiaren gogorak bultzaturik. Beraren ehiza-eremuaren azalera 150-200 kilometro karratu artekoa izan ohi da; ehizagune berak lurren %30 inguru hartzen du, eta gainerako lurretan arranoak harat-hunat ibili besterik ez du egiten.

Gaur egun geroz eta gutxiago dira sastraka mediterranearra duten eremu zabalak, eta ondorioz arrano eperzalea ere geroago eta urriago da.

**HEDAPENA:** Bonelli arranoa Euroasian, Afrikako iparraldean eta Europako Mediterraneo aldean bizi da; artadien oso loturik dago. Dena den, Europan galtzeko zorian dago, azken hamarkadetan populazioen kopuruak izugarri jaitsi dira eta. Iberiar penintsulan, mediterranean ekosistemari loturiko hegazti honen aterbe nagusian, 1990.eko zentsuaren arabera bikote habiagileen populazioa 679 eta 755 bitartean zegoena, eta Europa osoan 950 bikote zeuden gehienez.

Arrano eperzalearen subespezie bat, Afrikako arrano eperzalea (*Hiareus fasciatus spilogaster*), batzuen ustez espezie-tzat jo behar litzatekeena, kontinente horretako erdialdean eta hegoaldean bizi da, bai eta Indonesiako uharte batzuetan ere, eta ez du inolako arriskurik.

EH 51 z.



**ARRANO SUGEZALEA**  
*Circus gallicus*

**NOLA EZAGUTU?** arrano sugezalea 63-69 cm luze izaten da eta 1,5-2,2 kilo edukitzen ditu; begi handiak ditu, buruaren aurrealdean kokatunik, eta horregatik beraren burua oso handia da gainerako eguneko harraparienaren aldean; iburaz hontza bixkiarena ematen du. Behetik begiratuta zuria da eta orbain arreak ditu, eta bizkarraiek, berriz, ilunagoa da. Lepoa eta paparra arreak dira, eta horregatik soinean txanoa duela iruditzen du. Hegalak kolore oso argiokoa dira eta lehen eta bigarren mailako lumak arrez eta beltzez zipistinduta ditu. Isatsean argi ikusten zaizkio zeharretarako hiru zerrenda. Mokoia nahikoak bixkia da gorpuzterako; beltz-urdina da eta muturrean argizari argia du. Hankak luzeak dira, gris argiak, lumak gabe ezkata handi eta gogorrak dituzte, sugeen haginakaden babesgarri. Hatzak laburrak dira, eta atzaparrak laburrak eta makurrak.

Arrano sugezalearen begi distiratsuak buruko aurrealdean daude kokaturik, hontzarekin bezala; hegan, hontza bixki bezain isil egiten du; airean dabilela oso arina da, beltzari bekaltzik ez izateko bezain arina; eta zeru goienetan ibiltzen ez du parerik, ezta saiek euren ere ez diote horretan alderik kentzen. Ezaugarri horiei guztiei esker, tamainaertaineko harrapari honek gaitasun handia du ehizarako. Hegazi honen gorputza guztiz egokifuta dago narrastiak eta batzere ere sugeak harrapatzeko: tartso luzeak ditu eta oso azkarra da, suge pozoitsuaren erasoetatik begiratzeko. Begiak aurrealdean ditu, lehen esan bezala; kolore hori-limoikoa dira eta ikusmen estereoskopikoa ematen diote arranoari: largabistak balira bezala, ehiza-eremua behatzen duenean, haietara esker arrano sugezaleak oso urrun eta zehaztasun handiarekin ikusten dute. Gainera, ezustean agertzeko gaitasun handia duenez eta behetik begiratuta zenuarekin nahastan denez gero, etekin handia ateratzen die bere erasoak.

**BIOLOGIA:** negu amaieran narrastiak lozorotik bizien hasten direnaren, orduantxe itzultzen dira arrano sugezaleak Afrikako neguko aterbeetatik, beren ehiza eta ugalketa lurraldeak urtero bezala kolonizatzen; lurraldeak 8 eta 12 kilometro karratu bitartean eduki behar ditu. Eta, hain zuzen ere, horren eremu zabala eduki beharrik berekin dakar gure lurretan arrano sugezalea oso gutxi egotea. Beste harrapari batzuek ez bezala, arrano hauek ez dute eragozpenik beste harrapari batzuekin batera bizi izateko, ezta habia eremu



berean jartzeko ere, baina beste espezie batekoak izan behar dira, espezie bereko arranoak harrapakin-lehian hasi lirateke eta.

Apiril hasieran, behin habia-eremua hautatu gero, bikoteek eztei-hegalaldi ikusgarriak egiten dituzte, garrasi meheak egiten dituztelarik. Habiak hartze edo pinu zaharren adaburuetan egin ohi dituzte; oso ongi kamuflatuak dituzte. Gainera, habia oso bixkia izaten da hegaztien tamainarako, gehienez 50 zentimetroko diametroa izaten baitu. Arrak eta emeak biek egiten dituzte kumeentzako bizitokia eraikitzeko lanak, baina bakoitzak bereak: arrak abarrak eta orbekak ekartzen ditu, materialak, eta emeak elkarri lotu eta taxutu egiten ditu, katilu eteko habia sortu arte. Apirilaren erdi aldera -edo hasieran, eguraldiaren arabera-, emeak arrautza bakar bat eruten du, zuria eta birbilba, 7,3 x 5,7 cm-koa; berak bitartzen duen artesian arrak jakiak lortzen ditu, eta inoiz zeregirik irukatzten dituzte: arra habian geratzen da eta emeak ehizatza abiatzen da. Arrautza bitartzen 45 edo 46 egun igaro

ondoren, bitoa jaiotzen da, lumabax gozoz jantzia. Jaiotzean txitxo oso bixkia da, 90 gramoko besterik ez du, eta gorpuzteko atalik nabarmena buru handia da. Jaiotze berehala ama haragi zatiboz elikatzen du, arrak ekartzen dituen harrapakinetan hautatuak, eta eguraldi txarretik babesten du: haize zakarra, bero handia edo eurijesak. Kumea hazi ahala, amak bere kasa jaten irakasten dio, alegia, sugeak osorik irensten. Txitxo behar bezala hezteko, lehen horietan amak ez ditu sugeak guztiz irensten, bestela egingo luketen bezala; aitzitik, azken muturra mokolik espekita edukitzen du, bitoak hartatik tenkatu eta paparotik atera diezaien. Jan baino lehen, gurasoek kumearen aurrean erabiltzen dute sugea eta xaxatu egiten dute kentzen ahalgindudadin; halaxe hasten dira bitoaren lehenengo ehiza-irakaspenean. Txitxoak gurasoen sugea harrapatzen duen bakoitzean hegalekin estaltzen du, arenean erasoetatik begiratzeko ari baltiz bezala. Ondoren haragi zatik erautzen dizkio bizkarretik. Seigarren astea igarota, nahikoa hazirik dagoela, gurasoek bakarrik uzten dute habia eta elkarrekin josten dira ehizan. Bi

**EGUNEKO HARRPARIAK**

hilen buruan, guztiz lumazaturik dagoela, kumea sugea gurasoen paparotik atera eta osorik irensteko gauza da, kostata bada ere. Jaiotzean 68-72 bat egun igarota, inoiz hegatzeko praktikarik batera egin gabe, habiatik irten eta gertuko zuhaitzen bateko abarren bateraino hegaldatzen da nola-hala. Lehenbizi jauzika aritzen da eta hegalei eragiten die eta ondoren planeatzen hasten da, gurasoak arreta handiarekin zaintzen dituela; gurasoek korronte termikoak nola ballatu irakasten diote, ahalagin handirik gabe hegan ibiltzeko. Sugeak nola aurkitu eta ehizatu ere irakasten diote, eta zer egin behar duen kosk egin ez diezaioten... Gurasoak irailko azken egunak arte egoten dira kumearekin; gero Afrikarantz abiatzen dira, batzuetan familia osoa batera, negua igarotzen. Bi urte igarota arte gazteak ez dira sexualki helduak. Ordura arte arrano sugezale gazteak bakarrik eta noraezean bizi izaten dira, ez baitute ehiza-eremurik.

**ELIKADURA:** arrano sugezaleak eguzkiak gogor berotzen duenean abiatzen da ehizara, harrapakinak erabateko jardunean ari direnean. Beraz, eguzki-galdatan hasten dira hegan, 25-35 bat metroko alturan eta hegalei ia eragin gabe, eta narrastiak ager daitezkeen tokiak behatzen

ekiten diote, hau da, halizetako zimkiluak eta hari tartak... Sugeen bat aurkitzen duenean, soo hartan itzaitu eta mailaz maila jaisten da, hanik eta ihizia dagoen lekura berezainbat hurbidu arte; orduan, atzaparrak aurreratu eta zabaldu eta zitzu bizian amiltzen zaio. Narrastia lepoari eta sabelari helduz haren haginakita begiratzen da. Batzuetan sugeak harraparia zelatan dutela oharitzen dira eta horrelakoetan hari baten ondoan babestu eta aurre egiten diote, zutik jarrita eta sudur-zitzu ozekak eginetz, eta ahalaginak eta bi egiten dituzte arranoari kosk egiteko. Harrapariak, etengabe jauzika ari dira, eraso egitera xaxatzen du suge, eta hark kate egiten duen baten atzaparrez lepoa atxiki eta mokokada azkar batzuzue hil egiten du. Suge hil ondoren, berehala irensten du, burutik hasita beti, edo beste-lagertuko zuhaitz batera eramaten du. Arrano sugezalearen ohiko ihizia Montpelliereko sugea da, gure basoetan dauden ugarienetakoa, eguneko azturak dituen eta are egun eurtsuetan ere bizi-bizi aritzen dena. Horrez gainera, eskalera-sugeak, ferra-sugeak eta sugegorriak ere harrapatzen ditu; dena den, sugegorri askorik ez du ehizatzen, gauekoa da eta. Harrapari honen dietaren %90 sugeak dira eta gainerako %10 muskerak, sugandilak, ziraunak eta, inoiz, apaburuk, apoak eta saiguerk ere bai. Urdullean ikirik, zizare-



ak eta katagorri-hondakinak aurkitu zaizkio. Jendearen ustez arrano sugezaleari ez dio kallerik egiten sugegorriaren pozoia, baina egiaztatu da hori ez dela erabateko egia; izan ere, pozoia odolera helduz gero soilik da kaltegarria. Bestela, sugegorria jaten duenean, urdulaian eta liserketan zuku gastrinokoa pozoia beste edozein proteina bezala deskonposatzen dute.

**HABITATA:** narrastiak jan ohi dituzenez, baso, bide eta harkaitz eguzkitsuaren ertzelan egoten da zelatan, halakoxe lekuetan ibiltzen baitira bere harrapakinak. Inoiz ere ez da hegaldatzen hostozabal basoen gainetik; aitzitik, landa zabaletan ibiltzen da hegan, eta are soro-batartzetan landa. Oro har, goranzko korronte beroak sortzen diren maldak hobesten ditu, haiez bialatuz hegalei eragin gabe eta indarrik xahutu gabe igo daiteke eta.

Dirudienez, arrano sugezaleak kareharritzko lurrak hobesten ditu, eta hobetsi ere erraz berotzen direnez mikroklima beroa sortu eta narrastiak azkarago izartzen direlako lozorotik.

**HEDAPENA:** Europako lurralde epelatan, Mediterraneo aldean eta estepetan bizi da, bai eta Afrikako iparraldean eta Asiako mendebaldean ere, Indiaraino. Europan, Baltikoraino heldzen da, baina, hala ere, ez da ageri Atlantikokoan begira dauden Erteuropako lurraldeetan. Aurrano sugezaleak irail amaiera eta urriaren erdi alde bitartean migratzen du, udazkenarekin batera narrastiak lozorotzen direnean. Orduan ez du izaten beste irtenbidirik Afrika hegaldatu eta negua Senegal, Ghana, Nigeria edo Marokoko estepa zuhaitzuenetan igaro baino.

Gure basoetako eta Frantzia osoko arrano sugezaleak Gibraltarko itsasartearen zeharkatuz heldzen dira neguko bizitokiak, eta Europako ekialdekoak, berriz, Bosforoko itsasartearen zehar, Palestina eta Sudan igarota. Negua igaro ondoren, arrano sugezaleak Europa itzultzen dira, habia egitera.



**ZINGIRA-MIROTZA**  
*Circus aeruginosus*

**NOLA EZAGUTU?** zingira-mirotza 48-56 bat zentimetro luze izaten da eta 400-800 gr bitarteko pisua izaten du. Liraintasunean mirotz guztietan azkena da zingira-mirotza, eta tankeraz mirotz urdina eta mirotz zuria baino sendoagoa da. Halaber, ez du haien ipurbuntzur zuria. Arraren lumajea arrea da, isatsa eta hegala zuriekin; emeak, aldez, luma zurixkak ditu buruan eta garoñdoan.

**BIOLOGIA:** martxo amaiera eta apiril hasiera bitartean itzultzen dira zingira-mirotzak neguko bizitokietatik; heldu eta berehala habia egiteko lurraldearen bila hasten da. Lurraldearen azalera aldean bizi diren mirotzen kopuruaren arabera koka da; baina gutxienez 170 eta 270 metro bitarteko erradioa izan behar du. Espezie bereko mirotzen bat eremu horretan barametuz gero, jabeak ez du dudarik batere egingo eta bortizki erasoko dio, harik eta kanpora egotzi arte. Amodialdia hasitakoan, eme minez dabilzan arrei lumajea arre argi ikusgarria sortzen zaie, paparreen beltzez pikardatua eta zertxobait ilunagoa bizkarrean. Hantekako izterretan luma gomakak izaten dituzte eta isatsen luma gris urdinkarak.

Ohiko jarrera hautsita, arrek garrasi biziak egiten dituzte beren hegaldi eta jauzi guztietan, behin eta berriro eten-gabea, padura inguruetako emeak erakarri nahiz. Emeen eztei-lumajea, beriz, arrena baino askoz molelagoa da, ia goltik behera bokolate kolorekoa, sorbaldean eta buruan argiuneak baditu ere. Arrak emea erakartzea lortzen duenean, erakusketako hegaldiak areagotzen ditu: hasieran hegalei astiro eta era irregularraren eragiten die, baina ondoren zenuan gora eta behera hasten da bat-batean, goltik izugarritzko azkartasunarekin amiltzen delarik. Emea lagun izaten du eztei-hegaldian; haren atzetik jazarzen ibili ondoan, halako batean arrak emea harapatzen du atzaparez eta lurrera jausten dira biak. Erritu hori amaitutakoan arrak emea estaltzen bide du.

Behin emaldu ondoren, emea habia egiteari lotzen zaio; zeregin horretan arrak ia ez dio lagundu ere egiten. Oro har, landare artean egin ohi du, uretatik 10-20 bat zentimetrotara. Landareztan tinko eutsita, abar eta inhi idomez egiten du, eta tankeraz 50-140 cm bitarteko diametroko plataforma biribila da,



barrualdea kimu bigunez eta belar mehez jantzia. Habia burutu hurren dagoela, emeak ez du ia zirkirik ere egiten bertatik, eta arrak beriz bikotearen lurraldea defendatzen du eta ehizan aritzen da, bere lagun nekazezinari jaten emateko. Arrak emeari harrapakinen bat eramaten dionean, ez du habian uzten; atzitik, emea bide erdira irten arte ibaroten du eta ondoren ihes egiten du, emea atzetik jartzatzen zaio eta arrak harrapakin hila askatzen du, emeak airean harrapa dezan. Inoiz lurgainean ere uzten du. Errunaldia gertu dagoenean, apiril erdi aldean edo, emeak ez du zirkirik egiten habiatik. Erruten hasitakoan, lauzpabost arrautza zuri urdinkara eruten ditu bi edo hiru eguneko tarteen; arrautzen tamaina 50 x 39 mm izaten da. Ondoren, emeak (berak soilik) zazpi aste ematen ditu arrautzak biltzen; kumeek lumaxa zurixkarekin jaiotzen dira. Lehenbiziko egunetan amak gertu-gertutik zaintzen ditu eta arrak ekarritako harrapakinez elikatzen ditu: karraskariak, anfibioak, narrastak.

Kumeak oso azkar hazten dira eta hiru aste eta erdirakin, hasierako lumaxa motela barik luma arreak dituztela, habia barnuan itzulinguruka hasten dira eta hegalei eragiten hasten dira, paparrak muskululak sendotzeko. Ama, ordura artean beti ere kumeen ondoan egon dena, habiatik irteten hasten da, arrarekin batera ehizatzen. Arrautzak irten direnetik hilabete eta erdi igarota, mirotz-kumeek beren lehenbiziko hegaldiak egiten dituzte, gurasoek bultzaturik. Geroztik, ikasketaldia dator, kumeek hegan egiteko eta ehizatze teknikak ikasi behar dituzte eta: nola antzeman lezkadietan ezkutalutako hegaztiak, nola harrapatu ustekabeen kopetazuri-aldrak eta nola ilxar-erropenarekin ihidri inguruan ihes egitea lortzen dutenean; hiltz batez, gurasoek beren kabuz bizi izateko beharko duten guztia irakasten diete kumei.

**ELIKADURA:** zingira-mirotza, mirotz urdinarekin eta mirotz zuriarekin batera, landa zabaletan ez beste inon ehizatzen ez duten eguneko harrapari bakarrak dira; lurgainean dabilzan animaliatxoak izaten dira beraien harrapakin nagusiak, hegaz



dabilzanekin ez baitute zer egink. Izan ere, horrexegatik garatu dute beren hegaldatzetektika berezia. Lurgainetik oso gertu planeatuz eta bere begi zolliez bazter guztiak arakatzen dituela, zingira-mirotza padura eta zingiretako ehizatariak trebeena da. Beraren ehiza-lurraldea gainerako harrapariena baino askoz bikiagoa da (250-350 bat hektarea), hezeguneetan harrapakin ugari izaten baitute beti. Hala bada, hezegune beren bikote bat baino gehiago aritzen denean, ehiza-lurraldeak hainbana egiten dituzte inolako arazorik gabe; hortxe ageri da espezie honen sozialitate handia. Ehizan ari denean, azkartasuna eta ezusteko erasok ditu bere ama nagusiak. Ur-hegaziak lezkadian daudela, mirotza ustekabean eta bat-batean oldartzen zaie, eta estuasunean harrapakinek ez dute astirik izaten behar bezala ihes egiteko; harrapakin bat hautaturik duela, mirotzak hegada azkartu eta gainera amiltzen zaio. Harrapakinak ihi artean ezkutatzea lortzen badu, zingira-mirotzak ez du amore ematen eta zenuan hegaldatzen geratzen da, behetik ez oharzteko bezain altu, harik eta biketina ariskua pasatu dela fidaturik berriro irten arte. Orduan berriro oldartuko zaio, atzaparrak zabalzababak.



Zingiretako eta lezkadietako landare-ingurune trinko eta ilxira ezin hobeto egokitua, zingira-mirotzak ikusmen zorroz-zorrotza du eta ongi kamufilatutako harrapakinei eta ingurunean ostendutako habiei antzemateko gaitasun aparta ere bai. Bere hanka luzeei esker urmaeletan barna murgiltzen diren ur-arratoiak eta ur-sugeak harrapa ditzake, trebezia handiarekin.

Karraskariak jaten ditu batik bat; eta batez ere ur-arratoiak, lursaquak, saguak eta urbiak; dena den, udaberrian eta udan aurreko ugaztun horiek bigarren mailan geratzen dira anfibioen, narrasten, arrainen (karpak batez ere), insektu handien eta txori-kumeen aldean. Airean dabilela, zingira-mirotzaren hegada miru beltzarenean antzekoa da, biek ere arraukumak zabaldu eta hegalek jasozten baitituzte korronte termikoetan gora ari direnean; nolanihi ere, zingira-mirotzak hauxe du bereizgari: hegalek jasoxe geratzen zaizkio.




**EGUNEKO HARRPARIAK**



**HABITATA:** zingira-mirotzaren habitata anfibioak, sugeak eta ur-arratoiak eta hainbat ur-hegazi bizi diren zingira, aintzira eta lezkadietan dago; harraparia hau habitat horietako elikadurapiramidearen gorengo erpinean dago kokaturik.

**HEDAPENA:** zingira-mirotza paleartikoko hegazia da, hain zuzen ere erregio horietako alde boreal epeletako eta Mediterraneo inguruko.



Afrikako iparretik hasi eta Europa zehar Eskandinaviako hegoalderainoko lurretan bizi da, eskialdetik Errusiako Mongoliako eta Txinako esteparaino heltzen dela. Europako iparralde eta erdialdean eta Asian bizi direnek Afrikako tropikoalderra, Filipinetara eta Borneora migratzen dute neguan, eta Iberiar penintsulan bizi direnak, beriz, sedentarioak izaten dira giroa alde dutenean. Hala ere, hainbat zingira-mirotzatako askok Afrikara migratzen dute neguan Gibraltarko itsasartea zeharkatuz.

Hegan egiteko gaitasun handia dute; aski dute hegalei bi aldiz eragitea lurgainetik gertu ehun metro baino gehiago egiteko planeatzen, eta zehar haize-korronte txiki nahiko dute zenuan oso gora egiteko. Hegazti harrapari honek ez du inolako eragozpenik urtza handietan zehar hegan egiteko. Horregatik, ez da batere harrigarria izaten inoiz itsaso zabalean aurkitzea migrazioetan, kostaldetik ehundaka kilometroko bidean. Mirotz hauek Gibraltarko eta Bosforoko itsasarteetan biltzen dira beren migrazioetan, bai udazkenean bai udaberrian.



**MIROTZ ZURIA**  
Circus cyaneus

**NOLA EZAGUTU?** Tamaina ertaineko harrarparia, gorputz lirainekoa eta hego eta buztan luzekoa. Heldua denean, mirotz zuria 43-51 cm luze da eta 300-500 gr izaten ditu.

Arra gris errauskara da goialdean, beltzak diren lehenengo arraun-lumak eta zuria den ipurtxuntzurra izan ezik. Azpialdean, nabarmena da lumadiaren kolore zurixka, hegoen muturretako beltza izan ezik. Emeek ez dute kolore grisik, ipurtxuntzuraren kolore zuri delgarrria izanik.

**BIOLOGIA:** mirotz zuria migratzaile partziala da; udazkenean denak joaten dira guro basoetatik eta marbo amaiera aldean itzultzen dira. Itzultakoan, arrak, gris hauskara kolorekoak, beren habia-lurraldeaz jabetzen dira eta ezteihagaldi akrobatiakoak egiten hasten dira: txandaka planeatzen dira eta txandaka 30 bat metroko altueratik amiltze-jauzi azkarrak egiten dituzte, hegalek ia litxia dituztela; halako jauzietan, lurrera heldu aurretik norabidea aldatu eta bihurgunea eginez berrirrotzen dira, behin eta berrirrotzen dira gora-behera joko honetan, batzuetan are hogei eta hamar aldiz jarraian ere. Arra bere erakustaldian ari delarik, emea (gaztainkara, behealdeak okresa eta zerranda zabalekin) berari so egoten da; batzuetan hegaz aritzen da arraren azpian, beraren jauzi eta igoera etengabeetan lagunduz. Halakoetan ohikoa da arrak emearekin erasotzen diolako plantak egitea; orduan emea defentsa-posturatan jartzen da eta arrak hegadaren azkartasuna motel-tzen du. Emeak, arraren atzean hegan ibili ondoren, lurgainean pausatu eta janari-eskekoak diruditen garrasiak egiten dituenean, emaltzeko prest dagoen seinale argia ematen ari zaio arrari. Hark berehala ulertzen du eta emearen gainera jauzen da; emeak isatsa jasotzen du, ados dagoela adierazteko. Bitxia bada ere, arrak harrapakinen bat eman ondoren estaltzen du emea, eta horregatik ia beti du animalia beren atzetik. Errenaldian zehar eta emeak azken arrautza errun duenetik astebele igaro bitartean bikoteak hainbat aldiz kopulatuzen du. Oro har, habia emeak egiten du batez ere; arrak abarrak eta orriak ekarri besterik ez du egiten. Nolanahi ere, batzuetan lagun gabeko arren bat habia eraikitzen hasten da, emearekin zer erakutsia izateko. Mirotz zuriek toki beren egin ohi dute habia urtero. Otadietan, zereal-soroetan edo pinudietan, belarrak, kirtenak eta abar txikiak 40-45 bat cm-ko diametro duen plataforma eraikitzen



dute, 4-5 cm sakon dena. Maiatza eta ekaina bitartean emeak 4-6 arrautza erruten ditu, batetik bestera bi egun igarotzen direla; arrautzak zuri urdinkarrak izaten dira, puntu griszez edo arre-gorrixkaz pikartatuak, 45 x 35 mm-koak eta 9-34 gr-ko pisukoak. Urtean behin bakarrak ugaltzen dira, baina lehenbiziko errenaldiko arrautzak galduz gero, bikotea berriro saiatzten da. Emeak berak bakarrik txitatzen ditu arrautza hila-



betez; hiltzen bada, arrak arrak ulertzen ditu, baina ez ditu behar bezala txitatzen, eta horrelakoetan arrautzetatik gutxitan jaiotzen dira txitoak. Arrak habiara harrapakina eramaten denean, emearekin

netik jakinarazten dio garrasiz; arraren mezuaz oharturik, emea habiatik irten eta hegalez abiatzen da bide errandra; arra dagoen tokira heldutakoan, hark harrapakina askatu eta emeak airea harrapatzen du; ondoren habiara itzuli eta txitatzen ari dela jaten du.

Txitoak jaiotzen direnean, amak arrautza-oskolak kentzen ditu habiatik; egiten habiatik eta arreta handiarekin zaintzen ditu kumeak; bigarren astean, berriz, irtenaldiak egiten hasten da, baina ez janari bila, ehiza arraren ardura baita, baizik eta paseatzen ibiltzera. Hala ere, habiara itzultzen denean kumeak eguraldi txarretik



**EGUNEKO HARRPARIAK**

begiratze jarraitzen du hirugarren astea arte. Lehenbiziko lumak hazitakoan, artean jaiotzatik lau egun baizik ez direla igaro, kumeak hegalei eragiten hasten dira, tartsoen gainean sendo finkaturik daudela.

Bi aste dituztela, habiatik irten daitezke eta landareetan murgildu, eta hainbat egun geroago beren kabuz jan ditzakete gurasoek ekarritako harrapakinek; izan ere, hirugarren asterako emea arrarekin batera aritzen da ehizan. 30-35 bat egun igarota, behin betiko uzten dute habia. Txitoen hazkuntza hasten den unetik beretik arrak lehenengo eta bi gurasoek gogotsu defendatzen dute habia etsaien erasoetatik, dela habia ganetik hegan ibili eta garrasi eginez, dela talai batean kokatu eta garrasi eginez isatsari gora eta behera eragiten dioten artean.



muturreko lurraldeetaraino. Euskal Herrian, Cantabria mendilerroan bizi da, hain zuzen ere Pipaón eta Bernedo birtarke mendiegietan; lurralde horietan mirotz urdinarekin batera bizi da. Kantaunialdeko mendialdean bizi da. Hala ere, Arabako Errioxan ez da ageri, ez baitago aski zuhaitz ez hezetasunik. Atlantikoaldea, Bizkaian eta Gipuzkoan, zuhaitz gutxioko hegi eta muinoetan ibiltzen da, eta baso berrietan ere bai, sasiz eta otez inguratutako pinu gazteen artean. Gipuzkoan Bizkaian baino ugariagoa da eta hobeto banaturik dago; hiru lurraldeetan zenbait da 190-146 bat bikoteak egiten dituztela habia. Mirotz zuria oso erra eza gutzen da landa zabaletan hegaz dabilela, taxuera luzanga eta liraina baitu. Gehienak kantaunialdeko barrualdean bizi dira (%63), alde atlantikoan bikoteen %31 bizi dira eta alde mediterranean %6.



Sarkinak ohar-mezu horiek aintzat hartzen ez baditu, mirotz zuria ez du dudarik egiten eta zuzenean oldartzen zaio, emea batez ere, honetan arra baino suminkorragoa baita. Gure basoetatik gazteek migratzen dute lehenengo, Europako toki gehienetan bezala eta Siberiakoez ez bezala. Bakarrik migratzen dute. Negua igaroko duten lurraldera iristen direnean, egunez ehizan aritzen dira eta gauzez elkarrelaro bilzen dira lo egiteko, batzuetan talde handietan gainera.

**ELIKADURA:** mirotz zuria harrapakin maizena lurgaineko ugaztan txikiak (ursaguak, karraskariak, satsi-txikiak) eta txori txikiak (hegababak, kurturloak) dira, lurgaineko animalietan espezializatuta dago eta. Halaber, limoelako hegaziak ere ehizatzen ditu: txirriak, hegaberak, lertxuntxoak.

**HABITATA:** Euskal Herriko landetako sastraka eta iratzen gainean bi metro eskaseko altueran hegaka, gris hauskara koloreko harrapari eder bat, zeru urdin zilarkaran nekez ikusten dela, ugaztan eta hegazi txikitari da buru-belarri; mirotz zuria da. Gure mendietan udazkenean eta udan izaten dugu. Ehizarako zein ugaltzeko eremu irekiak behar dituen espeziea da.

**HEDAPENA:** orduak eman ditzake airean nekatu gabe, beste mirotz espezie biek bezala (zingirletakoa eta urdina); mirotz zuria Lurreko alde epel eta boreal guztietan bizi da, hau da, Ipar Amerika eta Europako hainbat lurraldetan, Iberiar penintsulako iparretik hasi (Portugalgo iparraldea eta Pirinioetako erdialdea) eta Eskandinaviako iparraldeko mutur-



**MIROTZ URDINA**  
*Circus pygargus*

**NOLA EZAGUTU?** mirotz urdinaren arrek kolore grisa agertzen dute, behealdean zuritzen zaizena. Isatsa eurrez barrutik dago eta hegoek, punta beltzez amaituta, zerrenda beltza dute luma sekundarioen parean. Ezaugarri horrek eta ipurbuntxuraren habardura grisak bereizten dituzte mirotz zurian arrearangandik, bera-ekin antz handia baitute. Emeek tonu marroiak dituzte bizkarralean, marra- dura argidun sabelaldean argi- tzen zaizkien. Isats barrutia dute, eta ipurbuntxuraren tonu ilunak bereizten du mirotz zurian emearangandik.

Mirotz urdinak taxu lerdina du, bereizgarri dituela hego luze eta angelutsuak, isats luzea eta lartso lerdienak. Horrez gainera, kontuan izaten badu- gu 41 eta 46 zentimetro luze bitarteko gorputz txikia duela - bere pisua 250 eta 430 gramo bitartean dago- pentsa daiteke hegazti ahula dela, baina, egia esan, bere hegan eta ehiza egite- ko teknika bereziaren zerbiztura ditu gor- putz-atal guztiak. Harrapari hau lerratu egiten da zintziika antzean zelai eta sas- traka gainean, aldiz planeatzen, aldiz hegoei azkar eraginez eta ximista bezain azkar mugituz, galbu- ruak orraztuz, zuhaix- ka artean supituki agertu eta bere harrap- akinak ezustean hart- zeko.

**BIOLOGIA:** martxoan amaiera aldera, lehenengo mirotzak Euskal Herrira iristen direnean, arabar lautada zabalak, zelaiak eta lur irekiak izaten dira, beste urte batean, haien kulunka-hegada eta itzulginguru miragarrien lekuko. Laster eratzten dira bikoteak, hegada bete- an bereizgarri direla V ire- kiarren formako aurrealdeko irudia egiten dutelako.

Eztei-hegalaldietan, kide bik egiten dituzte zirkuluko altuera nabarmenean eta bat batean oldartzen dira behera, hegoak erdi itxita dituztela. Orduan, arrek oiherats txikiak jaulki ohi dituzte, eta emeek txistu zorrotzez erantzuten diele erori bitartean. Lurretik metro batzuetara, arrek gora egiten du berriro eta



hainbat itzulginguru egiten ditu bere ardatzean biraka, gero, hegoak erdi irekita dituzela, zenbait uhindura normalean bi- egileko bere hega-bidean. Gero, hurbil darratzen emearekin batera, gora egiten du berriro ere. Beste batzuetan, arrek behera oldartzen dira beren emeen gainera, eta hauek lur-mallatik hartzen dituzte atzaparrak agerian eta txistuek egiten. Arrak lurrean geratzen dira garrasika, emeak hegan urruntzen diren bitartean.

Eztei-hegaldiak amaitutakoan, emeak habia sinple bat egiten du lurrean belarrak, lezkek edo gramineoen zurtoi- nak erabiltza. Trebeki kamuflaturik aurki- tzen da beltz labore- sorotako galburuen artean edo larre hezeetako belar altuen artean. Bertan uzten ditu apirilaren amaieran eta maiatzaren hasieran 4 edo 5 arrautza, eguneko bat eru- ten dituenak. Arrautzak zuriak dira, baina tonu berde urdin- xka xehea agertzen dute, batzuetan marroiez orbanduta egon dai- tekeena. Txilaldiak hilabete ira- usten du gutxi gorabehera, bitxoak jaio artean, eta emea solik ardu- ratzen da eginbeharraz, arrek jaten ematen dion bitartean. Arra berandutzen bada eta goseak jota badago ere, emea ez da iri- teten habiatik harrapakin bila; arrari, berriz, bide erdira hurbiltzen zaio mokoan janaria dakarrenean.

Txioek lumaxa zuria dute jaiotze- rakoan, eta beste batez ordeztat- zen dute astebeite baino lehen; bigarren horrek helduen behin- betiko lumak eduki arte iraungo

**EGUNEKO HARRPARIAK**

die. Emea egun batzuetan baino ez dago jaiobe- rrien zain, gero arrari laguntzen baito habiara harrapakinak ekartzen, esaterako, satainak, lursa- guak, narrastiak eta intsektuak.

Txioek defentsako mekanismo bat garatu dute berezko etsaien aurka beren eboluzioan zehar. Horrela, geldideldi geratzen dira bele edo azeri bat hurreztzen zaienean, deaktatuak ez izateko moduan edo ehiztariak harrapakin fresko eta bizia eramateari utz diezaien. Baina taktika horrek ez badu balio, orduan beldurrarazten ahalgintzen dira mokoaz izugarri ireki- z eta hegoak harrotuz garrasi handiak egiten dituztela.

Txioek batera jaio ez direnez gero, egiaztiatu egin daiteke nola lamai- naren diferentziak eragi- na duen harrapakin urriko urteetan, azken jaiok diren ahukenak hiltzen baitira. Txioak heldu ondoren, irailaren eta urriaren bitartean, familia osoak migratzen du bere negu-pasako lekuetara, hots, Senegaletik Hego Afrikara eta Eki Afrikara arteko lurraldeetara. Ekialdeko populazio batzuek Indian ematen



korik. Beren arraseko hegaldia, hegaketa eta planeoen ondo- rioa, aski zaie zabalera ozeaniko handiak zeharkatzeko, itsas haize eztiaren laguntza soilaz.

**ELIKADURA:** ugaztun txikiak (lursaguak, saguak, satitsuak), narrastiak eta intsektuak.

**HABITATA:** estepak eta laborantzako lautadak dira mirotz urdinaren habitata, eta haietan bizi da lur arrasean. Eta hain zuzen ere habia lur gainean egiteko ohitura da beraren meha- txurik handiena, ez berezko etsai dituenek -azeria, katajineta, erhinudea edo korbidok- habia erraz erasotzea dutelako, beste hegazti batzuenak ez bezala eskurerrazak baitira, bai- zik eta gizakiek uztaemakinekin habien gainetik igaro eta arrau-



dute negua. Gazteak erraz bereiz daitezke orduan, emeen kolore berdintsua agertzen dutelako, hau da, gris marroikara, baina gorrixkagoak direla behealdean eta sabelalde- ko marradurarik ez dutela. Batzuetan andana ugari baina ez oso trinkoak eratzen dituzten arren, ez dira moltsotzen, bete hegazti batzuk bezala, itsasarte- tan, Bosforo edo Gibraltarko itsa- sartetan kasu, Mediterraneoan igarotzeko, ez baitute behar, hegazti planeatzaileek ez bezala, gorantz egiten laguntzeko korronte termi-



tzak zapaldu edo bitxoak hiltzen dituztela- ko. Uztalibeketa egiterakoan arreta pixka bat jarri eta, gainetik makina igaro baino lehen, habia kendu eta gero bere lekuan utzita, hegazti hauetarik asko salbatuko lirateke. Izan ere, ingurunearen babesera- ko elkarre askok kontzientziazio-kampa- niak egiten dituzte nekazarien artean, uzta biltzean esan bezala jokatzaren garrantzi- az jabe daitezen.

**HEDAPENA:** marokotik Asiako Altairaino banaturik dagoela, Europan Baltiko aldeko lurraldeetaino heltzen da, baina gutxi- z da urria epelaldean, ez baitu 60º ipar latitudea gainditzen.



**MIRU BELTZA**  
Milvus migrans

**NOLA EZAGUTU?** miru beltza tamainaertaineko harraparia da, 0,7 eta 1 kilogramo bitarteko pisua duena eta 55 eta 60 cm altuerakoa. Bere izenak adierazten duenez, luma-jai homogeneoki ilunaz hornitunik dago. Ezzagari horixe du miru gorriaren aldean bereizgarri; izan ere, miru gorriaren kolorea ugariago eta kontrastatuago da, buru argitsu da eta bular okre bizikoa, sabelaldean eta isatsan difuminatzen dena. Era berean, miru beltzaren isatsaren muxarradurak, azpitik ikusita, kolore belzkaria agertzen du; miru gorriarena, berriz, handiagoa eta zuria da, eta bere hegoek kolore bereko orbain handiak dituzten azpialdean.

Hegan agertzen duen siluetak, hego zabalak eta isats luzea bereizgarri dituenak, hegada akrobatiko eta planeatzaileerako duen gaitasun handia islatzen du. Bere moko luzeak, beste espezie batzuenak, belatzarena kasu, bezain kurbatua ez denak, haratustela jateko joerak islatzen ditu. Bere atzapar ahulek, atzazal motzez hornitunik, eta garapen eskaseko tartso eta

izterrek ere adierazten dute harrapakin indartsuak harrapatzeko oso moldaturik ez dagoela. Azkenik, arraun-luma primario eta sekundarioen garapen handiak, eta lemaen zabalak agerian jartzen dute harrapari hau hegalarri nekazina dela, baina pertsekuzio bizkorak eta pikatuak egiteko gaizki hornitua.

**BIOLOGIA:** marxoaren erdi aldera iristen dira lehenengo miru beltzak Euskal Herrira. Erraz ikus daitezke zerruan bere artazi sofiistikatuak egiten dituztenean, mirotzek soilik gainditzen baitituzte hegadaren domeinuan. Baina miru beltzak, limurketa bitartean ez ezik, urte osoan ere egiten dituzte hegada ikusgarriak. Araldian, badirudi habia egiteko eta kumaldia zaintzeko uneri ez dutela izango, hain dago bikotea hegadari emana. Bikoteak altuera handira igotzen dira eta plano biki bat eginda zuzen-behera jotzen dute zuhaitzen kukulak uki-



itzeraino. Horrela, hegada akrobatiko eta estaldura artean gertatzen da haien araldia. Harrapari honek joera du zuhaitz altuetan egindako kolonietan umatzeko, bertan kokatzen duela habia adarkadura ezkutu eta iriste zailkoetan. Batzuetan beste hegaztiren baten habia zaharraz baliatzen dira, eta landarezko materialiaz gainera (adarrak eta hostoak), basoan aurkitzen duten guztia gaineratzen diote, esaterako, paperak, trapuak, jantzikiak, ilekiak eta are harkoskorrak ere. Mirua ez da batere exijentea habiaren kokalekuari dagokionez, zuhaitz ez egonez gero, zuhaixka artean, labarretako irtenuneetan egiten baitu, eta are lurreen ere, beste erremediorik ez badu. Habiaren tamaina aldakorra izan ohi da, eta diametroaren neurria metro erditik metro batera joan daiteke. Emeak bertan eruten ditu hiru arrautza, zuri horixkak eta izpil arrexkez pikar-



datuak, batetik bestera bi edo hiru egun direla, eta bost astean zehar bitartzen ditu. Denboraldi horretan guztian arrak elikatzen dio eta eguerdian soilik, beroa denean, altxatzen dira "hankak luzatu" eta giharren maingutasuna kentzeko. Txitoak arian-arian jaiotzen dira, arrautzak errun ziren neurrian, luma-baxa grisaz jantziak, eta gurasoek etengabe elikatzen diete, azkar asko hartzen dutela pisua. Habiaren egoten diren aldian 7 aste eta erdikoa izaten da ozia-ozia, laburretarikoa dela eguneko harraparien artean. Jaiotze eta 14 egun igarota hasten zaizkie iritelen lehenengo lumoratzak, eta bi aste gerago lumaz jantzi akeri dira. Lehenengo hegadak 40 egun dituztela egiten dituzte.

Ugalketa amaitutakoan, miruak bakartasunari utzi eta taldekoi bihurtzen dira, taldeetan moltsotzen direla migratzeko. Oso las-



ter egiten dute Euskal Herrian bizi diren gainerako harraparien aldean; izan ere, abuztuaren erdialdetik bertatik, amaierara ere iritsi gabe, hasten dira afrikar kontinenterako bidean.

**ELIKADURA:** miru beltzak beste edozein harraparik baino hobeto jakin izan ditu bizitzeko erabiltzen izadiak eskaintzen dizkion baliabideak, are gizakiak gertarazitako aldaketak ere; izan ere, zaborregietako janari-hondakinak nahiz errepideetan kolpatutako animaliak hilzuten diren arrainak jaten ditu.

Miru beltzak, harrigarriro, bereziki nahiago ditu animalia gaixo edo ahulduak, ehizatzeko errazagoak, eta urlehortar txiki eta iraketsi edo omodun gazte trebatu gabeei izan ezik, ez die sekulan ere animalia heldu eta sanoei erasotzen. Ohitura horri esker izugarri



animalia hilak edo hilurrenak. Saiek bezala, ugaztun handien gorpuak eta errepideetan kolpatutako edozein animaliatxorena jaten dituzte, bertan aurkitzen dutela bere sostengueren parte on bat. Alde horretatik, trebetasunez erabili dute giza-kiaeren aurrerape-nak eskaini diete aukera, bai errepideetan, bai zaborregietan, eta bertara jotzen dute beleekin batera

onuragarria gertatzen da izadirako, hauetsen naturalari laguntzen baitio gailasun gutxieneko animaliak edo infekzio-iturri izan daitezkeen gaixoak garbituz. Izatez, hirurogeita hamarreko hamarkadan, mixomatosiak iberialar unxien hilaldia handia gertarazi zuenean, hegazi hauek neurri handi batean gelditu zuten gaixotasun horren hedapena leku askotan, azkar asko klaskatu baitzituzten

janari bila. Ibaletan arrantzale trebe agertzen dira, eta beren atzaparrez harrapatzen dituzte arrainak ur azaltetik hurbil daudenean, eta batzuetan beste harrapari batzuei eraso diete atzaparretan daramatzaten harrapa-

**EGUNEKO HARRPARIAK**



kinak lapurtzeko.

**HABITATA:** Euskal Herrian, urbater inguruko basotoak eta behe-basok dituzte habitat hobetsia, bertan aurkitzen baitu janari ugari. Alabaina, bere banaketa-lurraldearen zabalagatik, pinudietan, estepetan, labarretan, angioetan eta artelatz eta artadietan ere bizi ohi da.

**HEDAPENA:** horrelako harrapari batek banaketa-lurralde zabala agertzen du, munduko alde klimatiko guztiak biltzen dituena, salbu eta alde boreala eta desertuetakoa. Beraz, ageri da Europa osoa, Eskandinavian salbu, eta Britainia Handian, Asiako parte handi batean, Afrikan eta Australian.

Gure basoetan eta europar kontinente osoan, hegazi migratzailea da, udaberriaren eta udan soilik, ugaltzeko, bizi ohi dena. Euskal Herriari dagokionez, Araban batez ere aurkitzen da (ezpikantauriar aldean), bereziki ugari dela Ullibarri eta Urrunagako urtegiatan, Alara eta Koartangoko Aranetan eta Bayas, Zadorra eta Ebro ibaletako arroen ondoren sortzen diren basotoetan.



**MIRU GORRIA**  
*Milvus milvus*

**NOLA EZAGUTU?** 750 gramo eta 1,2 kilogramo bitarteko pisuko eta 60 eta 65 zentimetro bitarteko altuerakoa. Lepoko eta buruko lumak kolore argiagokoak ditu, eta orban zuri bereizgarria du hegoen barnealdean.

Miru beltza baino isats urkilatuagoa du eta lumaje argiago eta koloretuagoa.

**BIOLOGIA:** apirilaren erdi aldera iristen dira miru migratzaileak gure basoetara, eta orduan gertatzen dira ezteijardurak. Jarduera horietan, eguneko harrapari guztien kasuan bezala, arrak hegada-ageraldi luzeak egin ditu lurraldea markatzeko eta emesa erakarri eta limurtzeko, habia egiten hasi baino lehen. Geldikor geratu diren hegaztien lehenago egiten dute habia, zeren udaberriaren hasieran, martxoaren hasieran edo erdi alde-  
ra, eguraldi egoeraren arabera, bikoteen arteko loturak estutu eta habia egiten hasien baitira; baina bikote berriak izan ezik, gainerakoak aurreko urteetako habiak berregitara mugatzen dira. Habia kokatu ohi dute enborraren eta lurretik altuera onean dagoen adar mardul baten sorreraren artean, eta belarrez, lurretik hartzen dituen adar ihartuez edo erdi ihartuez, eta miru beltza bere senideak egiten duen bezala, landatik aurkitzen duen guztiaz egiten du: trapaak, tabako kartoiak, plastikoa...; itxura baldar eta aldi berean bitxia hartzen duela.



Emeek bi arrautza errun ohi dituzte, baina batzuetan bitxo bat bakarra ere izaten da abian, normalean emea lehenbiko aldiz parekatzen denean, eta inoiz hiru arrautza ere erruten dituzte; arrautzak zurixkak dira eta izpil marroikara ugari dituzte. Inkubazioa emearen kontura doa, 15 eta 35 minutu bitarteko aldibopoetan izan ezik, hauek bere kideak ordezkatzen baitu. Txitaldia lehenengo arrautza errutesekin batera hasten da eta hilabete irauten du (30-32 egun). Alabaina, arrautza bakoitza hiru eguneko tartean erruten du, eta beraz, hiru arrautza erruten dituenen, txitaldiak 36-38 bat egun irauten du. Arrak emearentzat ehizatzen du; janaria ugari bada, habia ondoan jarrita geratzen da askotan, lurraldea defendatzeko, eta aldiari-aldiari habia gainetik hegaldatzen da. Txitoak jaino ondoren, amak zaintzen ditu arduraz handiarekin: berotu eta janaria ematen die eta bi astetan ez du habiatik zirikirik egiten. Lumak garatzen dituzten neurrian, arrarekin batera joaten da janari bila. Miru gorri gazteak 6 aste eta hiru egun inguru egoten dira habian, baina hegana egiten ikasi dituenen beste egun batzuetan geratzen dira habiaren inguruetan, eta bertan elikatzen dira gurasoek habiara eramaten dizkieten harrapakinez. Bi hilabete dituztenerako hegana egiteko teknikak menderatzen dituzte



eta habiatik urruntzen dira, gurasoek ez baitiele janari gehiagorik ematen.

**ELIKADURA ETA EHIZA TEKNIKAK:** lamaina ertaineko harrapari honek basos behar du habia egiteko eta jarduerarik gabeko orduetan atseiden egiteko. Baina zuhaitzik gabeko eta sastraka ugario zelai eta zaskardietan bilatzen du elikagaia. Miru gorria goiztiarra da bere eguneroko jarduerari ekiten. Eguzkiak landa argitzen hasi orduko, uzten du bere etzalekua hegada astunaz, ia altxatu gabe, eta ehiza-lurraldeetara jotzen du. Bertara iritsi orduko, patxadaz aztertzen du lurraldea, lurretik metro gutxitara hegana eginez eta planeatuz, eta bat-bateko norabide aldaketak egiten ditu, bere isats luze eta adarkatuari esker haizearen joera guztiz ongi kontrolatzen baitu. Miruaren ehiza-teknikarik ohikoenetakoa da planeo zirkularak edo lerro



**EGUNEKO HARRPARIAK**



zuzenean egitea bere ehiza-lurraldearen gainean, altuera txiki nahi handian, eta harrapakin bat ikusi bezain laster zuzen-behera jotzen du berarengana, atzaparrak gultzit eta aurrerantz irekitu dituela, harrapatzeko asmoz. Harrapatzeko duen trebetasuna beste espezie batzuen baino askoz ere txikiagoa izan ohi da; izan ere, asko dira, ustekabeen ez harrapatu



ezkerro, ihes egiten zaizkion harrapakinak, trebea ez baita atzetik jarrailzen, nahiz eta lehenengo umean oso azkarrak izan. Baina beti ez doa janari bila; batzuetan egonarriz geratzen da zelatan zuhaitz batean jarrita, karraskari edo hegaztibxo bat noiz agertuko zain; batzuetan, belean atzetik ere ikusi dira, hankartearen daramaten harastela lapurtzeko, zeren miru gorriak, bere senide beltzak bezala, eklektizismo handia agertzen baitu alde honek, oso diela antziz duela: urlehortarrak, narrastiak, insektuak, hegaztiak, ugaztun txikiak eta arrinak eta haratustelak. Erdiko Europan bizi diren populazioek ez bezala, microtus generoko karraskariak, lursaguak eta arratoiak baitituzte dietaren oinarri, gure basoetan narrastiek eta insektuek osatzen dute gehienbat miru gorriaren dieta. Bere dietaren aniztasun handiak aditzera ematen du ehiztari gutxi espezializatua dela, eta, beraz, hizkera naturalistan, oportunitate frofikatuz jo daiteke.

**HEDAPENA:** Washingtongo Itunaren I. eranskinean sartuta, banaturik dago gaur egun Afrikako iparraldean, Europako hego erdialdean eta Turkian; baina XIX. mendera arte bizirik iraun zuen Austria, Hungaria, Polonia, Norvegia, Danimarka eta Britainiar Uharteetan -azken herrialde horietako erdi aroko hiri eta herrietan bizi izan zen 1800. urtera arte, kaleetatik sakabanaturik zeuden hondakinez eta haratustelez elikatuta-. Gaur egun bikote batzuk soilik bizirik diraute Galizeko Herrian. Kanariar uhartean ere bizi da



populazio txiki bat. Europa osoan jasaten duen atzeraldiaren arrazoiak berdintsuak dira bere kasuan eta gainerako harraparien kasuan: habitaten suntsipena, ehiztari eta pestiziden eragina, gizakiak haren lurraldean gertatzen dituen nekaldiak...

**KALKULATUTAKO POPULAZIOA:** ituruz miru beltzaren antzerakoa dugu miru gorria, baina handixeagoa eta lumaje argiago eta gorrixkagoa duela. Espezie zaurgarritzat jotzen da Euskal Herriko Espezie Mehatatuaren Katalogoan, atzeraldi etengabean dagoela. Munduan galzori larrienean dauden 43 espezieen zerrendaren barruan katalogaturik dago, eta beraz iraungipen bidean, Hegaztien Babeserako Nazioarteko Kontseiluaren iritziazen arabera.

Euskal Herrian, Gorbeian ikus daiteke inoiz hegana, eta Gipuzkoako Aralar mendizerran, baina ez da habiarik jaso. Arabar lurraldean bizi dira 30 bikote habiagileak, okupatzen dituztela uren mugaleroko mendizerrak eta hegaldetako mazelak. Gasteizko Mendiak, Iruñeta-Entzia mendizerrak eta arabar Aranetako eskualdeetako hainbat leku. Iberiar penintsulari dago-kionez, kalkulatzen denez, 3.500 bikote bizi dira iparraldeko mesetan eta sistema zentrallean. Europako populazioa 17.000 eta 30.000 bikote bitartean dago. Zalanztan gabe, hegazti hau dugu Euskadiko ornitofaunaren bitxietako bat. Euskadin bizi diren miru gorrietarik gehienak migratzaileak dira, ipar Europan bizi direnak bezala. Alabaina, zenbait populazioz Iberiar penintsulan egiten dute negupasa.



**ZAPELATZ ARRUNTA**  
Buteo buteo

**NOLA EZAGUTU?** zapelatz arrunta dugu tamaina erlatiboko harrariparia 0,6 eta 1,3 kilogramo bitarteko pisuko eta 51 eta 96 zentimetro bitarteko altuerakoa, lumaje arre marroikara duena, miru gorriarenaren oso antzerakoa; tamaina berdineko tartsoak ditu, luzeak-edo eta biluziak, baina, hark ez bezala, hego zabalak eta profila bigunagoak ditu, eta profila biribileko isatsa.

**BIOLOGIA:** harrariparia honek guztiz ongi menperatzen du hegan egiteko teknika, eta eguzkiak lurra berotu ahala eratzen diren korronte termikoak eskerrak plano luzeak egiten ditu altuera handian, zirkulu zabalak eginez; aldian behin, plano horiei utzi eta zuzen-behera olatartzen da, hegoak itxita, abiadura handian jaitziz metro batzuk beharago, eta posizio horizontal jarraitzen du bere plano zirkular patxadatsuan.

Airean duen poderio hori gorabehera, neguaren amaieran zapelatz arruntak sartzen diren hasten dira benetako agerraldiak. Garai ludiko horretan, bikoteko kideak bata bestearen atzetik doaz hegada azkar eta zuzen-beherako olatarraldietan, lidaxkak marraztuz zenu urdinaren kontra, nahiz eta habia egiteko jarduerari zenbait aste geroago ekin. Batzuetan, aurreko urteetan egindako habiaz baliatzen dira, material berriak ekariz soilik berriztatzen dituela. Beste batzuetan, agian etzaleku narriatuegi dagoelako edo lehengo ugalketara gairan nekaraziki izan zirela gogoratzen dutelako, beste habia berri bat egitea nahiago dute. Orain, habia egiterakoan "ahaleginik gutxienez lezea" aplikatzen saiatzen den arren, ez ditu sekulan ere erabiltzen beste hegazti batzuek egindako habiak, esaterako, korbiñoak.

Habia eratzen du adarrez, azalez eta hosto berdez osaturiko plataformara batek, zuhaitzen baten adarkadura mardularen gainean finkatzen dena. Beti jartzen dute 5 metroatik gorago altueran, eta 9 edo 10 metrotara irits daiteke, horretarako baldintzak egonez gero.

Etzalekuaren erdialdea normalean goroldioez eta lumatzez estaltua dago. Zapelatzak ugaltzeko gai dira urtea bete dutenean, baina heldutasun sexualera iritsiak diren hegazti gazteak, leku egokirik edo bikote-kiderik aurkitzen ez badute, espeziea ugalduta gabe geratzen dira urte horretan. Izatez, ez da harrigarria habiagintza



gariaian hegazti bakartik ikusteak. Ezteialdia eta estaldurak amaitutakoan, emeak 2 edo 3 arrautza eruten ditu -batzuetan 5eraino-, oso berde argitsuak eta izpil arre biziak edo dituztenak.

Bikoteko kide biek esku hartzen dute inkubazioan -kasu arraroa gure harrariparien artean, emea baita ia beti zeregin horretaz arduratzen dena-, baina emeak dira jarduera horren parte handiena egiten dutenak. Inkubazioaren iraunaldia hilabete batekoa izaten da, gutxi gorabehera, eguraldia nolakoa den. Gizakiak edo animalariaren batek habiari eraso eta txitaldia galtzen bada, bigarren errute bat egin ohi dute luzaro gabe -15 egunetik 20lara bitartean-. Hain zuzen ere, zapelatzaren habiagintza berankorrak bigarrenezko errunaldiatarako izan ohi dira, lehenengoak galdu zelako.

Gainerako harrariparien kasuan gertatzen den bezala, bitoek ezan-erazarian jaiotzen dira, arrautza jari zen datoren arabera. Txitoen lehenengo bizi-egunetan alta da janari bila doana, eta habiara eramaten du bere kidea harrapakina zati-zati eginda txitoei jaten eman diezaien. Txitoak beren kabuz elikatzen gail ez diren bitartean emeak ez du habia uzten arrari ehizan laguntzeko, baina beren kabuz harrapakinak jateko gai izan orduko, arra eta emea aritzen dira jo eta ke janaria "etxera" eramaten, eta bertan uzten dute banatu gabe. Txito handienek hartzen dituzte zatirik onenak, eta gainerakoak uzten dituzte txikiak, horrek esan nahi du, eskasiako urteetan, bitaldi ugaria bada edo 3 edo 4 txitok osatu bada, azken jaiotako biak hil ohi direla. Arrautzen eklosioa gertatu eta 42 edo 44 egun igarota, gazteek, lumaz beterik, habia utzi eta



lehenengo hegadak egiten dituzte adar eta zuhaitz hurbilan artean.

Heidu gabe daudenak habia ondoan geratzen dira zenbait astetan, gurasoek elikatzen dietela, barreiatu eta ehiza-lurralde bila jo arte.

**ELIKADURA:** Europako iparraldean bizi diren zapelatzek ugaztunak batez ere jaten dituzte, bere dietaren %70 eta 90 bitarte-



an, hegaztiak eta narrastiak haien dietaren %10 eta 30 bitartean daude; Mediterraneoko aldean eta Espainiako hegoaldean bizi direnek, ordea, intsektuak eta narrastiak dituzte beren dietaren oinarri (%87raino), egindako elikadurari buruzko azterlanen arabera.

Portzanteja hori Euskal Herrian din ez da hain altua; izan ere, ugaztunek osatzen dute haien elikaduraren %55-60, eta intsektuek, hegaztiak eta narrastiek, berriz, %40-45. Harrapakinak atzemateko, zapelatzek altuera baxuan planeatu ohi dute larre eta lur ireki edo zuhaiak urriko lurren gainean, suplatan agertu eta ezustean harrapatzeko eta, horrela, ihesaren aukera mugatzeko. Belatzak bezala, airean geldu daiteke hegoak astinduz haizearekin batera, landareltzari adidi begira izaki bizidunen batek sortutako mugimendurik gertatzen ote den. Batzuetan haliz batean edo adar garai batean luzaro jarrita egoten dira, lurraldea ikusteko parada ematen dien maldak baten goialdetik, harrapakin bat noiz agertuko zain. Zelata-ehiza hori oso onuragarria izan ohi zaie.

**HABITATA:** mota guztietako basoetan aurki daiteke, baina ugariagoa izaten da arboladiak eta eremu irekiak tarteaturik dituzten lurraldeetan.

**HEDAPENA:** bere espezializazio ezari esker, kolonizatu ahal izan du iparraldeko, epelaldeko eta Mediterraneoko aldea Europa osoa, ageri dagoela Finlandiatik ipar Afrikara, eta Asiatik parte batean.

Lurralde-banaketa zabalaren animala gehienak bezala, Afrikako iparraldean bizi diren zapelatz arruntak ez dira Kaukasoen bizi diren berdinberdinak, halako aniztasun morfologiko bat garatu baitute, bereziki lumajearen koloreei dagokienez; horrela hainbat subespezie bereizten dira, horietarik hiru Europan bizi direla. Gure basoetako zapelatzak Buteo buteo buteo subespeziearen barruan katalogaturik daude, mendebaleko Europa osoan eta Britainiar Uharteetan ere bizi direla. *Buteo buteo vulpinus* izeneko subespezia, zapelatz arrunt siberiarra ere ditzen



**EGUNEKO HARRPARIAK**

zaiona, Ekialdeko Europatik Siberiaraino hedatzen da, eta hirugarren subespezia, Kaukasoko zapelatz arrunta, Buteo buteo menestrii izeneko. Anatoliako penintsulan eta Kaukasoen soilik bizi da.

Lumajearen koloretan ez ezik, subespezia hurek migrazio portearan ere bereizten dira elkarrengandik.

**KALKULATUTAKO POPULAZIOA:** zapelatz arrunta dugu, belatz gorriarekin batera, gure basoetako harraripari ugariena, beroko harraripari ugariena, bere populazioa Europako iparraldetik urtaro desfaboragarri hori ematera datozen zapelatz migratzaileekin.

Euskal Herriko Parke Natural guztietan ageri da harraripari hau, hosto erorkorren nahiz koniferen basoetan, eta harkaitzietan ere; baina janari bilaketa etengabeak espazio irekiak aldaztera ere eramaten du, esaterako, zazkardiara, zuhaitzidun landazabaletera... Arrunt da atlantiar aldean (Bizkaia eta Gipuzkoa), Arabako ipar erdialdean dela ugariena, bertan 215 bikote bizi direla. Kalkulatzen denez, Euskadiko guztirako

populazioa 500 eta 600 bikote bitartean dago. Iberiar penintsulan kopurua 15.000ra iristen da eta Europan 740.000tara (horietarik erdiak Erusian bizi dira).

Europako harraripari gehien populazioak larriki gutxitu dira azken hamarkadotan, baina, horiek ez bezala, zapelatzak indize onargarriak eutsi die europar kontinente osoan, pertsekuzio anker eta bortitzaren aldi bat jasan ondoren, eta, ondorioz, harraripari arruntetako bilakatu da. Hegazti gutxi espezializatua izatea, janari motari nahiz habitatarri dagokienez, aukera eman dio gizakiaren presioa beste edozeinek baino hobeto jasateko, baina, hori bai, kalte egin diote pestiziduen eragin galgariak, basoen suntsipenak edo bere harrapakinak diren animala basatien gutxieketak, hots, intsektuak, karraskariak, hegaztiak, urlehortarrak eta narrastiak.





**GABIRAI**  
Accipiter nisus

**NOLA EZAGUTU?** adarrak benetako iraxoa den gabiraia, egia esan, miniaturazko aztoea da. Alabaina, baiditu ezagun berezigarri batzuk, esaterako, begi horiak, bere ahale nagusiarenak laranja kolorekoak diren bitartean; gabirai arren kasuan, gainera, kolore laranja nabarmena dute sabelaldean, aztoe arrek ez dutena. Halaber, xeheagoak eta hanka-luzeagoak dira, hanketan behatz izugarri luze eta finak dituztela, baina behatz hauek, izatez, beren elikatze-erregimenari moldatzearen ondorioz dira, basoko txoritxoetan batez ere oinarritzen baita. Beren tamaina 28 eta 30 cm bitartean dago eta beren pisua 140 eta 320 gramo bitartean; aztoea, ordea, 1.200 gramolara iristen da.



satu ohi da, arrak emea estaltzen du eta ondoren hegada-agerraldiarekin jarraitzen dute.

Gabiraiek leku berberetan egin ohi dute habia urtean-urtean. Oro har, inguruak zaindu ahal izateko moduko lekuak izaten dira; beraz, zuhaitzetako solguneak edo mendi-mugelako erizak aukeratzen dituzte. Aztoeak ez bezala, ez ditu basoko lekuri ezkutuenak aukeratu.



Batzuetan, bikote batek habia bat baino gehiago dauka, emeak gutiz egina edo mika edo bele batena izan baina bertan behera utzia izan daitekeena. Horrela, harrapari edo honek handitu eta berriztatzen du.

Hala ere, hegazti hauek halako hobespene agertzen dute habia halako altuera batean eta ia enborrari itsatsita kokatzeko, ikusgaitzagoak gerta daitezten. Aztoeen bikoteek habia elkarrekin egiten badute, gabiraia kasuan zeregin hori emeen ardurakoa da soil-soilik, eta habia egitea amaitu dutenean ez dute hosto eta adar berdeez estaltzen, baizik eta adar ihartuekin prestatunik uzten dutela.

Estaldura gertatu ondoren, emeek 2 eta 6 arrautzako bitaldiak gertatu diren arren, ohikoena da 4 edo 5ekoak izatea, tamaina ertainekoak, 39 x 31 milimetro ingurukoak.

Arrautza bakoitza bi eguneko tartean erruten da, eta, ondorioz, agerikoak dira bitoen arteko adin-diferentziak, nabariagoak direla familia ugartagoa izan ahal.

Harrigarriro, inkubazioaren iraunaldia, 35 eguneko aztoearena baino nahikoa laburragoa, izugarri luzea da halako tamainako hegazti batentzat; izan ere, naturan lege da zenbat eta txikiagoa izan hegazti hainbat eta txikiagoa dela arrautzen bitaldia.

Denboraldi horretan emea ia ez da habiatik mugitzen.



**EGUNEKO HARRPARI**

Txiloak jaino eta hiru aste bete artean, arrak hartzen du familia osoari elikatzearen ardura, salbu eta harrapakin-eskasiako urtea izan eta emea itelera beharturik egon. Geroztik, emea arrarekin batera iristen da ehizan, kumaldi elikatzeko.

Lau aste dituztela hasten dira txiloak habiatik kanpo ibiltzen. Hasieran, habiatik hurbileko adarretan soilik ibiltzen ausartzen dira, baina laster asko hasten dira inguruko zuhaitz eta zuhaixketara hegan egiten, eta bertan ixkaroten dituzte gurasoak, janaria hartzeko zain. Bi aste eta erdian lagun egiten diele gurasoei ehizan, eta basoko txoritxoak eta karraskariak itsumustuan harrapitzen eta altxo-maten kasten dute. Gero, gurasoek ardura kenduko diete eta beren buruz bilatu beharko dute janaria; hasieran gurasoen lurraldean bertan, eta, gero, lurralde berrietan.

Ipar Europako hegaztiak Afrikara migratzen dute neguan -batzuk Iberiar penintsulan geratzen dira-, baina Euskal Herrian bizi direnek, aztoeak bezala, ez dute kontinente beltz handiaren deia sentitzen.

**ELIKADURA:** harrapari honen dietari buruz egin-dako azterlanek adierazten ematen dutenez, txilarrak jaten ditu batez ere -%40raimo- Hortik dator, hain zuzen ere, bere ingulerazko izena: "sparrow hawk", txilarrak-aztoea adiera duena. Halako hegazti txiki bikoekiko dependentzia areagotu egiten da neguan batez ere; izan ere, sasoi horretan, harrapakin eskasia dela eta, begirada sakoneko harraparia landagune inguruko basotoetara ibili behar da. Biragarro aruntak ditu, txilarraren ondoren, harrapakin nahienak, eta gero, txontak, hegatzabalak, berdantzak, kaskabeltzak, txinboak eta txantxangorriak. Bartzuetan, goseak jotzen duenean, basasaguak, lursaguak eta katagorren bat harrapatzten ditu.

Harrapari hauek teknika batzuk erabiltzen dituzte beren harrapakinak atzemateko; horien artean ditugu basoko solguneetan edo txoritxoak daudeneko zuhaixketan itsumustuan agertzea,



eta zelatan ehizatzea. Azken taktika hori burutzeko, hegazti harraparia geldirik geratzen da ikuspegi bikaineko leku batean, basoan zer gertatzen den arakatu eta edozein mugimendu susmagarri kontrolatu ahal izateko moduan. Sistema horretaz ballatzen dira batez ere udaren hasieran, oso onuragarria gertatzen baitaie habia utzi berri duten bitlo trebatu gabe eta usletsuekin.

Aztoeak bezala, zail-zail egin eta kontsumitu ohi dituzte beren harrapakinak leku garaietan.

Askotan, gabiraia ibilera handiak egiten ditu hegada biko eta baxuan, harrapakin ikusten ez bada ere; badaki edonon ager daitekeela eta nahikoa duela azken unean ikustea, zeren bere abiadura handiari eta maniobra egite-



ko gaitasun handiari esker, segundo gutxitan norabideaz aldatu eta harrapa baitezake.

Ehiza-hegaldian dagoenean oso altuera baxuan dabil, landare-tza eta gora-beheretan (montorak, harrasiak,...) ezkutatuak, animaliak edateko edo jateko bisitatu ohi dituzten lekuak arakatu, esaterako, iturburuak edo baso masustez edo baiezt beteriko sasiarteak.

**HABITATA:** zuhaitzak dituzten edozein motatako eremuetan bizi da, baina nahigoa izaten ditu gizakien eraginetik urrun dauden baso helduak.

**HEDAPENA:** mundu-mailan, espezie hau palearktiko da, klima-alde borealetatik Europako, Asiako mediterraniar aldeetara eta Afrikako ipar-mendebaldeetara hedatzen dena.



**AZTOREA**  
Accipiter gentilis

**NOLA EZAGUTU?** Tamaina ertaineko harraparia dugu aztoerea, 50 eta 60 zentimetro bitarteko luzera eta 700 eta 1.200 gramo bitarteko pisua dituena, arren kasuan, eta kilogramo erdiko emeen kasuan.

Bere lumajearen ibura nahastezina da, basoan kamuflatzeko diseinaturiko jantzia da. Sabelalde eta hegoen azpialdea zizareantze-ko pikardadura beltzez jantzia daude hondo gris perlarren gainean, nagusi duela azken kolore hori beren anatomian, ezartirik isatseraino, burua eta bizkarra marroi ilunagoz dituela.

Isatsaren sorreran lumamotto handia du, baina hori ez da nortasun handiena ematen diona; izan ere, bere nortasuna ematen diote iris gorri-min edo laranja-berde begiek eta bere moko eta atzaparrek, proportzioz, handienak baitira harrapari guztien artean. Ehizaren zeregin zailerrako diseinatu da bere morfologia. Horrela, oso ikusmen zorrotza du, azelerazio-ahalmen izugarria, oratzeko sistema eraginkorra eta, batez ere, maniobratzeko gaitasun balere arruntia, izan ere, gauza da 100 km/orduko abiaduran hegaldatzeko eta eragozpenak oso distantzia laburretan gainditzeko, basoko entornen arteko leku meharretan leratzeko, eskuin eta ezkerrean jotzeko enbor baten aurka talka egin baino metro bat lehenago, zuhaitzen kulkan gainetik batean altxatzeko edo lurrairen kontra trebetasun handiaz iltzatzeko, bere iltzezko abiadura gelditzen duela segundo batean. Eta hori guztia, bere hego labur eta biribilduen egitura berezian eta bere isats luze eta lemiari esker.

**BIOLOGIA:** gure basoetan bizi diren aztoere urriak araldian sartzen dira otsailaren hasieran, eta bikoteak egiten hasten dira arrak dei ozenak jauritzen dituztenean, hainbat kilometrotarik urrun entzun daitezkeenak. Emea, bere bizimodu eratsua uzteko agertzen da eta, orduan, bikoteko kide biek habia bat edo batzuk egiteari ekin diote geroko "etxeko buru" izango denaren lurraldean.

Normalaen korbidoek egindako habiak erabiltzen dituzte, habia horiek handitza mugatzen direla. Goian eta zuhaitzen enborri isatsita dauden habiak aukeratu ohi dituzte, batez ere basoko lekuri ezkutuen eta hurbilgaitzenetan daudenak.

Oso aldakorra da habiaren adarrezko plataformaren tamaina, eta handituz doa urteekin; izan ere, harrapari hauek leku berberetan egin ohi dute habia, metro 1eko lodierara eta ia bi metroko diametroa iristen diren etzelakuek eginez. Lurralde baten barruan habia batzuk egiteko duten ohiharaz baliatzen dira erremateen sasioaurreko galerak



gertatzerako; halaber, txandakako sistema gisa erabiltzen dute bitaldiairen arrakastarako kokalekuri onena zein den jakiteko.

Habiagintzako jardura bitartean ezleialdiak jarraitzen du, pertsekuzio ugari egiten dituztela zuhaitzen adarren artean eta hegaldari zirkular luzeak basoaren gainetik, altuera handietara igotzen direla, eta handik jaisten direla berriro ere errotuala erreplikatzeko, elkarketa inisi arte; orduan, arra ehi-zan iriten da eta harrapakinak opatzen dizkio habia inguruetan zain dagoen bere kideari.

Habiagintzaren iraunaldia hilaibetik gorakoa izan daiteke, eta, bitartean, estaldurak ia egunero gertatzen dira.



Habia prestatzeko azken etapen, eumez estaltzen dute zurtoin berde bakiak, zeregin hori oso garrantzitsua dela hegazti hauentzat, ez direla gelditzen txitoak hegan egiteko zorian egon arte.

Horrela lortzen duten habiaren garbitasuna eta higieena nabarmena da; izan ere, asko dira estalkiaren berritzapen etengabeen ezkuturik geratzen diren harrapakin hondakinak.

Bi egunez behin emeak arrautza bat eruten du, eta erutea amaitutakoan inkubazioari ekiten dio, 35 eta 40 egun bitartean diraue-la. Ez du zeregin hori uzten, ez bada arrak dakartzan harrapakinenez inguruetan elikatzeko, eta inoizkako bainuak hartzeko, une horretan arrak hartzen duela haren lekua.

Txitoak jaitzen direnean, amak estali eta jaten ematen die berak egindako harrapakin zatiez. Lehenengo lumatxa hauskara aldatzen dute 8 edo 10 egun igarotakoan beste zurri batez, eta hau, bertz, arian-arian ordezkatzeko dute luma estalgarriekin hiruagaren bizi-astetik aurrera. Elikadura ugariar esker, hegazti gazteak azkar asko hazten dira. Hilaibete bat igarota ekiten diete



**EGUNEKO HARRPARIAK**

lehenengo hegadei, baina habiatik oso urrun ibili gabe. Oraindik ez dira beren buruz elikatzeko gai, eta gurasoek jaten ematen jarraitzen diete gazteek eurek, hilaibetea dutela, zati-zati egiten dituzten harrapakinenez. Airean lehenengo hegada-saioak egin orduko, amak ehizan egiten irakasten die, eta harrapakin zaurituak eramaten dizkie bitok jarraiki diezaizen eta hil ditzaten. Astebetean saioak egin ondoren, familiak ekiten die lehenengo egiazko ehizal-diei.

Uda hasi da basoan eta harrapakin trebatu gabeak -hegazti gazteak eta ugaztunak- ugari dira, geroko aire-ehiztariak errazago dutela lehenengo ehiza-saioak egitea. Familiakokierik abuztura arte irauten dute, baina une horretatik aurrera, helduek lurraldea uztera behartzen dituzte kumeak, eta hauek bizimodu ibiltari bati ekiten diote hurrengo uadaren eta neguan.

Egoera arruntetan aztoerek bi urte eduki arte umatzen ez badute ere, askok bikote egiten dute, heldu batekin oro har, urtea bete gabe; horren arrazoa dugu espeziearen beherakada handia eta beren ugaltzeko gaitasuna. Oso sasoiareko aldia da kontuan hartzen badugu beren bizitza nabarmenki luzea; izan ere, hegazti batzuk 17 urterara iristen dira.

**ELIKADURA:** hegazti baten elikadura beharizana 160 eta 180 gramo haragi bitartean dago eguneko.

Eguneko harrapari hau, basoetan ehiza egitea moldatuenetakoa dena, zuhaitzetako gaindegietan jarri ohi da bere feudoko lurralde zabalak menperatzeko. Hala, jarrera pribilegiatu horretatik eroka-bazterretara begiratzen du, bertan ugari baitira ur-amatoiak, edo basoko solingueletara, bertatik joaten baitira jatera hegazti alejalek edo untxiak. Jaki horietako bat ikusten badu, abiadura handian oldartzen zaio, heldu eta azkar asko hiltzeraino. Eta goseak jotzen duenean, aztoerek arpilatu egiten



geratu ohi da hainbat egunetan, goseaz asebate eta gero.

Batzuetan lur zabalerak kumitzen dituzte abiadura handian, biktima, izuak jota, bere aurrean agertu arte.

**HABITATA:** hegazti geldikorra dugu aztoerea gure basoetan. Mila metrotik gora umatzen duten populazioetako gazteak soilik aldatzen dira lurralde batzuetatik besteetara lurralde propio batean finkatu arte.

Beren ehiza-lurraldeak 7 kilometroko diametroa izan ohi du, baina neguan, harrapakin urritasunagatik, feudo horiek askoz ere handiagoak izaten dira.

zuhaitzak dituzten edozein motakoa eremuetan bizi da, baina nahia izaten dituzte gizakien eraginetik urrun dauden baso helduak.

**HEDAPENA:** aztoerea basorako jaioa da, hosto galko-zuhaitzetako gaindegietan jarri ohi da bere feudoko lurralde zabalak menperatzeko. Eurasian eta Iparramerikan banaturik dago. Bere presentzia ugariak subespezietan asko gertatzen ditu, elkarrengandik beren tamainagatik batez ere bereizten direnak. Europan 6 subespezietan bizi dira, klimatologia ezberdinetara moldatuak. Horrela, aztoere ipartarra, taigan bizi dena, oso galanta da, gure basoetan bizi den aztoere iberiarra, ordea, laurden bat txikiagoa da.



**SAI ARREA**  
*Gyps fulvus*

**NOLA EZAGUTU?** Sai arrearen anatomian bereizgarri dira buru eta lepo lumarik gabekoak, kremata kolorezko lumarik motz batez estalitaik baina. Gorputzaren gainerakoan lumariek kolore marroia agertzen du, lehoiak duenaren antzerakoa, hortik bere izen arunta, bizi den harkaitzietan ikusia ez izateko ballagarri zaiona.

Lepo oinean, sorbaldak gainean, luma zuri ugari ateratzen zaizkio, idunek gisa, eta papar gainean bi soilune edo lumarik gabeko alde ditu, kolore gorri, urdin eta zuri bizkoak, hegaztiak nahita agerian jartzen dituenak generokideei bere emozio goeroa erakusteko.

Hego luze-zabalen puntetako lumarik, primarioak, bixirik gabekoak eta beltzak dira, hego-erpin biribildua eratzten dutela. Isats iluna laburra eta karrotua da. Sai aruntaren luzera 97 eta 104 cm bitartean dago eta bere pisua 6,5 eta 8 kilo bitartean. Harrapari hau interes bereizkotzat jotzen da Euskal Herriko Espezie Mehaztulen Katalogoan.

**BIOLOGIA:** horiztaren iragarle honen izaera eguargilara azalartzen da horizontetik lehenengo argi-izpiak ageri orduko. Orduan, hegazti hauek, hego-muturretik muturrera 2 metro eta erdikit gora zabal, Euskal Herrian bizi diren handienak, 7,5 kilogramo pisura iristen direnak, gaua eman duten labarrak utzi eta zeru urdinera albatzen dira kiribil handiak eginez, haize-boladez bialiatuta, haratustel bila joateko.

Urte askotan inñiz zen sai arreek gorpuak aurkitzen zituztela usamenaz bialiatutik, amerikar kide batzuek, auzo izenekoa kasu, kontinente horretako hegoaldeko olinanetan egiten duten bezalaxe. Baina 1964an, Kenneth Stager naturalistak, sai amerikar horri buruz azterlan zehatzak egin ondoren, frogatu zenez, sai amerikar zen usaimena garaturik zeukan hegazti gutxietakoa. Izan ere, gero, europar saiei buruz egindako azterlanek agerian jarri dute espezie honen usaimena oso txikia dela eta, beraz, ez direla horretaz bialiatzen harrapakinak aurkitzeko, baizik eta beren ikusmen izugarri zorrotza erabilizten dutela.

Horrez gainera, halako portaera sozial berezi bat agertzen dute: eragin-aldeak banalantzen dituzte bakoitzak ikuslearen egokia egiteko, eta koloniano kideen arteko ikusizko kontaktuari eusten diote gorpu erraz aurkitu ahal izateko moduan.

Oro har, beleeak eta mikak izan ohi dira abere hilak aurkitzen lehenak, eta saiak sarraskijale txiki horien kontzentrazioei behatzera mugatzen dira jakia zehazki non dagoen delectatzeko. Janaria aurkitutakoan zuzen-behera oldartzen dira, eta zirkulu batzuk egin eta gero, piezatik halako distantzia batera pausatzen dira. Bere lumeratze moduak sai-tegielan dauden beste banako batzuk erakartzen ditu. Era horretan, oso denbora gutxi-tan, alde bateko sai saiz guztiak bildu dira hilaren inguru.


Harrapari hauek, harrigarriro, oso fidalgaitzak dira haratustela jatera hurreraterakoan, oturuntzari ekin baino lehen hainbat ordutan, edo ere egunetan, itaroten ohi baitute, abereak



reak azken heriotza-kurrunkak egin ez baditu. Sekulan ere ez dira gorpu zati-zati egitera oldartzen, goseak jota egonda ere; ordea, taldeko bat izan ohi da, oro har, agian goseitena, begiak edo mihia mokokatzera aurrekin hurreratzen dena, beleeak eta mikak lehenago jan ez badituzte. Jarrarian, mokoa sasetan dago aberearen sabelan eta burua sartzen du zuloatik, erraikiak jateko. Bitartean, zain dagoen taldeak arletatu egiten da, gero eta gehiago, eta beste kide goseki bat hurreratzen da jatera, eta borroka bat hasten du jaten ari zenarekin, borroka amorratua barik eritualetan antz handiagoa duena. Horrela, harrapakina jateko borroka jarraitzen dira bata bestearen ondoan, eta taldeko gehienak, artega, borrokaldiak aprobetxatuz, gorpuari geratzen zaiona jatera oldartzen dira. Harrigarria da ikustea nola behi edo ardi hil baletik minutu gutxi batzuetan eskeletoa baino ez den geratzen (Alde hometatik, Afrikako sai bizkar-zuriak du errekorra, bi minututan kilogramo bat haragi jateko gauza baita). Oturuntzaren ondoren hezurrei itsatsita geratzen diren haragi zatiak aprobetxatzen dituzte basoko nekrofago bikiak, hau da, mikak eta beleeak.

Saiak sabelbete handiak egin ohi dituzte, eta, batzuetan, oturuntza oparo baten ondoren, nekeza gertatzen zaie hegan egitea, eta batzuek, haize boladak aprobetxatuz, oza-oza hegan egiten duten bitartean, besteak hainbat ordutan geratu behar dira gorpuaren ondoan, janaria digeritu arte. Labarraren ixura malkartsuarekin bat datorrela, sai arrearen iltzal-erimaina ageri da bisutu bontzek, eurak edo elurak zigortutako harkaitz-hormetan, abenduaren azken egun labur eta hoztelan, egun hauetan hasten dela hegazti honen araldia.

Goiz argi eta eguzkitsua iristean, bi siluetak handi marrazten dira zeru urdin hotz amagabearen kontra, estaldura aurretiko ezteie-hegalaldia ekiten diotela. Arrak eta emeak maitasun-jokoari ekiten diote guztiz sinkronizatutik, eta airean planeatzen dute, altuera handian, oso elkarrekin, hego-muturrekin oza-oza ukitzen dutela elkar. Emeak, orduan, hausti egiten du une iluragarria eta zuzen-behera oldartzen da abialda handian, atzean bere laguna uzten duela; honek uneri galdu gabe atzetik jarraitzen dio, akrobazia sinestezina imitatuz. Orduan, arrak pertsekuzio bat hasten du eta hegokada indartsuekin laster heltzen dio emeari, eta gainean jartzen zaio zentzibilt segundotan. Ondoren, gora egiten du eta berriro ekiten dio maitasun erakuste horri.



**EGUNEKO HARRAPARIAK**

Jostela jarduera bizia amaitzen da bikoteko kide biek zirkuluak egiten dituztenean abialdura handian habia egiteko aukeratu dituzten labarren gainetik. Leku horretan, hain zuzen ere, egiten dute estaldura, lepo eta burua kulunkatzen duten bitartean bata besteari urratutako eritualet harrigarri bat egin eta gero. Bikotearen sendotasuna erakusteko, kideetako bat hil arte loturik eta fidel iraungo bitau, estaldura errepikatzen dute behin eta beriz.

Ezteie-jarduerak suposatzen duen bar-buleriak bultzatuta, heldutasun sexualera iritsiak ez diren eta, beraz, oraindik, bikotea egin gabe dauden koloniko sai gazteak helduen portara imitatzen dute eta koloniatik hurbileko haiztelan jartzen dira estaldura ezina burutu nahian.

Egindako bikoteak habia egiteko aukeratu duten harkaitzietara joaten dira eta bertan ematen dute gaua. Egunsentiarekin, habi-gintzari ekiten diote leku hurbilgaitz eta itenuneren batez euritik edo elurretik babestuetan.

Sai arreen habiak beren irazkinez zuziz margotutik egon ohi dira, eta gainerako hegaztienak ez bezala, habien tamainak ez du hegaztien tamainarekin zerikusirik, izugarri bikiak izaten baitira. Bikoteko kide biek ekinor parte hartzen dute materialak biltzen -adarrak, hostoak, ileiak edo lumarik-, edo nola metatzen dituztenak. Banako batzuk azukero materialak lapurtzen auzatzen dira, baina gure harkaitzietan habiak ez daude inñiz ere -bata bestetik bi metro baino gutxiagotara, alde hori norberaren lurraldeetat jotzen dutela.

Materialaren lapurreta hegaztielako bat bertan dagoela gertatzen bada, erantzuna erasokorra zein arduragabekoa izan daiteke, biktimaren izaera nolakoa den. Era berean, habiaren ixura aldakorra da zeinek egiten duen.

Emeek arantzak zuri bakarra eruten dute, batzuetan pikarda arrexkak dituen, 9 x 7 zentimetrotako. Emurteak Euskal Herrian otsailaren erdi aldera gertatzen dira, baina Espainiako hegoaldean ugaltzen diren bikoteak hilabete lehenagotik daude bialiatan, urtarilaren erdi aldetik. Ohiz bestera, lehenengo arrautza hausten bada, emeak beste bat erun dezake apiril aldera.

Guraso biek zaindu eta babesten dute gero kumea bi hilabete-tan, hiru egun jarraiez behin txandakatzen direla inkubazio jardueran. Txandakatzerako orduan, agurtze eritualet bat burutzen dute batak eta besteak, buru eta lepo-aren mugimendu errepikatuetan datzuna. Inkubazioari ekiten dion bikoteko kidea mugimendu geldoekin jesaritzen da, sabelaldeko lumarik harrotzen dituela arrautza estaltzeko.

Marxoaren amaiera aldera, udaberriaren sorrerarekin, jaiotzen da sai txikia, begiak guztiz ibita eta kremakolorezko lumarik bigun eta urri samarra dituela. Maitasun handiaz zainitzen dute gurasoek hain izaki txiki eta babesgabe hori, babesteko eta



beren emateko txandakatzen direla; baina denbora igaro ahal, nahita aldatzen dute otorduk. Txiloaren lehenengo bizi-egunetan, haren mokokadaz zirkututa, helduek jan batzuk eskaintzen badizkiote, ore lodiarenean goitikatzen dituztenak, hilabete eta erdi bete izanez gerotzik jan bat

berri ematen diote egunean, eta era jan bat bi egunez behin, lehenengo hegaldiak egin aurre-aurreko garaian. Baina ez da janaldien ugartasuna bakarrik aldatzen dena, baizik eta goitikutako janariaren kantitatea ere aldatzen dela -askoz ere handiagoa dela bitoa hazten den neurrian-, eta irenste-gradua ere bai, ez baitago hain digerituta.

Bi hilabete eta erdi dituela, gurasoko ausartu egiten dira bitoa bakarrik uzten, janari bila doazenean, behin egitura nerbioa eta muskularrak hobetu eta egokitzeko eboluzio psikikoa egiazatatu ondoren. Esaterako, lehenengo bizi-astean bitoa axolgabe geratzen da habiaraino iristen den edozein arrotzen aurrean, geldirik geratzen dela begiak itxita. Gerotzik, erreakzio positiboa agertzen du bere amaren mokoa gogorazten dion edozein objektu lutzangarri aurrean, eta portara janari-eskalearen eragingarri gertatzen zaio. Laurogeita hamar egun dituela, kontraste handia dago bitoak hartu eta tarmaina eta indar izugarriaren eta bere erretxuek geldo eta mugimendu traktetsen artean, dagoeneko guztiz lumatutik dagoela. Izan ere, oraindik ez da habia uzteko gauza, ez bada erlatzetatik mugitzen den aldi laburretan. La lau hilabete dituenen, ordea, gazte ausar-

ta bilakatu da, egunean-egunean hegan egiteko teknika bere ikasten duena. Zenbait egunetan gurasoek jaten ematen jarraitzen diote, haratustela bere kabuz biltzeko behar adinako trebatasuna hartu duen arte. Bere hegoen indarrak independentzia ematen dio sai arre gazteari, eta bere hegada delo bide familiaritza urrundu -irailaren amaiera aldera gertatu ohi dena- eta bizimodu erratu bati ekiten dio habitat faboragarria aurkitu arte. Kolonia batean ezarri baino lehen, ehundaka kilometro egin ohi ditu zerra eta harkaitzietatik nora ezzen ibilita. Harrapari handiek bezala, denbora luzea behar du heldutasun sexualera iristeko, lau urtekoa izan ohi dena, eta, ohiz bestera, zazpi eta zortzi urterata luza daitekeena.

**ELIKADURA:** bere berezitasunik garrantzitsuenak, guztiontzat ezaguna, elikera da, sarraskijale bait da erabat.

**HABITATA:** beti heriotza gainetik hegan egiten duten harrapari hauek kolonietan ezarri ohi dira mendizkeretako haizte eta gallurrelan, eta bertatik barrietzen dira janari bila joateko; beraz, gure lurraldearen parte handi batean ikusiaz jati daitezke, eta, batez ere, mendialdeetan eta beren inguruetan, dela abeltzaintzako arantlan edo landako larretan.





**SAI ZURIA**  
*Neophron percnopterus*

**NOLA EZAGUTU?** bere kanpomorfologia hain berezia denez gero, beste hegaztien nahaztezia da.

Isats kuneiformeari eta hegaz luzei begira, ugatzaren antzik baduelia esan dezakegu; hala ere, bere lumaje zuri-beltzak, zangonik gabeko amiamoko lepamotz baten itxura ematen dio.

Sai arearekin gonbartzan baldin badugu, sai zuria tamaina bikiagoa dugu eta lepoa luma horiskez estaltzik dauka.

Hegan ari direnean oso itxura berezgarria dute: gorputzko kolorekoa gutziz zuria, arauun-lumak erabat beltzak, punta zorrotzek hegoak; eta ziri itxurako buztana. Ale gazteak erabat arreak dira eta ugatz gazteen antzeko itxura dute, nabariki bikiagoak badira ere. Kolore arrea, argituz doa bosgarren urte-  
ra arte, eta orduan lor-

tzendute behin-betiko lumadira sai zuriek.

**BIOLOGIA:** otsailaren hasieran itzultzen dira berriro eta kolonizatzen dituzte gure basoak. Alabaina, hegazti helduak soilik itzultzen dira, gazteak afrikar lurraldeetan geratu ohi dira hiru urte dituztela heldutasun sexualera iritsi arte.

Ordutan hegaz egiten dute beren jaiobazterretarantz eta bertan egiten dute bikotea, ugaltzeko, lokarriak bizialdi osoan iraungo duela.

Sai zuri heldua, 58 eta 66 zentimetro bitarteko luzera duena, urrunetik ikusita, amiamokoarekin nahas daiteke, lumaje zuri eta beltzagatik eta beren tamaina berdintsuagatik; baina hurbilik ikusita, krema kolorezkoa dela egiaztatzen da, eta garbi ikusten dira bere isats kuneiformea eta lepo bildua.



Gure basoetako bizilekuetara iritsi eta egun gutxi igarota ikus daitezke arra eta emea, habia egingo duteneko har-  
kaiztegielatan gainetik, lehenengo eztei-hegalaldiak eginiz eta, aldi berean, habia jarriko duten lekua ikuskatuz. Normalean, eurtik babesturiko haitzulo batean jarri ohi dute, baina ohiz kanpoko kasuetan habia zuhaltz batean jarria ere ikusi da.

Habiaren forma eta tamaina oso aldakorak dira, kokalekuari egokitzen baitzaio. Normalean, 80 zentimetroko diametrokoak dira, baina, horietatik, bakarrak erdiko azalera 40 zentimetroak estaliko dira kontu handiz ile eta ilekiez, hortxe erruten

batu emeak, martxoaren amaiera aldera, bi arrautza - batzuetan hiru-, 3 edo 4 eguneko tartean.

Arrautzak zurixkak dira, krema kolorez pikardatuak, batzuetan hondoaren kolorea desagertzearaino, hain izan

daitezke pikartak ugari. Pisua 80 gramo ingurukoa izaten da eta tamaina 64 x 48 eta 66 x 50 milimetro bitartean egoten da. Generokide biek esku hartzen dute inkubazioan, aldika bandakatzen direla arrautzen eklosiora arteko sei asteo aldirian.

Jaiotzerakoan, 3 edo 4 eguneko tardea dutela, txitoek tamainaren diferentzia nabarmena agertzen dute. Horregatik, sarri askotan, bito bikiena goseak jota hil ohi da, ez baitu gurasoek eramanen dituen janariagatik handienarekin lehiatzen. Galera horiek, harraparien artean oso sarriak direnak, ez dira gertatzen janaria ugari deneko leku edo urteetan, beraz, jaiotze-tasaren zuzentzeala naturala baino ez dira, populazioaren kopurua zabalbidetara eskuragarri egokitzen ditena, berezko oreka hautsi ez dadin.

Txitoak lumaxa grisaz estaltza agertzen dira jaiotzerakoan, gero beste lumaxa zuri batez aldatzen dutela. Laster iritelen zaizkie arre kolorezko lumak. Aurpegia biluzik geratzen zaie, baina beren larruzalaren tonua oraindik ez da helduen hori-laranja, gris motela baizik. Luma-berritze bakotzean kolorea argiago egiten zaie, eta 5 urte dituztenean helduen lumaje zuria hartzen dute, hegoetako luma primarioak izan ezik, gutziz bel-



**EGUNEKO HARRPARIAK**

tzak baitira.

Gurasoek ahoan zein paparoan eramaten dute janaria habiara, eta bertan zati-zati egiten dute eta eskaintzen diete bakoiz, hauek bakiak diren bitartean. Hilarbelea ez duten bitartean, bitoak ez dira beren kasa jateko gai. Sai zuri heldua ez dira beren kumeekin beste hegazti sarraskijale batzuek bezain axolotatik, eta hazi samarrak direnean aldi luzeetan utzi ohi dituzte. Gazteek egunaren aldi on bat ematen dute bakarrak, gurasoak, habiatik hurbil egonda ere, ez ohi baitira habiaratzen. Txitoak 63 eta 65 egun bitartean egon daitezke habian. Denboraldi hori igarotakoan, beren hazi-aldean ikus daitezke gurasoetako bat lagun dutela, eta gurasoekin geratzen dira janaria bilatzen ikasi arte. Laster asko, abuztuaren amaiera aldera, edo gehienera jota irailaren hasieran, migrazioaren deia sentitzen dute eta Saharaz handiko Afrika aldera doaz, Mauritaniatik Sudanera, Gibraltartik itsasarte igarota.

**ELIKADURA:** animalialbo hilek ditu batez ere sai zuriak janari, esaterako, untxiak hegazti kolpatuak, urlehortarrak, narrastiak eta are arrainak ere, inotzka, baiak lehortu eta haiak putzu bikielatan geratzen direnean atzematen dituenak.

Trebea da, berebat, arrautzak bilatzen. Beste hegazti batzuei lapurtu ondoren, leku jakin batera eramaten ditu, eta, han, harrien kontra botatzen ditu beren edukiaz elikatzeko. Gure basoetan ia ez du agertzen bere portaearen alderdi hau, baina afrikar kontinentean, arrautzen lapurretan espezialista erabatekoak izateaz gainera, ostrukaren arrautza batera iristen denean, arrautzaren tamainagatik, haitzen kontra botatzeko, ahoan eramaten ez duenez gero, alderantzizko operazioa egiten du, eta harri bat hartzen du mokoaz eta egonari handiz, behin eta behir botatzen du arrautzaren kontra, oskol gogorra arrailteaz lortu arte. Harrapari hau dugu, Galapago uharteeetako txontarekin, helburu bat lortzeko tresnak erabiltzen dituen hegazti mubieltako bat; izan ere, txonta hori hezur batez baliatzen da haitz-arrailen eta landareen sakonean ezkutatzeko.

Sai zuria izan ohi dira nekro-fago handietan haratustelak hautematen dituzten lehenak, kobido zorrotzen mugimenduetan etengabe begira baitaude. Baina izazaz sarraskijaleak badira ere, etxe-abereen edo belarjale basatien gorpu handiak ez dira haien baliabide bakarrak, eta ez zaizkie funtsezko bizirauteko; izatez, sarri arrengatik ez baitz, hauek baitira gorpuak zati-zati egiten dituztenak, sai zuriek ez luke gorpu horiek baliatze-



rik, bere mokoa ozta-ozta baliagarri baitzaio begiak eta haratustelen zati bigunet bat jateko.

**HABITATA:** saiek ez bezala, hegazti migratzaileak ez baitira, sai zuri-beltzek habia egiten dute udan gure basoetan eta udazkenean joaten dira afrikar lurretara, berriro ere itzultzeko, marxoaren erdi aldera, aurreko urteetan okupatu zituzten labar, errotz eta ibal-halte-bakielara, haitzarten babespean habia egin zuen tokietara.

Ez ohi zaie gustatzen mendiko garaiak harrikaletan finkatzea; altitude baxu edo ertainean daudenetan baizik, eta bertatik arakatzeko dituzte espazio irekiak, larreak, sorokak edo sasrakaldeak haratustel bila.

**HEDAPENA:** harrapari indo-afrikar hau Europa mediterranean, Afrikako ipar eta ekialdean eta Asian banatzen da, galzori larienetakoa dagoela. Izanez ere, azken hamarkadotan atzerakada nabarmen bat

jasan du europar kontinente osoan, eta mendearen erdi aldera landa-zabortei iberritaren ugari ibiltzen bazen, batez ere Andaluzia eta Extremadurakoetan, Afrikako leku askotan egiten jarraitzen dutenez, gaur egun, popu-



lazioen beherakada izugarria jasan dute. Horren arrazoiaren artean ditugu abeltzaintzen erregimen aldaketa, zerupean larratzetik akuiuluetara igaro baitira, abere hilek lurperatzeko edo landako berzeko garbitzaileengandik urrun, putzu edo usteltokietara botatzeko ohitura, eta pestizida eta herbiziden abusa.

## BELATZ HANDIA

*Falco peregrinus*

**NOLA EZAGUTU?** belatz handiak bereizgarri ditu buru trinko eta biribilbilo, lepo sendoa eta begi handi, beltz eta biribilak, toles xehe mamitsu horrika batez inguratutak, arakatzeko sakonera eta helmuna adierazten dutenak. Moko labur, kurbo eta zorrotzak ohiko hortza agertzen du muturrean, belatzen familiako kideen bereizgarria dena, eta sudur-zuloak biribilak dira, ez, gabiraienak bezala, obalatuak. Belatzen hanka horixek behatz luzeak dituzte, atzazal zorrotzez hornituta. Behatzen luzera hori airean txori iheskorrek harrapatzeko egokitzapenaren ondorio da, eta berdin dira azpian dituzten ahur-goruneak, harrapakinari oratzen errazten dutenak. Emeak heren batez gainditzen du arraren tamaina. Arrak 38 zentimetro neurtzen ditu eta 850 gramoko pisua du. Emeak 51 cm-tara eta 1.150 gramoko pisura iristen dira.

Helduen lumaia eta heldu gabeena oso ezberdinak dira. Heltzen nagusi dira tonu marroi eta arrexkak, eta beren sabelaldeetako zizarenzako pikardatura bertikala da, horizontala berriz. Halaber, ez dute okozpekorik. Helduek, beren aldetik, mantu kontrastatua agertzen dute aurpegian; izan ere, masaila, kopeta eta garondoren kolore beltza, moko azpian luzatzen dena, ezarriko zurruen pausatzan dela dirudi. Hego luzeak isatsaren luzera gainditzen dute, eta gainalde gris iluna dute; sabelaldea berriz, zizarenzako pikardadura xehea du, arbel-gris kolorekoa, hondo argi gainean. Bere biologia berezia -bai bere anatomiaren ezaugarri behinenei, bai bere portae-rari dagokiene- eta hegaztien munduan banaketa-lurralderik zabalena-ta lortu izana airean jarduten lortu



duen espezializazio handian dautza. Belatz handiaren hegoi subespezie bakoiti gehiago daude, mola guztietako zona klimatikoak eta ia mundu osoa okupatzen dituztenak, Ertamerika eta Hego Amerika eta zirkulu polarrak izan ezik.

**BIOLOGIA:** bizkortasuna eta liraintasuna dira belatza hobekien definitzen duten ezaugarriak, airearen domeinu hobearen ondoriozkoak. Bere irudia, pausatutik nahiz hegan dagoenean, aerodinamikoa da guztiz.

Bere osak dirudi airean barrean sartzeko diseinatuak, sastadura zorrotz antzean sartzeko. Oso gutxitan egiten du planea, eta, egiten duenean, beti da tarte laburretan. Bere hego-astintzea ez da ia gelditzen, are leho zuzeneko hegan doala ere. Harrapari honek, ehiza egiteko, zuzen-behera oldartzen zaie bere biktimei, hauen gainean jarri eta gero. Une horietan 320 kilometro orduko abiadura gainditzeko gauza da, haizea laboragarria izanez gero, eta horrek planetako omodunik bizkorrena egiten du. Belatz handiak estrategia ezberdinak erabiltzen ditu bere harrapakinak atzemateko, haizeak nola eta norantz jotzen duen. Harrapakinaren hegada haizearen aldekoa bada, haren gainerako zuzen-beherako oldarraldia zehar samarra izan ohi da, eta inertziak eramatean uztera mugatzen da, biktimearen ondotik igaro eta atzaparrez, hegoez edo lepoaz ukitzeke. Kolpatu ondoren, beltzak artazi bat egiten du airean eta zortzarako animalari heltzen dio lurrera iritsi baino lehen.

Haizeak kontra jotzen badu, orduan ez du bere harrapakina kolpatzen, baizik eta atzaparrez oratu eta bizirik eramaten duela lurreraino, eta han hil egiten du lepoan mokatada bortitzez emanetz. Era berean, azpitik ere eraso diezake bere biktimei, haizeak kontra jotzen duenean. Goietatik zuzen-behera jaitsi ondoren, biktimean azpian kokatzen da eta bere presentziak oharitu gabeko moduan hurrentzen zaie, ikus-angelu lisa aprobehatutik, azkenean haren sabelaldeetatik atzemateko. Otsailaren amaieran sartzen dira gure lurraldeko belatzak araldian, eta hasten dituzte beren ezteijarduerak. Obulazioaren eta espermatogenezaren prozesuak sinkronizatzeke helburuz, belatz handiaren ar eta emea aerodinamikaren legeak desafiatzen dituen mailtasun-joko batean aritzen dira. Abiadura, kiribidurak, zorabioa... beren loturaren adierazgarri bihurtzen dira. Bikote egon berrak kideek behin eta berriz jarraitzen diote batak bestearekin, suturik, beren ezaugarri anatomikoak ezin bereizteko moduan, hain da beren abiadura handia. Arrak opari bat -harrapakin bat- eskaintzen dio emeari, hega betan aldatzen duela bere atzaparretatik harenetara, edo erortzen uzten duela emeak estuago egin daitezen, belatzak jaten ematen dio bere kideari aurretik aukeratu duen habian, emeak eske-jarrerak hartzen dituen bitartean, bitoek hartzen dituztenen antzerakoak. Ertz zorrotz ba, itsas labar malkartsu bat edo harkaiztegi bat, beti ere leku hurbilgaitzak, belatz handiaren kumeen geroko bizileku bilakatu dira. Emeak lurrean zuzen erortzen dituzte arrautzak, eta leku horietan, erlatz, haitzuluko edo arrail horietan, estaldura segiala azkar eta ugaria gertatzen da ezteijarduerak amaitu eta gero. Haize nagusietatik babesturiko lekuan jarri ohi da habia, edo geroko bitladiak eguzki-izpiak larregi ez jasateko moduko orientazioa duela. Bigarren edo hirugarren arrautza erortzen eta gero -errutea arrautza batetik lautara joan daiteke-, emeak inkubazioari ekiten dio soil-soilik hilaibete batean, arrak jaten ematen diola bitartean. Kideen arteko lan-banaketa oso garbia ugalketak dirauen bitartean; hala, belatz arra ehizan antzen da, eta emeak axola handiz elikatzen ditu bitoak -bere kideak uzten dituen harrapakinak lumatu eta zaituz-, eta defendatu egiten ditu, indartsuagoa baita. Emeak ardurara handia agertzen dute bitoak defendatzerako orduan, eta edozein sudurluzeri erasotzen diote, hegazi zein ugaztun izan, habiara gehiegi hurreratzan bada. Sarri askotan kusi dira belatzak arranoie, saie edo azerie erasoan, lurretik edo airetik beren lurraldean sartzen zirelako. Zeregin ezberdinetan gertatzen den espezializazio sexual horren ondorioz, emeak hiltzen bada, arra ez da bitoie elikatzeke gauza, ez da kontu handiz lumatu eta zaituturiko harrapakinak bitoen mokoetan sartzeko gauza. Bost edo sei asteetan, gurasoek izugarriko ardurara jartzen dute belatz berriak gizendu, mimatu eta babesten. Gero, helduek harrapakin hilak eramatean dituztela hurreratzan dira gazteak daudeneko erlatzeraino, baina ez ditzake harrapakinak eskaintzen, ehizarako ikastaldia hasi baitzaie. Hasieran, kumeek ez dute gogo handirik agertzen gurasoaren proposamen tentagarri erantzuteko, baina laster zirikatzan dituzte gaseak eta helduek erakusten dieten harrapakinari jarraitzen diote. Helduek, orduan, libratu egiten dute harrapakina, ondorengo trebatu gabea airean atzematera behartzen dutela. Heziketa hori osatu ohi da hegazi zauriak harapatzen arituta, gazteek airean akabatzen dituztenak, eta horrela ikasten dituzte aire-ehiza zailaren hasimasiak. Harrapatzeke gaitasun zabalak erakutsi ondoren, airearen jaun beltzu berrak familiaren lumalaketik kanporatzen dituzte beren gurasoek, eta bizimodu erratuko adit bat hasten dute, urte baten buruan amaitzen dena, hots, heldutasun sexualera iritsi eta bete labar batean ezartzen direne-



## EGUNEKO HARRPARIAK



an; eta, berritro ere, falkoniforme harroak haitz-ertz zorrotz bat aukeratu du familia osatzeko.

**ELIKADURA:** kilo laurden eta kilo erdi bitarteko pisua duten hegaziak dira belatzaren harrapakin hobetsiak, usoa kasu, direla pagausoak, direla haitz-uso edo toloak. Kostaldeaz beste aldeetan bizi diren belatz handie buruz egindako azterlanen arabera, usoa kasu dira haren biktimeen %50; alde ozeanikoetako itsas labarretan bizi direnek, ordea, itsas hegaziak jaten dituzte gehienbat, esaterako, kaiokak, ekaitz-bonak eta mola askotako txoritxoak (birritskilak, bitoak, kalandriak, sorbeltzak...)

**HABITATA:** menditako harrikaizetan maiz ibiltu ohi da, beraletan atsedean hartu eta lo eginez. Udaberria helzen denean harmal-hormetako barneragutetan beren habia egiten du. **HEDAPENA:** subespezie ezberdinak, beren eboluzioan zehar, kontinente guztiak kolonizatzeko gainera, oso populazio ugariak edukitzera iritsi ziren. Mende honen erdi aldera arte, Europan eta Ipar Amerikan hegazi ugari zituzten. Baina hori amaitu zen berrogeita hamarreko hamarkadaren amaiera aldera, intsektu-izurrien kontra jotzeko intsektizidak masiboki erabiltzen hasi zenean. Substantzia horiek -beretik DDT ezaguna, gaur debekaturik dagoena-, intsektuen ehunetan ez zizkintsektu horietan ziren hegaztien ehunetan ere metatzen ziren. Horrela, belatzak oso kutsaturiko hegaztiez elikatu zirenean hasi ziren leheneko ondorioak sentitzen. Eta ondorio horietako bat izan zen haien arrautzen oskoleko kaltzio-eraketaren inhibizioa, eta arrautzak hauskor bihurtu eta inkubatzeko-koan apurtu egiten zirela.





**ZUHAITZ-BELATZA**  
Falco subbuteo

**NOLA EZAGUTU?** zuhaitz-belatzaren hegada ikusterakoan, bere irudiak sorbeltz handi batena gogorarazten du. Bere isats laburra eta hego luzangak falkonidoen bere familiakoen hegaketa urduri bereizgarriaren eran mugitzen dira.

Pausatzen denean, bere hegoen punta zorrotzek isatsaren muturra gainditzen dute, eta orduan zehatz-mehatz ikus daitezke bere belatz txikiaren iberua. Arrek 150 eta 210 gramo bitarteko pisua dute, eta emeek 230 eta 340 gramo bitartean. Bizkarraldeko luma-jea arbel-gris kolorekoa da pile-oraino, eta bereizgarri du garondoko zurirunea, tonu gris uniforme hausten duena.

**BIOLOGIA:** apiriletik maiatzera bitartean zuhaitz-belatzak gure zelaietara iristen direnean, aurreko urteetako lekuak okupatzeko, arrek eta emeek ekiten diete eztei-jarduerei. Jarduera horietan, eguneko harrapari guztien kasuan bezala, hegada akrobatikoak egiten dituzte, plano luze eta altuak eta zuzen-beherako oldarraldi zorablagarriak tartekatzen dituztela. Askotan, arrek oldartzen zaizkie emeek, erasotzeko antzean, edo, harrapakin bat hartutakoan, emearekin igo eta airean eskaintzen diote, zirkuko akrobatik baliliran. Kalkulatu denez, belatz txiki hauek 250 kilometro orduko abiadurak lortzen dituzte, gutxi gorabehera, beren zuzen-beherako hegadetan.

Beren familiako kide guztiak bezala -falkonidoek-, zuhaitz-belatzek ez dute habiak egiten; ordea, beste hegazti batzuen habiak erabiltzen dituzte, mika eta beleenak batez ere, bertan behera utziak eta zuhaitz garaietan kokaturik daudenak.

Emeek maiatzetik ekainera bitartean egiten dute errutia. Hiru arrautzetatik bostetara erruten dituzte, kolore argikoak erruten dituzte, eta orban arre ilun edo gorritzak dituztela, 41 x 32 milimetrotako tamainakoak direla. Arrak jaten ematen dion bitartean, emea arduratzen da soil-soilik arrautzak inkubatzeko 28 egunetan zehar. Txitoak jaiotzen direnean, lehen lumaxa



batez estaliak agertzen dira, eta bizkarraldean tonu grisa eta sabelaldean gorritza duen beste batez ordezkatzan dute.

Lehenengo hamar egunetan ama bitoxez arduratzen da

habiatik mugitu gabe, elikadura eta beroa ematen dietela, haien lumaje finak eta metabolismo baxuak, erregulazio termiko eraginkorra galarazten dietenek, amaren menpe-menpean egotera beharitzen biltuzte. Egun horiek igarotakoan, emea arraren ondora agertzen da txitoentzako janari bila joateko. Txitoek lumaz

erabat jantzita eta hilabetea dutela baino ez dute habia uzten.

Orduan, ekainetik uztailera bitartean, helduen antz handia dute, bizkarraldean kolore arre-belzarka dutela, nabarmenki marratua.

Bi edo hiru hilabete eta erdi dituztela, gazteak, helduekin batera, artegalu egiten dira migratorako ordua iristen zaielako. Amaitzean dago gure basoetako egonaldia -udaberria eta uda- eta migrazioaren deliadarra entzuten dute berriro alean. Irailaren eta uiniaren bitartean gertatzen da migrazioa, eta gure zuhaitz-belatzak, Europako guztiak bezala, Afrika tropikalera (Zambia, Malawi) joaten dira negua ematera, beren negu-pasako aldea Hego Afrikara ere zabaltzen dela.

Asian bizi diren zuhaitz-belatz gehienek, ordea, Txinako hegoaldean eta Indian ematen dute negua. Ornitologoek egindako azterlanen arabera, zuhaitz-belatzak afrikar kontinentera iristeko garaia baldintzatzen



dago, neurri handi batean, afrikar mendialdeetako euri-erregimenagatik. Uste denez, euriek gelditu egiten dituzte, termita hegadunak -haien janari direnak- beren termita-lekuek irten eta termita-leku berriak egitera bultzatzen dituztelako.

**ELIKADURA:** harrapari hauek benetako espezialistak dira intsektuen ehizan, eta nabarmenki hobesten dituzte animalia horien espezie batzuek osatzen dituzten boladak, esaterako, estaldura egiteko helburuz igotzen diren inurri hegalarientzat. Harrapatzen dituzte, berebat, mariorratz bizkor eta zaluak, erlastarrak eta ilunabarrean ugari dabilzen gaueko bixmeletak.

Baina bere azkartasunak, potentziak eta hegadaren domeinuak, alzapar fin eta indartsuez gainera, aukera ematen diote hegazti asko ere harrapatzeko, esaterako sorbeltz azkarra edo enara zaluak, bolada usuetan haren etzalekuelara hurreztatzen direnean, baita intsektujale txikiak ere harrapatzeko, hala nola, galupia edo bixirskila. Batzuetan, unxi gaixoak eta saguzarrenak ere harrapatzen dituzte.

**HABITATA:** espezie arrarotzat jotzen da Euskal Herriko Espezie Mehaxkatuen Katalogoan. Zuhaitz-belatza soilgune zabalak dituzten basoaldeetan ezarri ohi da, edo baso eta landazabal,

zuhaizti, lertxundi edo makalidietako ertzetan. Intsektuak ditu bere elikaduraren oinarri, txitiburduntziak kasu, eta, beraz, ur-toki inguruetara ibili ohi da. Habia ezartzeko zuhaiztak beharrezko dituen arren, ez da aztoera edo gabiraia bezain harrapari basozalea, eta leku irekiak nahiago ditu bere harrapakin zelata egiteko, hots,



**EGUNEKO HARRPARIAK**



nahierara mugitzeko eta bere hegada bizkor eta batzuetan tupustekoak egin ahal izateko bide ematen dioten lekuak.

**HEDAPENA:** harrapari honek lurralde-banaketa zabala du, esateko erregio palearktiko osoa hartzen duena (ipar latitudeko 35° eta 36° bitartean); izan ere, Marokotik Txinara eta Japoniara aurki daitezke. Europar kontinenteari dagokio-



nez, Mediterraneoetik Finlandiaraino eta Suediako hegoalderaino aurki daitezke.

## ZAPELATZ LIZTORJALEA

*Pernis apivorus*

**NOLA EZAGUTU?** arrak eta emeak elkarren antzekoak dira luma-jearen koloreari dagokionez, baina emeak galantagoak dira; izan ere, kilo bateko pisura iristen dira, ar bikienak kilo erdira baino iristen ez diren bitartean. Generokide bien tamaina 51 eta 58 cm bitartean dago, eta beren hego-luzera 120 eta 126 zentimetro bitartean. Zapelatz liztorjaleen luma-jearen kolorea oso aldakorra da hegazti batzuetatik bestetara, eta, izatez, ornitologoek hamabi banietate baino gehiago zehaztu dituzte.

Oro har, bizkarraleda tonu marroi ilunekoak izan ohi da, sabelalderantz argitzen dena. Liztorjale batzuk miruak bezain ilunak dira, beste batzuk, ordea, arano sugezaleak bezain argitsuak dira. Aldakortasun handia dagoen arren, bitaldi bereko bitoen artean ere gertatzen dena, tonu batzuk gurasoengandik kumeengana aldatzen dira aldaketarik izan gabe.

Zapelatz liztorjaleak antz handia du zapelatz aruntarekin, baina burua bikiagoa da, bere hegoak luze eta meharra goiak eta bere isatsa handiagoa, ixura lirainagoa hartzen duela.

Heldu gabeen bizkarraledeko luma-jea helduena baino ilunagoa da, eta sabelaldeko aldakorra da heldutasunean zein tonu hartuko den, argi alia ulu.

**ELIKADURA:** liztorjaren larbak eta pupak dira bere ohiko elikaduraren oinarria, bereziki hiru espezierenak: *Vespa vulgaris*, *V. media* eta *V. germanica*, baina ez du errefusatzeko balere insekulirik, izan ere, jaten ditu, berebat, eriesek, kakalardoak, beldirrak eta mabinsaltok.

Era beran, ez ditu arbuizaten zizareak edo omodun bikiak, hala nola, txoriok, sugeak eta saquak, bereziki gogoko dituela igelak eta muskerrak. Batzuetan fruituak eta beste hegazti batzuen arrautzak jaten ditu. Normalean, harrapakin horiek guztiak udaberriko lehenengo egunetan jaten ditu, urri baitira orduan insekutuak.

Bikote bakoltzaren ehiza-lurraldeak 3 eta 4 kilometro bitartean hartzen ditu, baina hegadarako oso emana ez denez gero, harrapakin-bikotea gehienetan lurrean egiten baitu, oso gutxi gaitz-hegatzeko du. Alabaina, harrapari migrazioa izan denean, oso gutxi gaitz-ondo menderatzen du hegan egiteko teknika; trebelasunez baltzatzen da gorantz korronteak, eta bide luzeak egiten ditu plano-egadetan. Nabarmen gertatzen da, berebat, haizaren kontra hegan egiteko duen gaitasuna, altuera on batera igotzen dela, gero basoan zuzen-behera erortzeko, zuzaltzen adar eta erborrei berriz egiten diela trebetasunez.

Gainera, eta beste espezie batzuek ez bezala, ez du eguzkia noiz aterako zain egon behar, lehenengo korronte termiko gorakorrez baliatuzko, oso hegada eragikorra baitu.

**BIOLOGIA:** Nekaz-kusi ohi da zapelatz liztorjalea hegada batean; segunuenik lurrean pauturik aurki dakiteke, zuzaltzen baten behar-adar baten gainean, lumak erregulatasunez harrotuta, lurretik edo behe-altueran dabilzaten insekutuei behatzen dien bitartean.

Zapelatz honek, hegada trebea egiteko gai denak, gauza bat du hamigarr, lurretik ibiltzeko duen gaitasun handia. Gainerako espezieak traketsak dira ibiltzeko, baina liztorjalearen hanka labur eta hoxirik, ezkieta gogor eta atzazal luzeaz hornituzko, bide ematen diote trostan ibiltzeko, saltokia edo kornika egiteko, edo abiartzeko, bele edo buztanikara baten biz-



kortasunaz. Beste harrapari batzuenak ez bezala, bere hankak ez dira harrapakin handiak hartzeko, ezta presio handiaz hiltzeko ere.

Oso ikusgarri gertatzen da janari bila ibiltzen denean. Isil eta ezkutuaren dabilien bitartean, luzatzen du lepoa, tente jartzen ditu garondoko lumak, altuan eusten dio pappari eta jarraera horizontalean darabira gorputz osoa.

Erdi luperatutako liztorjalea bat aurkitzen duenean, bere hanka batez lurrean atzaparka antzen da artega, lurretik ateratzeraio, eta ahora eramaten du larbak irensteko, euste-hanka bandakatzen duela aldiak larba guztiak irensti arte, ondoan hegan egiten duten heldu haserreki kasurik egin gabe, bere lumak babesten baitute haien zizaduretatik, bereziki moko ondoan eta begi inguruan ditue-nek; lumak horiek bere hanketako ezkatzen antza dute, hain dira txiki eta gogorak.

Babes horrekin eta gutzit, baten batek eztena sar diezaioke; beraz, uste denez, faktorearen egin behar da bere metabolismoan, Himenopteroen eztenekin gorputzean sartzen zaizkion likidoen kontrako halako immunitate bat ematen diona.

Basoko bori gehienek alde egiten dute hura dagoenean; ia ez dago berarekin egon nahi duenik, ezta galitxu daudenean ere. Azalpena erraza da, hots, habia bat apilatzen ari denean, bere ondoan hegaldak dauden liztorjaleak inguruetan dabilen edozein animalia-riaren kontra lehertzen dute beren sumina, eta hura, noski, ez da triskuntza egin zuena bezain garbi arreak. Batzuetan, egiten dituen zuloak hain dira handiak ezen ia bertan luperatutik gertatzen dela; beste batzuetan, zuzaltzen baten adarrea dagoen abaraskari erasolzen dio, eta, harrigarria bada ere, ez du sekulan ere ezlia jaten.

Eboluzioak trebelasun handia eman dio liztorjak harrapatzeko. Mokoaz atzeman orduko, zaharkako janeran jartzen ditu, eta sabelaren amaiera alde abakitzien die ezten pozotsua ez irensteko, lurrera erortzen dena.

Zapelatz liztorjalea harrapari garbiri migrazioa da; tenperaturari gogoretako aldia Afrika tropikalean ematen du, eta neguaren amaieran etortzen da Europara ugaltzeko; hala ere, populazio ugariak dira erdi-mendebaleko Afrikan habia egiten dutenak.

Euskal Herrian ugaltzen diren bikoteak, eta europar guztiak, udalarrak dira, ez baita balere liztorjalerik ikusi neguan.

Martxoaren hasieran iristen dira lehenengo hegaztiak, baina gehienak maiatzaren hasieran iristen dira.

Habiarikoko fideltasun handia gorde ohi dute, eta bertara



## EGUNEKO HARRPARIAK

etortzen dira, ugaltzera, urtean-urtean, nahiz eta oso narriturik egon; izan ere, arnastoren bat gertatze aski da berregiteki ekitako. Habia zegoeneko zuzaltza desagertu bada, ondo leku batean egiten dute. Lehenbiziko aldiz ugaltzen diren bikoteek beste hegazti batzuen habiak erabili ohi dituzte, esaterako, beleenak, etab.

Estalketa gertatu baino lehen, bikoteek halako hegada-egerraldi batzuk egiten dituzte, altuera handira igotzen direla hegaoak astindu gabe, haize-boladen bultzadaz eramanda, eta gero zirkulu handietan ekiten diote hegadari. Arrak, orduan, gorago igotzen dira eta zuzen-behera erortzen dira emeengana, hegoak astintzen dituzten bitartean txaloka aritu antzean. Emeak zirkulua egiten jarraitzen dira, eta arrak berriro ere igotzen dira zuzen-behera olatzerteko. Oso antzerako hegaldiak bat kusi da batzuetan abuztuaren amaiera aldera. Baina orainoan ez du eztei-jarduketarekin zerikusirik edukizkerik, eta ornitologoek ir-

tuz, lurralde-mugaketaekin erlazionaturko adierazpenei zor dakieke, bai lurralde berresteko erabilizten dutelako, bai agur egiteko halako erroto hori beren ezaugarriak hurrengo utitako gogoratze erabilizten dutelako.

Habia eraz ezagutzen da bertan metatzen dituen abarasken gelukinengatik, eta altuera handiko adar batean kokaturik egon ohi da. Erutea baino hiru aste lehenago hasten dira habia berregiten, baina ez dira erakitzaila tre-beak, eta hosto eta adar batzuk modu baldarean jartzera mugatzen dira.

Beste hegazti baten habia erabili ez eta bertan egiten duten gutxi-tan, plataforma bat egiten dute, 50 eta 60 zentimetro bitarteko diametrokoa eta 13 eta 16 zentimetro bitarteko sakonera, eta bertan jartzen dituzte hosto berdeak, ihartu ahala hosto berrietan ordezkatzen dituztenak; horrela, arrautzak hosto artean erdi ezkuturik ageri dira.

Habigintza aldakorra da bikote batzuetatik bestetara; dena dela, bikoteak erauntzurik uzten dio zenbat egunetan, eta gero berriro ere ekiten dio ero-amorrutara, galdutako denbora berreskuratu nahik bezala.

Emeak bi arrautza eruten ditu, inoizka 1 edo 4, maiatzaren azken astetik ekainaren lehenera bitartean, batetik bestera bi eta bost egun bitarteko aldia utziz. Arrautzen tamaina eta kolorea oso aldakorra da, baina normalean zuria dira orban marroi gortzik dituztela. Harrigarritu, arrautzen arteko diferentziak bat etorri ohi dira, neurri on batean, bideen luma-je agertzen dituzten diferentziak. Txitatzea emearen ardura da; bitaldak dirauen hila-betean adar eta emeak abaraska ugari eramaten dituzte habiara. Emeak inkubazioa amaitzen duenean hosto artean ezkututzen ditu arrautzak.

Txitaldiko lehenengo hamar egunetan, emearen gorputzaren tenperatura 28°C-lik 38°C-rra igotzen da, eta horretan dirau bitokak jao artean. Txitokak lumak fin eta molz batez estaltzeko jaitzen dira, bizkarraidean zurigrisa eta buruan horrika delarik.

Emeak hiltzen bada, ama ez da arrautzak inkubatzen gaitz. Eklosio unea iristen denean, ia egun bate lan behar dute bitok oskalo hausteko. Lehenengo egunetan amak ematen die jaten, arrak eta emeak inkubazio bitartean habiara ekarri izan dituzten abarasketako larba eta pupekin eta



arrak oraindik ekartzen dituenetakoekin. Larba eta pupa horiek eman baino lehen, bigundu egiten ditu bere papparoan, baina astebeheren buruan, gutxi gorabehera, bitok zuzenaren irenstean dituzte ardura horren beharrik gabe. Arrak igel edo mokoarekin bat ekartzen dienean soilik gertatzen dira zain, arrak harrapakina zaitutu eta amari eman eta honek okeia zatitak bana diezazkien.

Bi asteren buruan bi orban ilun ageri dira bitoen luma-jean, lepo aldeetan, eta mendel ilun bat haien luma primarioetan. Gurasoek axola handiaz zaintzen dituzte, eta gizaki bat humeratzten bada habiara, emeak bito-

kin gertatzen da hura metro gutxiara egon arte. Era berean, adarrez estaltzen ditu bitok alde egin behar izanez gero, eurtik babesten ditu hegoak zabalduz, eta lumak urindatu behar ditue-nean, hurbileko adar batera da hori egitera, bertatik jagon ahal izateko moduan.

Hiru aste igarota, bitok badira zutik egoteko eta abaraskak irekitzeko gauza, eta senak eramanda aztarnika antzen dira habiako hostoetan, lurretik atera antzean. Aldi berean, hegoei eragiten diete, eta sei aste dituztela habia utzi eta hegan egiten dute hurbileko adarretara. Orduan, arrak batez ere elikatzen ditu beste 14 edo 17 egunetan. Gerotzit, beren mantenua lortzeko gauza badira ere, halako menpetasun haremna mantentzen dute gurasoekin, hegazti batetik bestera bi eta zortzi aste bitartean irau dezakeena.

Irairearen hasieratik erdi aldera bitartean hasten da Afrikara itzultzeko bidaia. Orduan beren izaera baketsu eta ustetsuago bihurtzen da, oso elkarikoi egiten da eta boladetan miltzotzen dira bidaia egiteko. Gantza melatu ere egiten dute, janaria biltzeko ia gelditu gabe migrazioa egin ahal izateko moduan. Edateko soilik gelditu ohi dira.

Goiz hasten dute bidaia haize gutxi-ko egunetan, oso altuera handira igo eta gero, 45 km/orduko abiadurari eusten diotela batez beste. Harrapari gehienek ez bezala, zapelatz liztorjaleak edozein leku-tatik zeharka dezake Mediterraneoan, pasagune laburrenatan bildu behar izan gabe. Eguraldi txarra dagoela ere egin dezake hegan, eta oso denbora laburrean burutu ohi dute gutzitan igarota.

**HABITATA:** mendi baxuak nahia-ko dituzte ezartzeko, baina beren elikadurara osatzen duten insekutuak gorago aurkitzen badira, hain bidaia igotzen dira zalantzarik gabe.





## BELATZ GORRIA

*Falco tinnunculus*

**NOLA EZAGUTU?** belatz gorria harrapari bikia da, ez baitu 36 zentimetroko luzera eta 80 cm-ko hego-luzera gainditzen. Arrak eta emeak guztiz differenteak dira, ez bakarrik beren tamaina eta pisuari dagokionez arrek 150 eta 240 gramo bitarteko pisua dute, emeena, beriz, 200 eta 300 gramo bitartean dagoela, baizik eta beren lumajearen koloreei dagokionez ere. Arrek kolore gorritza agertzen dute bizkaraldean, orbaian beltzez pikardatuak. Beren buru, isats eta ipurtunxuraren gris-urdinxkarekin kontraste egiten duena. Behealdeak arrexkak dituzte eta eurrez pikardatuak. Emeak lumaje motelagoaz jantzi-ta daude. Bizkaralde arre-gorritza dute, zerrenda ugartz homitua, sabelalde arrenaren antzerkoa dutela. Arrarenak bezala, hego puntazorrotzak ditu, baina isatsak, zerrenda beltz batean ere amaitzen den arren, eurrez marraturik agertzen da. Bi sexuek dituzte bibote finak, lumaje laranzag estaltzako tartsoak eta atzapar beltzez amaituriko behatzak.

**BIOLOGIA:** Euskal Herrian bizi diren hegazti gehienak geldikorak dira, ez baitute migrazioen ugalketa amaitu eta udazkenean iristen. Laster hasten zaien araldia; izan ere, martxoaren erdi aldera ikus daitezke arrek eta emeak beren eztei-jardueretan, batak besteari jarraitu eta garrasika. Emeak ez du inolako habiarik egiten, eta ez du oztoporik jartzen labar hurbilgaitz bat, beste hegazti baten habia, zuhaitz baten kofagunea edo lurreko sasiartean ezkutaturiko izkina bat aukeratuz. Apiriletik ekainera bitartean, emeak 4 edo 5 arrautza errotzen dituzte —ohiz bestera 8taraino—, zurixkak eta orbaian arre-gorritza handiez beteak, 38 x 31 milimetrokoak. Hilabeteko inkubazio aldia egindakoan jaiotzen dira bitoak, lehenengo lumatzaz estaliak. Lumatza hori grisa eta gorritza batez ordezkatzeko aste baten buruan. Amak mailekito elikatzen die bitoiak, arak ekartzen dituen harrapakin zati txikiak ematen dizkielela. Hazten diren neurrian, amak utzi egiten ditu bere bikote-kidearekin janari bila joateko. Lau aste igarotakoan, belatz gori txikiak badira hegan egiteko gauza, baina eilikadura eskatzen diete oraindik gurasoei, eta hauek harrapakin eramatzen dizkiete ia beste hiru asteen. Abuztura edo irailera iritsita, erabat independizalzen dira eta noizezko bidaia hasten dute ehiza-lurralde bila. Omnitlogoek egindako azterlanen arabera, belatz gori txikiak heriotza-tasa handia agertzen dute; izan ere, haietarik %40 sei hilabete eduki baino lehen hiltzen dira.

**ELIKADURA:** bere elikadura alda-korra da urtaroenkin batera eta zein lurraldetan bizi den. Neguan ugaztunak dira bere janari nagusia, batez ere, karraskariak eta lursa-guak; neguan, beriz, narrastiek, hegaztiak eta insektuek ia porzentaje handiagoa suposatzen



dute. Era berean, hegoalderago bizi diren espezie honen europar populazioak iparralderago bizi direnak baino insektujaleagoak dira. Belatz gorria dugu hegan egiten maisu bikaina. Bere teknikaren domeinuari esker, airean zintzilik egon daiteke eta ehiza-lurraldea arreta handiz arakatzan duen bitartean, eta hori guztia, bere hegaketa arin-bizkorriari, bere isatsaren hedaketa eta haizearen erabilera egokiari esker.

**HABITATA:** belatz gorria oso moldakorra da habitat-mota antzetan. Hala, berdin bizi da kostaldean, itsas labarretan, edo mendiko harkaitzegietan, zaskardi, estepa edo basoaldeetan. Orobat, ez da exijentea klima edo altitudeari dagokionez. Horregatik eta hegadaren domeinu handia duelako, harrapari ugarienetakoa bilakatu da, ez bakarrik Euskal Herrian, Europa osoan baizik, Mediterraneoan Eskandinaviara bizi delarik. Habia egiteko, bertan behera utzitako gizakiaren eraikinak okupa baditzake, Euskal Herrian, gehienek egiten dute habia itsas labarretan, harkaitzegi naturaletan eta artifizialean, esaterako, harrobietan, edo zaharkinetan, Guevararen Gaztelua kasu. Bikote batzuk Ebro ibaiaren harkaitzezko ezpondetan ere ugaltzen dira (Baños de Ebro).

**HEDAPENA:** Asia eta Afrika ere sartzen dira haren banaketalurrealde zabalean. Azken kontinente horretan, oihan tropikalean soilik ez da aurkitzen. Horren ondorioz, eta zabal banaturik egon eta oso biotopo antizak okupatzen dituzten animalia gehienekin gertatzen den bezala, belatz goriaren 16 subespezietaraino iristen dira zehaztu direnak. Europako belatz gorria (*F. tinnunculus*) gure basoetan eta Europa osoan eta Afrikako iparraldean bizi da. Aurkitu egin daiteke kostaldeko belardien gainetik eta muino-aldeko zaskardien gainetik nahiz atlantiar aldeko mendizerraketo txilardegi altuetan, ugariagoa dela itsasaldeko zerrendan eta uren mugaleroko mendialdean. Gure basoetan, fideltasuna gordetzen die azpikantaurik eta mediterraniar aldeetako harkaitzegi.



## BELATZ TXIKIA

*Falco columbarius*

**NOLA EZAGUTU?** belatz txikia dugu Europako belatzetan biki-ena. Bere altuera 29 eta 34 zentimetro bitartean dago, eta bere hego-luzera ez da 70 zentimetrotik pasa (56-69 cm). Arren pisua 150 eta 200 gramo bitartean egoten da, emeak, beriz, handiagoak izaten dira beldi, eta arrek 300 gramoko pisua gainditzen dute. Arrek kolore gris-urdinxka agertzen dute bizkaraldean, eta gorritza eta eurrez marratua sabelaldean. Emeak, ordea, urte-betetik beherako hegazti gazteek bezala, tonu arre iluna dute bizkaraldean, eta gorritza sabelaldean. Hego luzeak ditu, eta isats laburra, zerrenda beltz zabal batean amaitzen dena. Berezigari du belatz honek hegada sutsu eta irregular bat, hegoen astintze bizkorra bultzatuta, azelerazio ahalmen handia lortzen duela.

**BIOLOGIA:** marxo eta apirilean, neguko gau hotzei udaberriko egunsentil freskoak darrazkien aldi iraganeraren, Euskal Herrian negua eman duten belatz txikiak migratu egiten dute Europako erialdeko eta iparraldeko ugalketa-lurraldeetara. Ez dute denbora galtzen, zeren sei hilabete soilatan parekatu eta bixaldia aurrera atera behar baitute. Horregatik, iritsi eta berehala ekiten diete eztei-jardurik: hegada laburrak egiten dituzte beren lurraldea markatzeko, emari ditzekeo garrasi handi arteen. Kidea agertu orduko, elkarrekin ekiten diote hegan egitea, eta azkenean, arrek harrapakin bat opatzen diote kideari, estaldura burutu baino lehen, berehala gertatuko dena. Belatz honek leku ireki edo erdi basotsuak aukeratu ditu habia ezartzeko. Klima hotzetako bizilaguna denez gero, Europan, tundra tipiletatik turtageti inguruan dauden koniferoen basoetara bitarteko alde batean ezartzen da, beldi ere ubideetatik hurbil. Habitat hobetsi berbera dute belatz txikiak eta negu-bitiak, haren harrapakinik ohikoena. Normalean, lurrean egiten du habia, iratze eta bildari artean, lurren egindako zulotxo bat besterik ez baita, adaxka batuzeko estalia. Batzuetan, zuhaitzetan egiten du habia, edo korbidoek bertan behera utzitakoak erabiltzen ditu. Maiatz eta ekainean, emeak 3 eta 6 arrautza bitartean errotzen ditu -normalean 4-, horixkak eta orbaian ilun edo gorritzez pikardatuak, 40 x 31 milimetroko tamaina eta 22 gramo pisu dituztenak.

Arrautzak emeak berotu ohi ditu, baina batzuetan arrek ordezkatzeko den denbora laburretan, haiakozelan emea habia inguruan gertatzen da. Atsedena hartzen duen ure horietan bere lumajea zaintzen du eta hurbileko zuhaitza edo harkaitz batean pausatutik egoten da. Izan ere, arra, biltzen ez duenean, emea elikatuko ehizan aritzen da, baina emea ez da behin ere ehi-zan aritzen biltzen dagoela, hots, lehenengo arrautza errotzen duenetik aurrera. Hilabete igarota jaiotzen dira bitoak -zehazkiago, 28 eta 32 egun bitartean-, ondoren emeak bi edo hiru orduz behin ematen die jaten, bere lagunak dakartzan harrapakinekin. Hamar egun ez dituzten bitartean amaren estalpean egoten dira beldi, baina orduetik aurrera

## EGUNEKO HARRPARIAK




auria edo eguzki gogorra denean soilik estaltzen ditu; dena dela, ez da sekulan ere habia inguruetatik urruntzen, kurmeek hiru eta lau aste bitartean bele ez dituzten artean, eta hori gertatzen da uztailaren amaieran edo abuztuaren hasieran. Harrapari honek, ohitura bixia bada ere, soberako harrapakinak biltzen ditu habia inguruetan, eta hertsiki zaintzen ditu beste animalia batzuek, esaterako, korbidoek edo harrapari handiagoek, lapurtu ez dizlazen.

**ELIKADURA:** harrapakinen tamaina txonta bateneran eta uso bateneran bitartean egoten da. Neguan, txolarre-ak, hegababakak, zozoak, txonak eta zangoluzuek. Goizeko lehenengo orduan, gaua eman dueneko pausastintze abiatuta, ehiza-hegadari ekiten dionean, nahikoa du hegoastintze bizkor bat abiadura hartzeko, 70 kilometro orduko abiadura lortzen duela astinduzko hegadan eta batera haize korrontetik gabe, baina batez besteko hegaldialdi-abiadura 55 edo 60 kilometro ordukoa da, planeo aldiekin txandatueta. Landazabal eta lautadetan ehiza egiten duenean, hegan egiten du oso maila baxuan, pausatutik dauden boriak ikaratu eta igorrazteko.

Harrapakin bat hegaldalzen denean, belatzak daramanaren kontrako norabidean bada ere, bat-bateko bixia egiten du eta hurbilek jarraitzen dio hankaz kolpatu edo atzaparez atzematen duenera arte. Enarak eta sorbelzetik ere harrapatzen ditu, zuzen-beherako oldarraldi zorabiagarriak egin eta gero, eta bitoak ere harrapatzen ditu lur-arrean hegaztien bixaldia aurkitzen ditue-nean. Belatz handiak ez bezala, dieta hertsiki omnitofagoa baita, belatz txikiak karraskari txikiak eta lursa-guak harrapatzen ditu batzuetan.

**HABITATA:** udazkenaren hasieran, gure basoetako harrapari habiagile ez-gekidorek beren ugalketa-lurraldeak utzi eta afrikar negu-pasako aldeetara joaten direnean, gure bazterretara hurreritzen da Europako iparraldean habia egiten duen belatz txiki bat, urtaro gogora gure padura eta zelaie-tan emateko prest, eta udaberria hastera-koan ugalketaren di hertsagarria sentitu eta bere habitat hotzetara itzultzen da.

**HEDAPENA:** belatz txikia, "iparraldeko biki-goa", Islandia, Britainia Handia, Eskandinavia, Irlanda, Errusia eta Asiako erialde eta ekialdean banaturik dago; hegari ahaltsua da, eta batzuetan Iberiar penintsula eta Mediterranea inguratzen ditu, Afrikako ipar-mendebalean negua emateko.





**UGATZA**  
*Gypaetus barbatus*

**NOLA EZAGUTU?** Ugatzaren altuera 120 eta 140 zentimetro bitartean dago, eta bere pisua 6 eta 7 kilogramo bitartean. Lumaje nabarmena agertzen du, gainerako hegazti sarraskialeangandik bereizten duena. Ezkarriko lumak eta papar eta sabelaldekoak gorritzak dira, eta kontraste bizia egiten dute buruan dituen zurri-horixtekin. Begietatik mokorainoko aldean inguru-xingola beltza du, maskara baten antzean. Mokoan, inguru-xingola beltz hori zurda-sorta bihurtzen da, behe-barailatik hedatu eta, bizar antzean, horren azpian erori eta gailentzen dena. Hortik hegazti honen izen zientifikoa, *Gypaetus barbatus*, sai-arrano bizarduna adiera duena.

Buru gainean luma tenteko batzuk agertzen ditu, asaldaturik dagoenean zabalitzen dituenak, arranoek egiten duten bezala. Azpian, begi horixka eta eskerotikako zirkulu gorrimin balez inguratuta begira da mehatxagarria ematen diote, moko gris luze, kakodun eta amaieran beltz baten gainean nabarmentzen dena. Bizkarraldea eta isatsa gaua bezain ilunak diren arren, luma bakoitzak lerro zurixka agertzen du erdian, hegoei distira metalikoa ematen dizkiena. Hanketako tarsoak lumaz jantziak dira eta atzazalak luzeak.

Ugatza dugu Europako harraparik handiena, 2,80 metroko hego-luzera hartzen baitu -iraungi baino lehen, Alpeetan 3 metroko hegaztiak aurkitu ziren baina-, eta horrek planeatzaile paregabea egiten du, lekualdatzeko korronte termikoek baliatzen dena. Hegazti honek ia 80 kilometro orduko abiadura hartzen du hegan, metro bat altitudetaz galtzen duela aurrean zango hamar metroko. Goranzko haizen aurkitzen ez bada, 20 kilometroko plano egin dezake hamabost minutu baino gutxiagotan, baina korronte egokia aurkitzen bada, bere lurralde oso gain-hegatzeko duen 40 eta 135 kilometro karratu bitarteko azalera izan dezakeena -bere hego egundokoak behin ere astindu gabe.

**BILOGIA:** hegazti geldikorrik ditugun ugatzak, eta lurralde propioa dute bizitz osoarako, bikote-kidearekin konpartitzen dutena. Lurralde horrian badira leku batzuk garbi mugaturik daudenak, esaterako, habiagintza-lekuak, habia inguruko aldea eta bikolearen eragin-aldea, beste bikote batzuen lurraldeei gainezar dakiekeena. Habiagintza-lekuak habia kokatzen den horma mugatzen da, leku sakratua dela geroko gurasoentzat, eta ez diote ezin hegazti izaten bertara iristen. Habia inguruko aldea, berriz, aran bat izan ohi dena, ez dago hain defendaturik, eta beste hegazti sarraskiale batzuk igaro daitzake bertatik. Lurraldeagatik borrokatzen direnean, edo sai-arrano batek harrapakin bat lapurtu nahi duenean, hegan egiten du aurkarienganantz eta kolpeak ematen dizkio hego-muturrekin. Aurkariak ihes egiten bada, jarraiki egiten dio eta haren gainean



jartzen da atzaparrak irekita oldartzen zaiola. Udzakaren erdi aldera, uda bitartean bakoitza bere aldetik ibilak ziren bikote-kideak elkartu egiten dira habiak berritzatzeko, lurraldean lehengo urteetatik eginak eduki eta bi eta bost bitartean izan daitzekoenak. Hegazti honek ezaleku ezberdinean egiten du habia urtero, balsek "etxean" ematen duten egonaldi luzean sortzen diren bizkarriak desagertu daitezkeen. Izan ere, ugalketa-ziklorik luzeenetakoa du eguneko harraparien artean, zortzi hilabetekoa baita emeak lehengo arrautza eruten duenetik bitoak independentzian diren arte. Beraz, ugatz-bikoteak lau hilabete baino ez dago urtean hazkuntzako zereginetatik libre. Guraso egin-eginak dira, inondik ere. Urriaren amaiera aldetik kus daitzake kide biak adarrak eta material ezberdinak habia-lekura didean daramatzatela, eta bertatik hurbil uzten dituzte beren obra egiteko materialak. Habia egin ohi dute hormatzar malkartsuetako haitzuloetan edo euritik babesturiko erlaitzetan. Tamainari dagokionez, 1 eta 2 metro bitarteko altuera eta 1 eta 1,5 metro bitarteko zabalera izan ohi ditu. Kanpoko egitura koniferoen adarrez eginda dago, eta barruko kofagunera orbekak, ileak, zurdak, helduen sabelaldeko lumak eta animalien lumaak erabiliz estaltzen dute.

Abenduan edo urtarleean gertatzen dira eztei-hegalaldiak, eta arrak, urtearen gainerakoan isil, garrasi batzuk jaultkitzen ditu emearen aurrean. Bikoteak araldetik kanpo ere, lurraldeko lekuren batean elkarrekin topo egiten dutenean, hegaldi zirkular laburak egiten baditu, garai honexetan gertatzen dira beren ageraldi kusgamenak -beti habia inguruetan-: bikoteak igoerak egiten ditu airean, zirkulu meharrik eginez, gero altuera handitik erortzeko. Horien ondoren gertatzen dira estaldurak, eztei-hegalaldiei amaiera emanez, hainbeste arduaraz egiten duten habian bertan. Emeak, maitekor, agurreko kanu ermituak egiten dizkio arari, honek kulunkatu eta bere ezkarriko kolore larriak erakusten dituen bitartean. Gero, arra gaineratzen zaio emeari, hegoak zabaldua orekari eusteko, eta bere kidearen garondoa mokatzen du. Estaldurak 20 segundo baino ez dirau, eta lehengo estaldurak gertatu zirenetik hilabete igarota -urtarilean erdi aldetik otsailaren lehengo hamabostaldira bitartean- eruten ditu emeak bi arrautza zurri-aretxa, lau eguneko tarte batean. Berehala ekiten dio inkubatzeari, ararren laguntza izaten duela askotan zeregin horretan.



Ugatzak klima-egoerarik barrenetan egiten du habia. Saiak beren arrautzak abenduan eruten baditu, ugatzek baino altuera askoz ere bikiagotetan egiten dute, ugatzen habiagintza-kola goi-mendiko beste hegazti batzuenaren parekagarria delarik. Horrela, otsail betean, zero batzuetan gauko temperatura zero azpitik 15 gradulara jaitzia dela, elurretik eta haize jelsatutik babesteko egoki kokatuko etzalekuak, bi arrautza eruten ditu emeak oztipoak oztipo. Batzuetan, arrak kordatu eta harrotu egiten du habiaren barrualdea estaltzen duen ilekia, beroan eusteko. Arrautzak bi hilabetez berotu ondoren jaitzen da lehengo bitoa, eta lau egun geroago bigarrena, baina azkeneko hau luzeago gabe hil ohi da ahul-ahul eginda. Txitoa lumatxa gris balez estalia jaitzen da, eta gurasoek gau eta egun estaltzen dute haren lehengo 12 biz-egunetan, eta jaten ematen dizkiote hezurretatik erauzten dituzten tendoi, larri eta gihar zali xumeak. Maitekorire ere zaintzen dute bi gurasoek, laguntzen diote jarreraz aldatzen, garbitzen dizkiote irazkinak, leuntzen diote lumaba...



Hilabeteko adina ez duen bitartean ez dute bakarrik uzten habian. Orduan, janaria eskaintzera mugatzen dira, ahoan sartu gabe. Haren lumatxa grisak tonu marroi argitsu hartzen du, eta laster ageri zaizkio luma nagusien orratzak. Txitoa lau hilabeteleko egotan da habian, lehengo hegadei ekin eta helduen tamainaren antzekora iritsi arte. Gurasoen habian ematen duen egonaldi luzeaz dorkioke hezurak aprobetatzeko teknikak ikasi beharri. Habian ematen dituen azken egunetan salto handiak egiten ditu eta indar handiz astintzen ditu hegoak, gurasoak, hegan egitera bultzatzeko, habiatik hurbil, baina pasatu gabe, hegan igarotzen diren bitartean. Azkenean, goseak eraginida, gainditzen du beklura eta jauzi egiten du, hegan egiten duela hurbileko harkaitz bateraino.

Planoa laburrak egiten ditu egun batzuetan, eta, azkenik, hegadari ekiten dio gurasoen batera, mugimendu bakoitza imitatzen duela eta hegadaren teknikak imitatzen ikasten duela. Abuztuan gurasoi jarraitzen die gazteak, haiak, janari bila, lurraldea azterkatzen duten bitartean. Janaria aurkitu dutenean, airetik botatzen dizkiote hezurak, gazteak jatera jais dadin lurrera. Egur asko ere botatzen dituzte puskalekuetara, kumeak hezurra nola puskatu behar den ikas dezan. Irailaren amaieran, udazkena iristen denean, independizatu egiten dira gazteak, eta neguan gurasoen lurraldea utzi eta feudo propio bila joan ohi dira, bizirauteko baldintza egokiak dituen feudo propio bila. Bost urte dituzela iristen dira heldutasun sexualera, eta lumajea, arre iluna lehen bizi-urte bietan, agitu egiten da arian-arian, eta laugarren urterako helduenera iristen da, baina burua, argia bank, iluna da oraindik.

Hamgarriro, mundu osoan gaturtasunez denboratik gehien bizi izan den ugatz Anboto mendian

hegan jarrita eta geldit egonda, eta gora igotzen da horela, kometat bat bailitzan, hegadaren tekniken domeinu kusgarria agertzen duela. Are neguko egunik barrenetan ere, haize eta euri bortitzenak diren horietan, sai-arranoak plano egiten du goietan, bere norabidea behin eta berriz zuzentzen duela hego eta isatsaz baliatuta. Heriotza sumatzen du basoan airetik, eta egonarriz ibarroten du bere txanda; nekrofago bikiak, bealek eta erriok joango dira lehengo, eta miurak eta saiak gero.



mendearren hasieran harrapaturiko bat izan zen, gero 50 urtean koiolaturik egon zena. Hegazti hauek oso erraz bezatu eta obehitzera ino. Hogeita hamarrek hamarkadan utzi zion azken ugatz-bikoteak Aralar mendizerran habia egileari; bertatik diolorki arpatuak izan ziren gasezko ozeano urdinarren jabe hauek. Eta geroztik ez da habitat horietan beste hegazirik ageri.

**ELIKADURA:** mendizerra malkartsu eta altuenetako harkaitzegi eta labaretatik abiatzen da ugatz gozoro, oso goiz, eguzkia irten baino lehenago eta haize epelaren korronteak eratu ere baino lehenago. Habia utzi eta oldartu egiten da, janari bila, hegada baxu eta geldoan. Arretaz arakitzen ditu mendizerrako mazelak eta arranak; zer bat oso nabarmen gertatzen zaion arte. Orduan, begiratzen du airetik, igarotzen da hainbat aldiz bere naharen galieren gainetik hegan, eta segundo batean bat-bateko norabide aldaketa egiten du eta zuzen-behera oldartzen da. Batzuetan, udaberriaren etorreran, animalien gorpu asko aurkitzen dituzte era honetan, elurrez estalia zudean. Haizez gogorra denean, haizeaz baliatzen da gora igotzeko, haren kontrako

hegan jarrita eta geldit egonda, eta gora igotzen da horela, kometat bat bailitzan, hegadaren tekniken domeinu kusgarria agertzen duela. Are neguko egunik barrenetan ere, haize eta euri bortitzenak diren horietan, sai-arranoak plano egiten du goietan, bere norabidea behin eta berriz zuzentzen duela hego eta isatsaz baliatuta. Heriotza sumatzen du basoan airetik, eta egonarriz ibarroten du bere txanda; nekrofago bikiak, bealek eta erriok joango dira lehengo, eta miurak eta saiak gero.

Ageritzen diren igoerak haragirik gabe uzten du animalia, eta, bitartean, ugatz zain dago aldearen gainetik hegan, edo hurbileko leku batean pasatuta, edo gune zehatza buruan sartuz, alde egin eta geroago izultzeko. Gainerako sarraskialek gorpu bertan behera utzi eta gero, "maskaradun hegazti" berrartzen da hezurak aukeratzeko. Gorputz-adarretakoak ditto gogokenak, baina osorik irensteko handiegiaq direnez, bere atzaparraren garratzen ditto berarentzat oso ezagunak diren leku harkaitzuz puskatu ahal izateko, altuera egoki bateraino igortzen da -20 eta 150 metro bitarteko altueraraino, nolako hezurra den edo puskaleku zein eraginkor den-, haizearen kontra jartzen da ia ibilge egoteko eta zein leku harkaitzutan eronko den kalkulatzeko, libratzen du hezurra eta, lurrera iritsi baino lehen, zuzen-behera oldartzen da haren traiektoria egiaztatzeko. Hezurra hausten ez bada, berrin ere ekiten dio. Gero hezur-muina ateratzen du eta puskala bikiak bilatzen ditto irensteko. Paleta-hezurak eta muinik gabe beste batzuk gutiz garraskatzen ditto bere mokoaz baliatuta.

**EGUNEKO HARRPARIAK**





# Arrain Editoriala

La mayor obra escrita en euskera de Antropología y Biodiversidad

ARGITARATUTAKO BESTE LIBURU BATZUK

CATÁLOGO DE PUBLICACIONES 2009



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

“Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetza) diruz lagundutakoa”